

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



ENPRESA IKASKETEN UNIBERTSITATE ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ESTUDIOS EMPRESARIALES
DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

Ikasturtea: 2015 - 2016

ERRETIROA ETA AURREZPEN PRODUKTUAK

Olatz Galdos Diaz

Zuzendaria: Josu Barrena Galarraga

Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola

Gradu Amaierako Lana

AURKIBIDEA

SARRERA	1
1. MARKO TEORIKOA.....	2
1.1. Erretiroa: kontzeptua	2
1.2. Erretiroan eragin dezaketen faktoreak.....	3
1.2.1. Faktore demografikoak	4
1.2.2. Lan-merkatuaren bilakaera	6
1.2.3. Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren iraunkortasuna.....	8
1.2.4. Eros-ahalmena eta inflazioa	10
2. GIZARTE SEGURANTZAREN ERRETIRO PRESTAZIOA.....	12
2.1. Erretiro-pentsioa: kontzeptua eta helburua.....	12
2.2. Adin arruntaren azalpena eta salbuespenak.....	12
2.3. Pentsioaren zenbatekoaren kalkulua	14
2.4. Erretiro-pentsioa: bestelako datuak.....	17
3. AURREZKIRAKO FINANTZA PRODUKTUAK	18
3.1. Gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundea (GABE/EPSEV).....	18
3.2. Pentsio funtsak	21
3.2.1. Pentsio Planak (PP).....	25
3.2.2. Banakako Pentsio Plana	28
3.2.3. Gizarte Aurreikuspeneko Enpresa Plana (GAEP/PPSE)	30
3.3. Bermatutako Aurreikuspen Planak (BAP/PPA)	32
3.4. Banakako Aurrezpen Sistematikoko Plana (BASP/PIAS).....	36
3.5. Produktuen laburpen taula eta alderaketa	39
4. INBERTSIOA: AURREZKIAREKIKO BESTE AUKERAK.....	41
4.1. Errentagarritasuna, arriskua eta likidezia.....	41
4.2. Beste finantza produktu batzuk	42
4.2.1. Gordailuak.....	43
4.2.2. Inbertsio Funtsak	46
5. FINANTZA IKERKETA: PRODUKTUEN SIMULAZIOA	51
5.1. Aurrezpen produktuak: kasu praktikoak	53
5.2. Aurrezpen produktuen alderaketa	63
5.3. Bestelako finantza produktuak: adibide praktikoa	65
5.4. Bestelako finantza produktuak: alderaketa	68
ONDORIOAK.....	69
BIBLIOGRAFIA	71

SARRERA

Karrera amaitzear eta gradu amaierako lana aukeratzeko unea iritsi zenean, lana egiteko ze gai egin ez nekiela aurkitu nintzen. Hala ere, finantza arloko gai bat egin nahi nuela banekien, hori izan baita urte hauetan zehar gehien gustatu zaidan adarra. Gai zerrendan proposamen hau ikusi nuenean, berehala etorri zitzaizkidan burura lana garatzeko ideia desberdinak eta, argi izan nuen aukera egokia izango zela.

Lanaren planteamenduari dagokionez, erretiroari begira gaur egun dauden ziurgabetasunak aurkitzen ditugu ardatz moduan. Nire inguruneari arreta jarritz, eta eguneroko albisteei erreparatuz, pentsio sistemaren aldaketak ikusi nituen. Gaur egunean murgilduta gauden krisi ekonomiko-finantzarioak pentsioen bilakaera desfaboragarria areagotu du, Gizarte Segurantzaren pentsio planen sistemaren iraunkortasuna zalantzan gelditu delarik. Gehiegi sakondu gabe, populazioaren zaharkitzea eta egungo langabezia-tasa izugarriak, erretiroa urrun daukaten langile askok edota oraindik lan munduan sartzeaz dauden gazte askok, ni neu barne, erretiro pentsioa jasoko dugunaren zalantza dugu. Arazo horren aurrean, erretiroari begira aurrezki pribatu bat edukitzearen beharra agertzen da, horretarako produktu desberdinak aurkitzen ditugularik merkatuan.

Horiek horrela, lanaren helburu nagusia erretiroari begira Gizarte Segurantzaren erretiro pentsioaren osagarria izango den aurrezki bat eratzeko gaur egun dauden finantza produktuen artean aukera onena zein den aztertzea da. Helburu hori lortzeko, urrats desberdinak jarraituko ditugu lanean zehar. Lehenik eta behin, erretiroaren nondik norakoak ikusiko ditugu eta baita erretiroan eragin dezaketen faktoreak ere. Ildo beretik, gaur egun Gizarte Segurantzak erretiroari begira eskaintzen duen prestazioa laburki ikusiko dugu, eta baita pentsio sistemaren iraunkortasuna zalantzan dagoenaren zenbait ebidentzia ere. Behin aurrezki osagarri baten beharra dagoela frogatuta, merkatuan aurkitzen ditugun produktu desberdinen azterketarekin hasiko gara.

Produktuei dagokionez, aurrezpenera zuzenduta dauden produktuak aztertzen hasiko gara, hau izango delarik lanaren mamia. Hala ere, aurrezpena helburu nagusizat ez duten bestelako produktu finantzarioak ere aztertuko ditugu. Produktu hauek gehien bat errentagarritasuna lortzera bideratuta daude. Produktuen ezaugarri eta trataera fiskala aztertuta, eta hauen arteko desberdintasun nagusiak ikusita, teoriarik landutakoa praktikara eramango dugu. Azkenik, lanarekin amaitzeko, lanean zehar ikusitako guztia biltzen dituzten ondorioak aterako ditugu.

Gradu amaierako lana egiteko jarraitutako metodologia aipatzearen esan, gehien bat bilketa bibliografikoa burutu dugula, eta entitate finantzario desberdinetan ere informazioa bildu dugula. Kontsultatutako iturri gehienak gaztelaniaz zeudenez, itzulketa lana ere kontuan hartzekoa da.

1. MARKO TEORIKOA

Gradu amaierako lan honekin hasteko, gaiaren hurbilketa egingo dugu oinarrizko zenbait kontzeptuen azalpenarekin. Lanaren helburua erretiroari begira aurrezki bat eratzten lagunduko diguten produktu desberdinen azterketa denez, erretiroaren nondik norakoak azaltzen hasiko gara. Ondoren erretiroan eragin dezaketen faktoreak ikusiko ditugu, aurrezki osagarri baten beharra azaleratzen ari dela frogatzeko.

1.1. Erretiroa: kontzeptua

Atal honetan gaiaren ardatza den kontzeptua azalduko dugu, erretiroa hain zuzen ere. Lehenik eta behin, erretiroa zer den azalduko dugu modu labur batean. Erretiroa pertsona batek lana egitearen etetea burutzen duenean ematen da, erretiroa hartzeko adinera heldu denean, momentu horretatik aurrera pentsio bat jasotzen duenari. Erretiroa adierazten duena zera da, gizabanako batek jada ez duela momentura arte burututako lana edo jarduera aurrera eramateko gaitasunik. Azaldu beharreko beste gauza bat, erretiro mota desberdinak daudela da; erretiroa **ohikoa** edo **ez-ohikoa** izan daiteke. Lehenengo kasuan lan jarduera uztearen arrazoia legez ezarritako adinera heltzea da. Bigarren kasuan, berriz, lan jarduera bat-batean eta ezustekoz uzten da ezinbesteko arrazoi baten ondorioz, istripu kasuetan edota ezgaitasun kasuetan besteak beste. Hala ere, bi kasuetan beharrezkoa da tramite administratiboak burutzea lan jardueraren etenduraren baldintzak zehazteko, eta baita pertsona horrek erretiroko pentsio moduan jasoko duen zenbatekoa kalkulatzeko ere.

Erretiroa beraz, prozedimendu administratibo bat da, zeinaren bidez lan jarduera burutzen ari den gizabanako batek lan egiteari uzten dion, subjektu pasibo bihurtzen delarik. Erretirora heltzeko subjektuak legez ezarritako adin zehatz batera iritsi behar da; herrialde gehienetan adin hau 65 urteren inguruan kokatzen da. Esan beharra dago, lan jardueraren etendurak diru-sarreraren etendura ere suposatzen duela. Horregatik Estatuak errenta bat ematen dio erretiroa hartu duen pertsonari. Aipatutako errenta jasotzea eskubide bat da gizabanakoarentzat, eta bizirik dagoen bitartean errenta hori jasoko du, herrialde bakoitzeko Gizarte Segurantzak ezartzen eta arautzen duenari pentsio horren nondik norakoak. Erretirorako pentsioa beraz, hilero erretiroan dauden gizabanakoek jasotzen duten biziarteko errenta bat da, Gizarte Segurantzak delarik prestazio hori ordaintzearen arduradun Estatuaren agindupean. Pentsioaren zenbatekoari dagokionez, herrialde bakoitzaren arabera eta momentuan indarrean dagoen legeriaren arabera ezartzen da kalkulua (Pérez Porto & Gardey, 2012).

Esan dugun bezala, herrialde bakoitzean dauden erretiroaren inguruko legeak anitzak dira. Herrialde batzuetan gizabanako batek eskubide hau jasotzeko eduki beharreko gutxieneko adina 67 urtekoa da, ezgaitasunen bat duten pertsonak salbuetsita geratzen direlarik bere adina edozein izanda ere pentsio bat jasotzeko eskubidea baitute. Hala ere, aipatutako adin hau burutzen den lan jarduera motaren arabera izaten da, adibidez, fisikoki esfortzu handia eskatzen duten lanbideetan adin hau txikiagoa izan ohi baita. Zenbait legerietan gainera, langileak adin honetara heldu baino lehen erretiroa hartzeko eskubidea dute, beti ere kotizatutako diru kopurua legez estimatutakora iristen baldin bada.

Jarraian erretiroarekin zerikusia duten beste kontzeptu batzuk laburki azalduko ditugu, nahasketarik sor ez daitezzen. Esan bezala erretiroa lortzeko lege ezarritako adinera iritsi behar da, hala ere zenbait kasuetan **aldez aurreko erretiroa** hartu daiteke. Salbuespen kasu hauek jada pertsona adindu batek nahiko ekarpen egin ondoren eta arrazoi medikuengatik erretiroa hartzera behartuta ikusten denean ematen da. **Aurretiko erretiroa** askotan aurreko terminoarekin nahasten da; kasu honetan lan jardueraren etendura ez da ezinbesteko kausa baten ondorioz ematen, baizik eta langilea lan egiten duen enpresarekin akordio bat egitean datza. Akordio honen bitartez, enpresak langilearekin duen lan-harremana eteten du ohiko soldataren portzentaje bat ezartzen delarik langileak kalteordain moduan jaso dezan. Gainera enpresak Gizarte Segurantzarekin hitz egiteko konpromezua hartzen du, langileak lan etendura ematen denetik erretiro pentsio erlatibo bat jasotzen has dadin (Pérez Porto & Gardey, 2012).

Laburbilduz, aldez aurreko erretiroa (jubilación anticipada) legean aurreikusitako salbuespen bat da, eta aurretiko erretiroa (prejubilación) langilea eta enpresaren arteko akordio bat besterik ez da, hau da, legearen aurrean aurretiko erretiroa hartu duen gizabanako bat lanik bilatzen ez duen okupaziorik gabeko pertsona bat besterik ez da. Azkenik aipatu beharreko terminoa **erretiro partziala** da; kasu honetan langilea bere lanaldia murriztu egiten du aldi berean prestazio bat jasotzen hasten duelarik. Aldez aurretiko erretiroa dela esan dezakegu, baina jasotzen duen pentsioa oraindik burutzen duen lanaldi murriztuagatik jasotzen duen soldatarekiko portzentuala da. Gizabanako honek lege ezarritako erretirorako adinera iristen denean, ohiko erretiroa jasotzen hasten da.


Erretiroaren azalpenarekin bukatzeko aipatu beharra dago erretirorako pentsioak ordaintzeko beharrezkoa den funtsa gaur egunean lanean dauden pertsonen ekarpenetatik lortzen dela, hau da, langileei beren soldataren portzentaje bat kentzen zaie Gizarte Segurantzaren kotizaziorako. Modu honetan gaur egun dauden langileek egungo erretiratuen mantenua dira, eta era berean gaur egungo langile hauek etorkizuneko erretiratuak izango dira, langile berrien mantenua beharko dutelarik (Pérez Porto & Gardey, 2012).

1.2. Erretiroan eragin dezaketen faktoreak

Behin erretiroaren nondik naraok aztertu ditugula, etorkizunari begira erretiroan eragin dezaketen faktoreei buruz hitz egin behar dugu. Faktore hauei dagokionez, bi faktore mota bereizi behar ditugu; alde batetik, faktore demografikoak ditugu, jaiotze-tasa eta heriotza-tasa, populazioaren tamaina, populazioaren adina, eta populazioaren zaharkitzea esaterako. Bestetik, faktore ekonomikoak ditugu; hauen artean lan-merkatuaren gora-beherak ditugu, populazio aktiboaren bilakaera, eta okupazio-tasa zein langabezia-tasaren bilakaera garrantzitsuenetarikoa direlarik.

1.2.1. Faktore demografikoak


Grafikoa 1: Espainiako jaiotze-tasa gordinaren bilakaera (1975-2015)



Iturria: Egileak berak egina INE (Espainiako Estadistika Institutua)-ko datuetan oinarrituta

Jaiotze-tasaren bilakaera azken hogeita hamar urteetan aztertzen baldin badugu, bere bilakaera beherakorra dela ikusten dugu. 1975 urtean Espainian jaiotako pertsona kopurua 18.702 izan zen; gero mila jaiotzetan murriztu da urtetik urtera 1990 urtean 10.321 pertsona jaio zirelarik. Hurrengo hogeita hamar urteetan jaiotze-tasa nahiko konstante mantendu zen 2010 urtean 10.422 jaiotza eman zirelarik. Azken bost urteetan berriro ere murriztu dira jaiotako pertsona kopurua, 2015 urtean 8.991 haur jaio zirelarik (INE, Instituto Nacional de Estadística, 2016b).

Grafikoa 2: Espainiako heriotza-tasaren bilakaera (1975-2015)




Iturria: Egileak berak egina INE (Espainiako Estadistika Institutua)-ko datuetan oinarrituta

Grafikoan ikusten dugun bezala heriotza-tasa nahiko egonkor mantendu da azken hamar urteetan. 1975 urtean Espainian egon ziren hildako kopurua 8.317 pertsonakoa izan zen. Hamabost urte beranduago kopurua ia ez zen aldatu, 1990 urtean 8.538 heriotza eman zirelarik. Hurrengo hogeita hamar urteetan ere, tasa nahiko konstante mantendu zen, 2010 urtean 8.166 pertsona hil zirelarik. Azken urtean heriotza-tasa igoera txiki bat jasan du 2015 urtean 9.051 hildako egon direlarik.

Bi grafiko hauen irakurketa laburtzen baldin badugu, Espainian azken hamarkadetan jaiotza kopurua txikitu dela ikusten dugu eta heriotza-tasa berriz, egonkor mantendu da, beraz, populazioaren batezbesteko adinaren igoera eman dela aurreikusi dezakegu, eta baita populazioaren zaharkitze maila altuagoa dela ere (INE, Instituto Nacional de Estadística, 2016b).

Grafikoa 3: Espainiako populazioaren batez besteko adinaren bilakaera (1975-2015)




Iturria: Egileak berak egina INE (Espainiako Estatistika Institutua)-ko datuetan oinarrituta

Espainiako populazioaren batez besteko adinaren bilakaera aztertzen baldin badugu, azken hogeita hamar urteetan gorakada nabarmena jasan duela ikusten dugu. 1975 urtean populazioaren batez besteko adina 33 urtekoa zen bitartean, hamar urte beranduago 35 urtekoa izatera pasa zen. Hurrengo bost urteetan emandako igoera nabarmenagoa izan zen, 1990 urtean batez besteko adina 37 urtekoa izan zelarik. Hurrengo hamarkadan zehar batez besteko adina igoera oraindik nabarmenagoa jasan zuen, 2000 urtean populazioaren batez besteko adina 40 urtekoa zelarik. 2000 urtetik aurrera batez besteko adina handitzen jarraitu da, baina era apalagoan; 2015 urtean 42 urtekoa izan delarik (INE, Instituto Nacional de Estadística, 2016b).

Batez besteko adinaren igoera honek, populazioaren zaharkitzearen adierazlea da. Argiago ikusteko, adineko pertsona kopuruaren bilakaera aztertuko dugu:

Grafikoa 4: Espainiako 64 urtetik gorako pertsona kopuruaren bilakaera ehunekotan (1975-2015)




Iturria: Egileak berak egina INE (Espainiako Estatistika Institutua)-ko datuetan oinarrituta

Espainiako 64 urtetik gorako populazioaren portzentajea nabarmen handitu da azken hogeita hamar urteetan. 1975 urtean populazioaren %10,20a 64 urtetik gorako pertsonen osatzen zuten. Hurrengo hamar urteetan ehuneko hau handituz joan da, 1990 urtean %13,41 iritsi zelarik. Hamarkada bat igaro ondoren 64 urtetik gorako pertsonen ehunekoa igotzen jarraitu zuen, 2000 urtean %16,53ra iritsiz. Urte horretatik aurrera ehunekoa modu apalagoan handitzen jarraitu da, hamar urteetan zehar ia egonkor mantenduz, 2010 urtean %16,80 izan zelarik. Hala ere, azken bost urteetan nabarmenago handitu da, 2015 urtean populazioaren %18,50a 64 urtetik gorako pertsonen osatzen dutelarik (INE, Instituto Nacional de Estadística, 2016b).

Ikusten dugunez, Espainiako populazioa zaharkitze geldo baina etengabea jasan du, erretiroa hartzeko edota erretiroan dauden pertsona kopurua ere geroz eta handiago delarik. Azken hau modu sakonagoan aztertzeko, zaharkitze indizearen bilakaera aztertuko dugu:

Grafikoa 5: Espainiako zaharkitze indizearen bilakaera (1975-2015)



Iturria: Egileak berak egina INE (Espainiako Estatistika Institutua)-ko datuetan oinarrituta


Grafikoan argi ikusten denez, Espainiako zaharkitze indizearen bilakaera gorakorra izan da denboran zehar. Hala ere, kontu handia izan behar dugu grafiko hau irakurtzerakoan, zaharkitze indizeak honakoa adierazten baitu: zenbat adineko pertsona (65 urtetik gorakoak) dauden haur eta gazte (15 urtetik beherakoak) kopuruarekin alderatuz. Horiek horrela 1975 urtean 35 adineko pertsona zeuden 100 haur eta gazteekin. Hurrengo hamarkadan zehar proportzio hori bikoiztu egin zen, 1990 urtean 65 urtetik gorako 61 biztanle zeudelarik 15 urte baino gutxiagoko 100 biztanlerekin. Populazioaren zaharkitze etengabearen ondorioz, 2000 urtean 103 adineko pertsona zeuden 100 haur eta gazteen kopuruarekin. Hortik aurrera zaharkitze indizea egonkortuz joan da, 2010 urtean 106/100 proportzioa eman zelarik, eta 2015 urtean 115/100 (INE, Instituto Nacional de Estadística, 2016b).

1.2.2. Lan-merkatuaren bilakaera

Behin faktore demografikoak aztertu ditugula, lan merkatuaren egoeraren bilakaera ikusiko dugu; merkatu honek krisi ekonomiko-finantzarioaren eragin bortitza jasan du, bere gora-beherak oso nabarmenak izan direlarik.

Lehenik eta behin, lan merkatuaren banaketa nolakoa den aztertuko dugu. Populazioa bi multzo handietan bereizten da; populazio aktiboa eta populazio ez-aktiboa. Lehenengo multzo hau ere bitan banatzen da; alde batetik landunak daude, hau da, lan egiteko adina edukita ordaindutako lan bat burutzen duten pertsonak, eta bestetik, langabeak, hau da, lan egiteko adina izanda eta lan bat ez eduki arren, lana modu aktiboan bilatzen ari diren pertsonak. Populazioa osatzen duten gainontzeko pertsonak, populazio ez-aktiboaren barne daude. Multzo honetan lan egiteko adina ez duten pertsonak daude, lan egiteko gaitasuna ez duten pertsonak, eta baita lan adina eduki arren lan egin nahi ez duten pertsonak ere. Orokorrean multzo hau osatzen duten pertsonak honakoak dira: etxeke andre eta gizonak, ikasleak, jubilatuek, ez-ordaindutako lan sozialak, lanerako ezgaitasuna dutenak, edota bestelako prestazio ekonomikoak jasotzearen ondorioz lan egiteko beharrik ez dutenak.

Grafikoa 6: Espainiako populazioaren aktibitate-tasaren bilakaera milaka pertsonako unitateetan eta ehunekoetan (2006-2015)




Iturria: Egileak berak egina INE (Espainiako Estadistika Institutua)-ko datuetan oinarrituta

Grafiko honetan Espainiako populazioaren bilakaera ikusten dugu, aktibitateari dagokionez. Azken hamarkadan zehar populazioaren %60 inguru aktiboa izan da, proportzio hori egonkor mantendu delarik. 2006 urtean 21.780.000 pertsona aktibo zeuden Espainian, 15.363.000 ez-aktiboaren aurrean. 2015 urtean zifra horiek ez dira ia aldatu; aktiboak 22.922.000 pertsona izanda eta 15.576.000 pertsona ez-aktiboak (INE, Instituto Nacional de Estadística, 2016a).

Populazio aktiboaren proportzioa mantendu dela ikusita, pertsona kopuru horren lan egoera zein den aztertu behar dugu, krisiaren eragina ikusi ahal izateko.

Grafikoa 7: Espainiako populazioaren okupazio eta langabezia tasaren bilakaera milaka pertsonako unitateetan eta ehunekoetan (2006-2015)



Iturria: Egileak berak egina INE (Espainiako Estadistika Institutua)-ko datuetan oinarrituta


Grafiko honetan populazio aktiboaren egoeraren bilakaera zein izan den ikusi dezakegu, azken hamarkadan langabeen proportzioa handitu dela argi ikusiz. 2006 urtean krisi ekonomikoa eztanda egitear zegoela, bi milioi langabera ez ziren iristen, Espainian 1.841.000 pertsona lanik gabe zeudelarik. 2010 urtean berriz, langabeen kopurua nabarmen handitu zen 4.640.000 pertsona aurkitzen zirelarik lanik gabe. Egoera hau areagotzen jarraitu zen 2013 urtean langabezia tasa altuena eman zelarik, 6.051.000 langabeekin. Ekonomiaren susperraldi geldoarekin langabezia apur bat jaitsi da azken urtean nahiz eta langabe kopurua oso altua izaten jarraitzen den; 2015 urtean 5.056.000 pertsona aurkitzen zirelarik lanik gabe. Lan merkatuaren bilakaera hau hobeto ikusteko ehunekoak aztertuko ditugu: 2006 urtean populazioaren %8a zen lanik gabe zegoena, 2010 urtean langabeen proportzioa %20ra igo zelatik. Esan bezala langabezia altuena 2013 urtean eman zen populazio aktiboaren laurdena baino gehiago aurkitzen zelarik lanik gabe, %26a hain zuzen. 2015 urtean lan merkatuaren egoera hobetzen hasi dela dirudien arren, langabezia-tasa oraindik %22koa izan da (INE, Instituto Nacional de Estadística, 2016a).

1.2.3. Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren iraunkortasuna

Atal honen hasieran aipatu dugun bezala, erretirako pentsioa Gizarte Segurantzak ordaintzen du, gainontzeko prestazio publikoak bezala. Aurreikusi daitekeenez, honek guztiak suposatzen duen gastua izugarria da horregatik **Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsa** deiturikoak sortu zen. Funts hau Gizarte Segurantzaren eskakizun instituzionalaren ondorioz sortu zen, egonkortze eta erreserba fondoak ezartzeko helburuarekin, etorkizunean Gizarte Segurantzaren diru-sarrerara eta gastuen arteko desbiderapenek eragindako kotizaziopeko prestazioen arloan sortutako beharrei aurre egiteko. Funts oro bezala inbertsio plan jarraituz aktibo finantzario desberdinetan inbertitzen da irabaziak lortzeko asmoz. 2015ean egindako inbertsio planaren nondik norakoak laburki ikusiko ditugu; erabakitako

inbertsio eta kudeaketa irizpideak honakoak izan ziren: Espainiako Zor Publikoan inbertituko zen muga baten barruan, eta Atzerriko Zor Publikoan, batez ere Frantzia, Alemania eta Herbehereetako zor publikoan. Kreditu Ofizialeko Institutuak (KOI) jaulkitako aktiboetan inbertitzeko aukera ere irekita zegoen, beti ere dibertsifikazio eta kontzentrazio maila batzuen barruan. Hala ere, urtean zehar inbertsio karteraren moldaketa beharrezkoa izan zen honako arrazoien ondorioz: funtsaren behar etengabea prestazioak estali ahal izateko, funtsak Espainiako Bankuan duen kontuaren ordaintze negatiboa, funtsak lortutako errentagarritasun minimo edota negatiboak, eta epe luzeko epemuga duten aktiboek sortutako plusbalio handiak (Seguridad Social, Gobierno de España, 2016a). Horiek horrela funtsaren banaketa nolakoa den ikusiko dugu:

Irudia 1: Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren banaketaren bilakaera (2014-2015)



Iturria: Egileak berak egina, Gizarte Segurantzako datuetan oinarrituta

Ikusten dugunez bi urteetan funtsaren saldoa oso txikia da aktibo finantzarioekin alderatuz, hau da, likidezia gutxikoa da. Gainera aktiboaren epemuga aztertzen baldin badugu, epe laburreko aktiboak nahiko portzentaje txikia suposatzen dute, nahiz eta urte batetik bestera karteraren denbora horizontea txikitu dela ikusten dugun. 2014 urtean epe laburreko aktiboek aktibo guztien %18 besterik ez ziren, 2015 urtean proportzioa %22ra handitu delarik. Hala ere, aldaketa handiena jasan duen zatia 3 urteko epemuga duten aktiboetan eman da, 2014 urtean %39 zirelarik eta 2015ean berriz, %62a. Horrek esan nahi duena da 2015 epe luzeagoko aktibo gutxiago daudela. 2014ean 5 urteko epemuga zuten aktiboek ia %20a suposatzen zuten, 2015 urtean ia erdira murriztu direlarik, %10 suposatuz. Azkenik epe luzeko aktibo finantzarioak ditugu 10 urte edo gehiagoko epemuga duten aktiboek osatzen dutelarik

multzo hau. 2014ean aktibo hauek hartzen zuten portzentajea %22koa zen, 2015 urtean %5etik behera hartzen dutelarik (Seguridad Social, Gobierno de España, 2016a).

Behin Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren funtzionamendu eta banaketa apur bat aztertu ditugula, funtsaren arazo larrienetakoa zein den ondorioztatu dezakegu; bere likidezia falta. Funtsaren %80 inguru urtebeteko epea baino luzeagoko epe luzeko aktibo finantzarioetan inbertitutako kapitala da, beraz, ezin da nahi den unean erabili. Arazo honi azkenaldiko demografiaren aldaketa gehitzen baldin badiogu Gizarte Segurantzaren pentsio sistemaren iraunkortasuna zalantzan gelditzen da, hau da, populazioaren zaharkitze geldo baina etengabearen ondorioz erretiroaren adina duen geroz eta jende gehiago dago. Aldi berean, krisi ekonomikoaren ondorioz langabezia-tasa izugarri handitu da, beraz gaur egun Gizarte Segurantzak lortzen duen kotizazioa txikiagoa da. Gainera krisiak behartuta Gobernuak hartutako erabakien artean, Gizarte Segurantzaren murrizketak egitea izan da, beraz prestazioetara bideratutako funtsa txikitu da. Laburbilduz, egungo prestazioak ordaintzearen gastua erreserba funtsa murriztea eragiten ari du, eta egoera aldatu ezean egungo langileen erretiroa ordaintzeko erreserba nahikorik ez egotea gerta daiteke, edo prestazioen zenbatekoa gutxiago izatea.

1.2.4. Eros-ahalmena eta inflazioa

Ezjakintasun egoera honen aurrean, etorkizunari begira Gizarte Segurantzaren erretiro pentsioaz gain bestelako aurrezki bat edukitzearen beharra azaleratu dezake. Inkesten arabera gizartearen proportzio handi batek bere erretiroaren inguruan kezka ditu. Alde batetik, jende gaztea Gizarte Segurantzaren erretiro pentsioa jasoko dutenaren zalantza dute, pentsio sistemaren iraunkortasuna zalantzan jartzen dutelarik. Gainera gazte asko aurreztaileak izan arren, urrun ikusten dute erretiroa, etorkizun hurbilagoan bestelako arazo ekonomikoei aurre egiteko prest egongo diren ez dakitela. Bizitzaren epealdi desberdinetan gizabanakoek ditugun beharrak oso desberdinak dira; kotxea erosi, gurasoen etxetik alde egin, seme-alabak eduki, hauen hezkuntza eta bestelako beharrak asetu, hipoteka ordaintzen bukatu etab. gastu handia suposatzen dute, lana aurkitzeko zailtasuna ere kontuan hartu behar delarik. Bestalde, adin gehiagoko pertsonak ditugu; 40-55 urte bitarteko jendea erretiroa gertuago dute baina egungo bizitza-maila mantentzeko nahikoa izango denaren zalantza dute. Ikusten dugunez, erretiroari begira beste faktore bat sartzen da jokoan; **eros-ahalmena** hain zuzen ere (Sánchez Galán,).

Eros-ahalmena diru kantitate finko batekin lortu daitezkeen ondasun edo zerbitzu kopurua da, beti ere prezio-maila kontuan hartuta. Gizabanakoek, enpresek edota herrialdeek beren beharrak asetzeko eskuragarri dituzten baliabideak erabiltzen dituzte; behar hauengatik ordaintzen dituzten prezioen eta erabilitako baliabideen arteko erlazioari deitzen zaio eros-ahalmena. Garrantzitsua da definizio honen atean dagoen oinarritzko ideia kontuan hartzea; diru kantitate finko batekin zenbat eta behar gehiago asetu ditzakegun, orduan eta eros-ahalmen handiagoa izango dugu (Sánchez Galán,). Eros-ahalmena ez da soilik ondasun bakar baten balioaren arabera neurtzen, baizik eta ondasun-saski baten balioaren bitartez. Normalean saski hau eratzerakoan oinarritzko produktuan erabiltzen dira, alderaketa logiko bat burutu ahal izateko. Gizabanakoek bilatzen dituzten ondasun edo zerbitzuak lortzeko duten gaitasuna

faktore batekin erlazio zuzena du; inflazioarekin hain zuzen. Honek zera esan nahi du, ondasun edo zerbitzuen prezioen gorakada ematen den herrialde baten kasuan, ikertzen ari garen pertsona batek eros-ahalmenaren murrizketa edo galera jasango duela. Hau gertatzearen arrazoia bere diru-sarrerak (soldata, inbertsioak eta bestelako baliabideak) prezioen maila berean handitu ez direla da (Inflación y desempleo.2015).

Inflazioa denbora-tarte zehatz batean zehar ondasun eta zerbitzuen prezioek jasaten duten gorakada orokorra da. Prezioen maila orokorra igo egiten denean, moneta unitate bakoitza ondasun eta zerbitzu kopuru txikiagoa erosteko ahalmena du. Beraz, inflazioak moneta baten eros-ahalmenaren murrizketa islatzen du, hau da, herrialdearen barneko truke-tresnaren eta ekonomiaren neurri unitatearen balio errearen murrizketa. Inflazioa neurtzeko erabiltzen den ohizko adierazlea Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) da (Inflación y desempleo.2015).

Laburbilduz, etorkizunari begira bai demografiaren aldaketak bai lan-merkatuaren aldaketak, eta baita krisi ekonomikoaren eraginak, Gizarte Segurantzaren iraunkortasuna zalantzan jartzen du. Ezjakintasun horren aurrean erretirorako pentsioaren prestazio osagarri bat edukitzea egokia izan daiteke egungo bizitza-maila mantentzeko helburua dutenentzat. Prestazio osagarri hori aurrezki produktu pribatuen kontratazioaren bitartez lortu beharko da.

2. GIZARTE SEGURANTZAREN ERRETIRO PRESTAZIOA

Lanarekin jarraitzeko, Gizarte Segurantzak eskaintzen duen erretiro prestazioaz hitz egingo dugu, prestazioaren nondik norakoak modu laburrean aztertuz. Prestazioari lotuta, Gizarte Segurantzaren pentsio sistemaren funtzionamendua ikusiko dugu, honen iraunkortasuna zalantzan egotearen zergatiak azalduz.

2.1. Erretiro-pentsioa: kontzeptua eta helburua

Aurrezpen produktu pribatuak ikusten hasi baino lehen, Estatuak legean aurreikusi duen erretiro prestazioaz hitz egingo dugu. Zenbait baldintza betez gero, edota legez ezarritako adinera iritsita, langileek Gizarte Segurantzak ordaindutako erretiroko pentsioa jasotzeko eskubidea dute. Hala ere, kontutan izan behar dugu, bai erretiroko pentsioa bai bestelako laguntzak ordaintzeko Gizarte Segurantzak Erreserba Funtza bat duela, eta diru horren zati bat egungo langileen kotizaziotik lortzen dela. Beraz, pentsio-sistemaren iraunkortasuna bermatzeko erretiroko pentsioaren zenbatekoa neurri handi batean, bizitzan zehar kotizatutako urteen arabera da, hau da, jasotako pentsioaren zenbatekoa gizabanako batetik bestera aldatu daiteke. Jarraian erretiroko pentsioaren nondik norakoak ikusiko ditugu modu laburrean.

Erretiroko laguntza edo prestazioa langileak bere lan bizitza bukatzen duenean jasaten duen diru-sarreraren galera estaltzen du. Besteren edo norik bere kontura egindako lanaren etendura, legez ezarritako adinera iristean emango da. Hala ere, legeak ezarritako zehaztapenak jarraituz lanaldia eta soldata murrizten direnean ere jaso daiteke erretiroko prestazioa.

Erretiroko prestazio ekonomikoa Gizarte Segurantzaren sistemako erregimen guztietan barneratuta dago, eta bere helburua laneko errentak biziarteko pentsio batengatik ordezkatzea da, behin langileak bere lan jarduera modu total zein partzialean eteten duenean. Prestazioaren onuraduna Gizarte Segurantzaren edozein erregimenean barneratutako pertsonak izango dira, beti ere afiliatuak baldin badaude eta honako hiru baldintza betetzen badituzte: adinari dagokionez, adin arrunta bete izana salbuespenak aintzat hartuta, gutxienezko kotizazio epea hamabost urtekoa izatea, horietatik gutxienez bi urte eskubidea eragin den unearen aurreko hamabost urteren buruan egon beharko dutelarik, eta azkenik, gertaeraren eragileari dagokionez altan dauden langileek jarduera alde batera uzteko eguna hartuko dute kontutan, altan ez dauden langileek eskaera aurkezten duten eguna, eta altaren pareko egoeran dauden langileek berriz, eskaera aurkezten duten eguna derrigorrezko eszedentziaren kasuan izan ezik, kasu honetan lanaren etenaren eguna hartuko dutelarik kontutan (Seguridad Social, Gobierno de España, 2016b).

2.2. Adin arruntaren azalpena eta salbuespenak

Adin arruntaren inguruan eta baita adinaren inguruko salbuespenen inguruan ere, arau orokorrak honakoa esaten du: 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera erretiro pentsioa jasotzen hasteko eduki beharreko adina, interesdunaren eta bere lan bizitzan zehar metatutako kotizazioaren arabera izango da, beti ere 67 urte edo 65 urte beteta baldin badituzte. 65 urterekin pentsioa jasotzeko 38 urtez eta 6 hilabetez kotizatu izana egiaztatu beharko da. Nolanahi ere, baldintza hau alta egoeran edo

altaren egoera asimilatuan egon gabe pentsioa kobratzen hasten denean bete beharko da. Aipatutako erretiro adinak eta metatutako kotizazio denborak gradualki aplikatuko dira, ondorengo taulan adierazten den moduan:

Taula 1: Kotizatutako denboraren arabeko erretiro adina

URTEA	KOTIZATUTAKO ALDIAK	ERRETIRO ADINA
2013	35 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	35 urte eta 3 hilabete edo gutxiago	65 urte eta hilabete 1
2014	35 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	35 urte eta 6 hilabete edo gutxiago	65 urte eta 2 hilabete
2015	35 urte eta 9 hilabete edo gehiago	65 urte
	35 urte eta 9 hilabete edo gutxiago	65 urte eta 3 hilabete
2016	36 urte edo gehiago	65 urte
	36 urte edo gutxiago	65 urte eta 4 hilabete
2017	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	36 urte eta 3 hilabete edo gutxiago	65 urte eta 5 hilabete
2018	36 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	36 urte eta 6 hilabete edo gutxiago	65 urte eta 6 hilabete
2019	36 urte eta 9 hilabete edo gehiago	65 urte
	36 urte eta 9 hilabete edo gutxiago	65 urte eta 8 hilabete
2020	37 urte edo gehiago	65 urte
	37 urte edo gutxiago	65 urte eta 10 hilabete
2021	37 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	37 urte eta 3 hilabete edo gutxiago	66 urte
2022	37 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	37 urte eta 6 hilabete edo gutxiago	66 urte eta 2 hilabete
2023	37 urte eta 9 hilabete edo gehiago	65 urte
	37 urte eta 9 hilabete edo gutxiago	66 urte eta 4 hilabete
2024	38 urte edo gehiago	65 urte
	38 urte edo gutxiago	66 urte eta 6 hilabete
2025	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 3 hilabete edo gutxiago	66 urte eta 8 hilabete
2026	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte

	38 urte eta 3 hilabete edo gutxiago	66 urte eta 10 hilabete
2027tik aurrera	38 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 6 hilabete edo gutxiago	67 urte

Iturria: egileak berak egina Gizarte Segurantzako datuetan oinarrituta

Alta egoeran zein altaren egoera asimilatuan dauden langileek gutxieneko adina murrizteko aukera izango dute jarraian aipatzen diren salbuespen kasuetan soilik:

- Aldez aurretiko erretiroa 60 urtetik aurrera mutualista izateagatik.
- Aldez aurretiko erretiroa 61 urtetik aurrera mutualista izateagatik.
- Erretiro partziala eta erretiro malguaren kasuan.
- 64 urtetan erretiro berezia, 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko legeria aplikatzen zaielarik.
- Meatzeen Estatutuko langileen, aireko lanetako langileen, trenetako, artisten eta zezenketako profesionalen, suhiltzaileen eta Ertzaintzako kideen erretiroa.
- %45eko edo %60ko edo gehiagoko ezintasuna duten langileen erretiroa.

Erretiro adinaren inguruan esan inolaz ere interesdunak ezingo duela erretiro pentsiorik jaso 52 urtetik behera baldin baditu, adin arruntaren koefiziente murriztaileak aplikatu arren; murriztapen honek ez du inongo eraginik izango erregimen berezietako langileengan (Ikatz Meatzaritza eta Itsasoko Langileak), baldin eta 2008ko urtarrilaren 1ean erretiro adinerako koefiziente murriztaileak badituzte; horiei lehen esandako arauak aplikatuko zaizkie (Seguridad Social, Gobierno de España, 2016b).

2.3. Pentsioaren zenbatekoaren kalkulua

Erretirorako pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarri arautzaileari kotizatutako urteen arabera dagokion ehuneko orokorra aplikatzen zaio, eta dagokion kasuetan, lan bizitza luzatzeagatik portzentaje gehigarria aplikatu beharko da, une bakoitzean indarrean dagoen erretiro adina baino urte gehiagorekin pentsioa jasotzen hasten bada, dagokion koefiziente murriztailearekin batera.

Oinarri arautzaileari dagokionez, bi epealdi bereizten dira; 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenago legeria aplikagarri duten langileen kasuan, oinarri arautzailea gertaera eragilea eman den hilabetea baino lehenagoko azken 180 hilabeteen kotizazio oinarriak 210ekin zatituz lortzen dena izango da. 2013ko urtarrilaren 1tik aurrera ordea, hilabete kopurua urtetik urtera 12na handituko da, 2022 urtean 300 hilabete izatera heldu arte. Urte horretatik aurrera oinarri arautzailea azken 300 hilabeteen kotizazio oinarriak 350ekin zatituz lortuko da. Jarraian oinarri arautzailea azaltzen duen taula ikusiko dugu (Seguridad Social, Gobierno de España, 2016b):

Taula 2: Oinarri arautzailearen kalkulua

URTEA	URTE KONPUTAGARRIAK	HILABETE KONPUTAGARRIEN KOPURUA/ZATITZAILEA
2013 baino lehen	15 urte	180/210
2013	16 urte	192/224
2014	17 urte	204/238
2015	18 urte	216/252
2016	19 urte	228/266
2017	20 urte	240/280
2018	21 urte	252/294
2019	22 urte	264/308
2020	23 urte	276/322
2021	24 urte	288/366
2022	25 urte	300/350

Iturria: Egileak berak egina Gizarte Segurantzako datuetan oinarrituz

Erretiro-pentsioaren zenbatekoaren kalkuluekin jarraituz, oinarri arautzaileari aplikatzen zaion portzentaje orokorrak ikusiko ditugu. Portzentajea Gizarte Segurantzari kotizatutako urte kopuruaren arabera aldatu egiten da, lehen 15 urteetan %50eko ehuneko aplikatu egiten da, eta hortik aurrerako hilabete gehigarri bakoitzarengatik %0,18 eta %0,21 bitarteko ehunekoan handitu egiten da, gehienez ere %100era iritsiz. Jarraian portzentajearen igoera nolakoa den azaltzen duen taula ikusiko dugu, zeinetan urte bakoitzean aplikatu beharreko portzentajea ageri den (Seguridad Social, Gobierno de España, 2016b):

Taula 3: 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko portzentajea

APLIKAZIOA EPEA	LEHEN 15 URTEAK		URTE GEHIGARRIAK		
	URTEAK	%	HILABETE GEHIGARRIAK	KOEFIZIENTEA	%
2013tik 2019ra	15 urte	%50	1etik 163ra	0,21	%34,23
			164tik 246ra	0,19	%15,77
2020tik 2022ra	15 urte	%50	1etik 106ra	0,21	%22,26
			107tik 252ra	0,19	%27,74
2023tik 2026ra	15 urte	%50	1etik 49ra	0,21	%10,29
			50etik 258ra	0,19	%39,71
2017tik aurrera	15 urte	%50	1etik 248ra	0,19	%42,12
			249tik 264ra	0,18	%2,88

Iturria: Egileak berak egina Gizarte Segurantzako datuetan oinarrituta

Taula 4: 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko legeria aplikagarri dutenen portzentajeak

KOTIZATUTAKO URTEAK	APLIKATUTAKO %
15 urte	%50
16 urte	%53
17 urte	%56
18 urte	%59
19 urte	%62
20 urte	%65
21 urte	%68
22 urte	%71
23 urte	%74
24 urte	%77
25 urte	%80
26 urte	%82
27 urte	%84
28 urte	%86
29 urte	%88
30 urte	%90
31 urte	%92
32 urte	%94
33 urte	%96
34 urte	%98
35 urte	%100

Iturria: Egileak berak egina Gizarte Segurantzaren datuetan oinarrituta

Azaldu dugun bezala, pentsioaren zenbatekoa oinarri arautzailearen eta kotizatutako urteen arabera honi aplikatzen zaion portzentajearen menpe dago, beraz, gizabanako batetik bestera aldatu egin daiteke. Hala ere, pentsioak gutxieneko zenbatekoak bermatzen ditu, eta baita urte hasieran pentsioak goratzea ere, urte horretarako aurreikusitako KPI-aren (Kontsumo Prezioen Indizea) arabera. Pentsioa jasotzeko moduari dagokionez, hilero kobratzen da ekainean eta azaroan ezohiko ordainsariak ere jasotzen direlarik. Prestazioaren iraungipena onuraduna hiltzen den kasuan soilik gertatuko da, esan bezala pentsioa biziartekoa baita (Seguridad Social, Gobierno de España, 2016b).

2.4. Erretiro-pentsioa: bestelako datuak

Erretiro-pentsioaren eskaera egiteko dagokion eskaera erdua bete behar da, eta erduan zehazten diren dokumentu pertsonal eta dokumentu bereziak aurkeztu. Aipatutako eskaera eta dokumentuak Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren (GSIN) edozein arreta eta informazio bulegotan aurkeztu daitezke berari baitagokio eskubidearen aitortpena. Salbuespen moduan, Itsasoko Araubide Berezian barneratutako langileen kasuan, Itsasoko Gizarte Institutuari (IGI) dagokio prestazioaren kudeaketa eta aitortpena ere. Erretiro pentsioaren eskaera datari dagokionez, altan dauden langileek eskaera lana utzi aurretiko edo ondorengo hiru hilabetetako epean aurkeztu dezakete, ondorio ekonomikoak lana egiteari utzi zaion dataren hurrengo egunetik aurrera hasiko delarik. Eskaera lan-jardueraren etendura ematen den unetik hiru hilabete baino gehiagoko epean egiten bada, berriz, pentsioaren ondorio ekonomikoek hiru hilabeteko atzerako eragina izango dute gehienez ere eskaera aurkeztu zen datatik zenbatzen hasiz. Altaren antzerako egoeran edo altan ez dauden langileen kasuan, ondorio ekonomikoak erretiro-pentsioaren eskaera aurkeztu eta hurrengo egunean hasiko dira, altarekin parekatutako zenbait egoeratan izan ezik, zeinetan pentsioa gertaera eragilea ematen den unetik jasotzen hasiko den (Seguridad Social, Gobierno de España, 2016b).

Erretiroko pentsioa zerga ordainketari lotuta dago Pertsona Fiskoen Errentaren Gaineko Zergaren (PFEZ) arauetan ezarritako baldintzetan eta, hala badagokio, zergaren konturako atxikipenen sistema orokorra aplikatuko zaio.

Azkenik erretiroko pentsioarekin bateragarriak edota bateraezinak diren egoerak zeintzuk diren ikusiko dugu. Erretiro pentsioa jasotzen den unean, pentsiodunak lan egitearekin bateraezina izango da, lana haren zein besteren kontura egitean Gizarte Segurantzako sistematan txertatzea badakar, beti ere legeak zehazten dituen salbuespen eta baldintzak aintzat hartuta. Gainera erretiro pentsioa jasotzea guztiz bateraezina izango da sektore publikoan edota goi mailako karguetan lanpostua edukitzearekin. Hala ere, pentsiodunak prestazioa jaso dezake egiten duen lana zenbait baldintza edo salbuespen kontuan hartzen baditu. Hau da erretiro pentsioa honako lanekin bateragarria izango da: norbere kontura egindako lana, lortzen diren urteko diru-sarrerek lanbide arteko gutxieneko urteko soldata gainditzen ez badute; kolegiatutako profesionalek beren kontura egindako lana; erretiro partziala, hau da, 60 urte bete ondoren hartzen den erretiroa aldi berean lanaldi mugatuko jarduera burutzen delarik, eta erretiro malgua, hau da, erretiro pentsioa lanaldi partzialeko kontratu batekin bateragarri egiteko aukera dagoen kasuetan beti ere lanaldia ezarritako mugen barruan egon behar duelarik; eta pentsiodunek besteren edo norbere kontura egindako lana, hark erretiratzeko adin arruntaren pentsioa jasotzen badu eta zenbatekoa kalkulatzeko oinarri arautzaileari aplikatu zaion ehunekoak %100ekoa bada, lanarekin bateragarria den pentsioa %50ean murriztuko delarik (Seguridad Social, Gobierno de España, 2016b).

3. AURREZKIRAKO FINANTZA PRODUKTUAK

Erretiroari begira, Estatuaren Gizarte Segurantzak eskaintzen duen erretiro prestaziorik gain, entitate pribatuek erretirorako bestelako produktu finantzarioak ere eskaintzen dituzte. Produktu hauek ematen dituzten prestazioak beti izango dira Erretiro Pentsioaren osagarriak, hau da, ez dute inoiz Gizarte Segurantzaren erretiro-pentsioa ordezkatuko, produktu hauek entitate pribatuetan kontratatzen baitira. Aurrezteko produktu hauen artean ezagunena pentsio plana (PP) izan arren, helburu bera duten beste produktu hauek ere kontratatu daitezke: bermatutako aurreikuspen plana (BAP/PPA), banakako aurrezpen sistematikoko plana (BASP/PIAS), eta Gizarte-aurreikuspeneko enpresa plana (GAEP/PPSE) besteak beste.

Ikusten dugun bezala, produktu guzti hauek oso desberdinak dira eta hauen artean modu egokian aukeratu ahal izateko zenbait faktoreei erreparatu beharko diogu; faktoreak itxarondako errentagarritasuna, likidezia eta bakoitzak duen trataera fiskala dira, eta baita kontratatzailearen helburua, egungo egoera, arriskuarekiko profila eta gizabanakoaren egoera ekonomikoa ere (Invertia, 04/11/2015).

3.1. Gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundea (GABE/EPV)

Aipatutako produktuen azterketa hasi baino lehen, hemen Euskal Herrian oso ezaguna den Gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundea aztertuko dugu. Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua da eta bere helburua Gizarte Segurantzaren derrigorrezko prestazioaren osagarria izatea da. Gehien bat bere gaztelerazko EPSV (Entidad de Previsión Social Voluntaria) siglez ezaguna da. Estaltzen dituen kontingentziak anitzak dira, baina ohikoenak honakoak dira: erretiroa, ezgaitasuna, langabezia eta heriotza (Eusko Jaurlaritza, 2016).

Lehenik eta behin gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundeek dituzten ezaugarriak ikusiko ditugu, bere funtzionamendua hobeto ulertzeko. Erakunde honen ezaugarri garrantzitsuenetakoa da bazkideez osatuta dagoela, bazkide hauek pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezkeelarik. Gainera gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakunde batean parte hartzen duten bazkideak bi mota desberdinetan sailkatzen dira; ohiko bazkideak pertsona fisikoak dira, eta bazkide babesleak ordea izaera juridikoa duten erakundeak. Azken hauek soilik, lanerako gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundeen kasuan egongo dira. Bazkideen nondik norakoekin jarraituz, esan beharra dago erakunde hauetan bazkide izateko inongo muga edo baldintzarik ez dagoela, eta gainera bazkide guztiek eskubide eta betebeharrak berdinak edukiko dituztela. Erakunde hauek dituzten beste ezaugarri garrantzitsu batzuk honakoak dira: esan bezala, irabazi asmorik gabeko erakundeak direla, eta erakundearen gobernu organoen egitura eta osaketa demokratikoak izan behar direla. Prestazioen ordainketa burutu ahal izateko beharrezkoak diren funtsak bazkideek ordaindutako kuotek eta bazkide babesleek egindako ekarpenek osatzen dituzte, eta baita erakundeak inbertsioak burutzen dituen kasuetan hauetatik lortutako errendimenduek ere (Federacion de EPSV de Euskadi, 2016).

Jarraian gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundeek estaltzen dituzten kontingentzien inguruan, eta baita eskaintzen dituzten prestazioen inguruan hitz

egingo dugu. Esan bezala erakunde hauek batez ere ezagunak eta erabiliak dira Euskal Herrian, eta betetzen duten funtzioa pentsio funts eta planen oso antzekoa da. Horiek horrela, estaltzen dituzte kontingentzia nagusiak erretiroa, heriotza, ezgaitasun iraunkorra, gaixotasun larria eta langabezia iraunkorra dira. Beraz, erakunde hauek pentsioak eman ahal izango dituzte, beti ere beren Estatutuetan ezarritakoaren arabera, aipatutako kontingentziaren bat suertatuz gero. Estaltzen dituzten kontingentziak anitzak izanda, eman ditzaketen prestazioak ere hainbat dira, aseguru baten antzeko estaldura eskainiz. Horiek horrela eman ditzaketen prestazioak (Federacion de EPSV de Euskadi, 2016) jarraian aipatutakoak dira:

- Osasun asistentzia, ebakuntza kirurgikoak, eta baita osasun zentroetan egonaldiak ere.
- Behin behineko ezgaitasuna.
- Ehorzketa edo hilobiratzea.
- Menpekotasuna edo dependentzia.
- Ohiko bazkideen ondasunek jasandako kalteen ordainsaria, bai etxebizitza bai etxeko-gailuen kasuan, eta baita ganadu eta uztaren kasuan ere, eta bestelako edozein ondasunen ordainsaria, beti ere ohiko bazkidearen lan-jarduerari lotuta baldin badaude.
- Gizarte aurreikuspenarekin erlazionatutako bestelako prestazioak.

Gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundearen nondik norakoak azaltzen amaitzeko, produktu honen trataera fiskalari buruz hitz egingo dugu. Aspektu honi dagokionez, ikuspuntu desberdinak aztertu behar ditugu; hasteko EPSV-ak jasaten duen trataera fiskala aztertu behar dugu, erakundea bera osatzen duten bazkideen izaeratik independentea den erakundea bezala, hau da, berezko izaera juridikoa duen erakundea bezala. Bigarrenik bazkide desberdinek egindako ekarpenek jasaten duten trataera fiskala aztertuko dugu, bai ohiko bazkideek egindakoak bai bazkide babesleek, azken hauek lanerako gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundearen kasuan, egindako ekarpenena ere. Azkenik estalitako kontingentzia bat suertatzen denean jasotako prestazioak jasaten duen trataera fiskala aztertuko dugu.

Esan bezala, gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundeek, berezko izaera juridikoa izateagatik jasaten duten zerga erregimena zein den azaltzen hasiko gara. Erregimenean bi EPSV mota bereizten dira estaltzen dituzten kontingentzien arabera. Alde batetik, erretiroa, langabezia iraunkorra, gaixotasun larria, ezgaitasun iraunkorra eta menpekotasuna estaltzen dituzten erakundeak daude, zeinak Sozietateen gaineko Zergan %0ko zerga-tasa ordaintzen duten. Bestetik gainontzeko EPSV guztiak daude zeinak Sozietateen gaineko Zergan %21eko zerga-tasa murriztua ordaintzen duten. Gainera aipatu beharra dago gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakunde guztiek zenbait zerga ordaintzetik at daudela, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) edota ondarearen gaineko zerga, besteak beste (Federacion de EPSV de Euskadi, 2016).

Orain bazkideek egindako ekarpenek jasaten duten trataera fiskalarekin jarraituko dugu, ohiko bazkideen eta bazkide babesleen ekarpenen artean bereizketa egin behar dugularik. Gorago aipatu dugun moduan, ohiko bazkideak heurentzat EPSV bat duten pertsona fisikoak dira. Hauek egindako ekarpenek abantaila fiskala dute

ohiko bazkideak errenta aitortzen egiten dutenean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) oinarri zergagarria murrizteko aukera ematen dutelako. Hala ere, ekarpenen ondorioz oinarri zergagarria aplikatu daitekeen kenkaria urteko 5.000 euroko muga maximoa ezin izango du gaintu. Kenkari honetaz gain, zenbait kasu berezitan oinarri zergagarria hare gehiago murriztu daiteke. Zergadunaren ezkontideak oinarri zergagarria barneratzeko errendimendurik lortzen ez baditu edo urtean 8.000 euro baino gutxiagoko errendimenduak lortzen baldin baditu, PFEZren oinarri zergagarria orokorrean gehienez 2.400 euroko muga duen kenkaria aplikatu ahal izango dute, beti ere EPSVan aipatutako ezkontidea bazkidea baldin bada. Beste kasu berezi bat ezgaitasunen bat duen pertsonen kasuan aplikatu daitekeen kenkaria da. Ezgaituak berak urtean 24.250 euroko ekarpen maximoa egin dezake, oinarri zergagarria zenbateko guzti hori kenkari moduan aplikatu daitekeelarik. Era berean, ezgaituaren senide zuzen batek edota hirugarren gradura arteko senide batek, ezgaituaren alde urtean egin dezakeen ekarpen maximoa ezingo du 8.000 euroko muga gaintu. Hala ere, kontuan hartu beharrekoa da bi aldeetatik egindako ekarpenen zenbatekoa kontuan hartuz, gehienez aplikatu daitekeen kenkariaren zenbateko maximoa 24.250 eurokoa izaten jarraituko dela. Bazkide babesleari dagokionez, jada esan dugu soilik laneko gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundeen kasuetan dagoela, eta bere langileen aldeko ekarpenak egiten dituen izaera juridikoa duen erakunde edo enpresa dela. Honek egindako ekarpenen sozietateen gaineko zergan gastu kengarri bezala aplikatu daitezke beti ere, langileari egozten zaion zenbatekoaren arabera. Horiek horrela, enpresak egindako ekarpenen ondorioz aplikatu daitekeen kenkariaren muga maximoa urteko 8.000 eurokoa izango da, sistemara egindako ekarpenen guztizko kenkaria 12.000 euroko muga duelarik. Hau da, langileak berak egindako ekarpenen eta enpresak langilearen alde egindako ekarpenen zenbatekoak batera kontuan hartuz, gehienez ere 12.000 euroko kenkaria aplikatu daiteke. Ekarpenen trataera fiskalarekin bukatzeko, aipatu beharra dago bai ohiko bazkideek egindako gehiegizko ekarpenen kasuan, bai bazkide babesleek egindako ekarpenen kasuan, aipatutako muga hauek gaintzeagatik edota oinarri zergagarria nahikoa ez izateagatik murrizketa aplikatu ezin izan bada, hurrengo 5 ekitaldietan aplikatzeko aukera dagoela, beti ere bere errenta aitortzen oinarri zergagarria kenkaria aplikatuko duen pertsona ekitaldi horretan erretiroa hartu ez baldin bada (Federacion de EPSV de Euskadi, 2016).

Lehen esan dugun bezala eta gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundeekin bukatzeko, jasotako prestazioek jasaten duten trataera fiskala azaltzea besterik ez zaigu falta. Estalitako kontingentzia bat suertatzean burutuko da EPSVaren berreskurapena. Une horretan dagokion prestazioa jasotzen hasten da, eta garrantzitsua da honek jasango duen trataera fiskala zein den jakitea. Jasotako prestazio oro lan errendimendutzat hartuko dira errenta aitortzen, hau da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan (PFEZ) oinarri zergagarria handituko dute, beraz, berreskurapen unean ez dago abantaila fiskalik. Hala ere, aukeratutako berreskurapen modalitatearen arabera desberdintasunak egongo dira aplikatutako erregimen fiskalean. Kapital moduan berreskuratuz gero, hau da, prestazio guztia kobru bakar batean jasotzen bada, abantaila fiskala edukiko luke; modu honetan jasotako zenbatekoaren %40a zergak ordaintzetik at geratuko litzateke, oinarri zergagarria kengarria izanik. Haatik, abantaila fiskal horrek muga bat du, %40a 300.000 euro baino zenbateko handiagoa bada, gehienez ere kengarria izango den

zenbatekoa ezin izango du kopuru hau gainditu. Errenta moduan berreskuratzen bada ordea, ez dago inongo abantaila fiskalik, ekitaldi bakoitzean errenta moduan jasotako zenbateko osoa oinarri zergagarrian barneratuz, dagokion zerga ordainduko delarik (Federacion de EPSV de Euskadi, 2016).

3.2. Pentsio funtsak

Aipatu dugun moduan, aurrezpen produktuen artean ezagunena pentsio plana da, baina produktu honen nondik norakoak aztertu baino lehen pentsio funts bat zer den ikusiko dugu, bertan integratzen baitira pentsio planak. Horiek horrela pentsio funtsak izaera juridikorik ez duten ondareak dira eta hauen eraketaren helburu bakarra hauetara pentsio planak atxikitzea da, eta modu honetan pentsio planak erabili ahal izatea. Pentsio funtsetan partehartzaile anitz egon daitezke eta partehartzaile hauek ekarpenak egiten dituzte funtsean inbertitu egiten direlarik, gainera ekarpen hauek sortzen dituzten errendimendu finantzarioak ere inbertitzen dira funtsean.

Funtsaren ondareak partehartzaileen kontsolidatutako eskubideak eta onuradunen eskubide ekonomikoak hartzen ditu bere barne, kontingentzia kasuetan prestazioak ondare honen kontra ordaintzen direlarik (Gutiérrez-Fernandez & Palomo Zurdo,).

Pentsio funtsak irizpide desberdinen arabera sailkatu (Gutiérrez-Fernandez & Palomo Zurdo,) daitezke:

- *Barne hartzen dituen pentsio planen modalitatearen arabera* lanerako pentsio funtsa eta pentsio funts pertsonala bereizten dira. Lehenengoak erabilera lan-sistemaren pentsio planak hartzen ditu bere barne. Bigarrenak aldiz, banakako pentsio planak eta hauetatik eratorritakoak hartzen ditu bere barne.
- *Banaketa irizpidearen arabera* banatze funtsaren eta kapitalizazio funtsaren artean egiten da bereizketa. Lehenengoaren kasuan, partehartzaile aktiboek funtsaren onuradunek denbora tarte bakoitzean jasotzen dituzten prestazioei aurre egin beharko diete. Bigarrenen kasuan berriz, partehartzaileek modu periodikoan ekarpenak egingo dituzte eta kapitalizazio prozesu baten bitartez kapital bat eratuko da zeina onuradunek etorkizunean jasoko dituzten prestazioak estali egingo dituen.
- *Konpromezuen ordainketaren erantzukizun irizpidearen arabera* barne-funtsak eta kanpo-funtsak bereizten dira. Lehenengoak enpresak bere langileen alde egiten dituen barne erreserben zuzkiduretatik eratzen dira. Bigarrenak ordea, bere langileentzako den planaren sustatzailea den enpresatik kanpo sortutako funtsak dira.
- *Berme osagarrien finkapen irizpidearen arabera* bermatutako funtsen eta bermerik gabeko funtsen artean egiten da bereizketa. Bermatutakoetan funtsa kudeatzen duen aseguru konpainia bat dago zeina prestazioen

kobrua bermatzen duen. Besteetan entitate kudeatzaile bat dago baina ez ditu prestazioen kobruak bermatzen.

- *Inbertsio prozesuaren arabera* funts irekiak eta funts itxiak aurkitzen ditugu. Lehenengoek atxikitutako pentsio plan edo planen baliabideen inbertsioa eta baita kategoria berdineko beste pentsio funts batzuen baliabideen inbertsioa ere hartzen dituzte bere barne. Bigarrengeok berriz, atxikitutako plan edo planen baliabideen inbertsioa soilik hartzen dute bere barne.
- *Beste irizpide batzuen arabera* honako pentsio funts desberdinak aurkitu ditzakegu: enpresen mozkinetan partehartzea duten funtsak, erabateko estaldura ematen duten funtsak zeinak erretiroa hartu baino lehenago onuradunak jasotzen zituen errenten oso antzekoak bermatzen dituen, eta estaldura osagarriak eskaintzen dituzten funtsak daude zeinak Gizarte Segurantzaren prestazioaren osagarriak eskaintzen dituzten, besteak beste.

Esan bezala pentsio funtsek ez dute izaera juridikorik, beraz, hauen eraketa, kudeaketa, ikuskaritza eta kontrolerako ezinbestekoa da erakunde bati lotuta egotea. Erakunde hauek pentsio funtsetan dauden aktibo finantzarioen eta baloreen kudeaketaz ere arduratuko dira. Pentsio funtsetan parte hartzen duten erakundeak beraz, bi motakoak (Gutiérrez-Fernandez & Palomo Zurdo,) dira:

- *Kudeaketa, sustapen eta kontrolerako erakundeak* honakoak dira:
 - Funtsaren Kontrolerako Batzordea: funtsaren funtzionamendu egokirako barne ikuskaritza eta kontrolaren organo gorena da.
 - Erakunde Kudeatzailea: pentsio funtsaren erakunde kudeatzailea da Kontrolerako Batzordeak gainbegiratua.
 - Erakunde Gordailuzaina: pentsio funtsetan integraturik dauden balore higigarri eta gainontzeko aktibo finantzarioen gainbegiraketaz arduratzen den kreditu erakundea da.
 - Erakunde Sustatzailea: funtsen eraketan parte hartzen eta agertzen den pertsona juridikoa da.
- *Gainbegiraketa erakundea* honakoa da: pentsio funtsen kanpo gainbegiraketaz arduratzen den erakunde publikoa Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorra da, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren pean.

Funtsek pentsio planekin burutu ditzaketen eragiketa nagusiak (Gutiérrez-Fernandez & Palomo Zurdo,) bi dira; funtsetan pentsio planen atxikipena burutzea, eta beste funtsetara egiten diren planen kontu aldaketa egitea. Eragiketa hauek egiten direnean, funtsaren Erakunde Kudeatzaileak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorrari hauen berri eman beharko dio, eragiketak burutzeko aurrez baimen administratiborik behar ez den arren.

- *Pentsio planen atxikipena funtsetan*: pentsio planek kontu bat dute pentsio funtsetan bertan duten partehartze ekonomikoa adierazten duena eta

planaren kapitalizazio funtsaren osotasuna bere barne hartzen duena. Kontu horren aurka ordainduko dira estalitako prestazioen zenbatekoa eta baita planaren funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuak ere.

- *Beste funtsetara egiten diren planen kontu aldaketa:* funtsaren funtzionamendu arauetan aldaketa hauek egitea ahalbidetzen dela aurreikusita egon beharko da.

Pentsio funtsek hauetara atxikiturik dauden pentsio planen beharrak eta ezaugarriak kontuan hartuta, likidezia koefiziente bat finkatu beharko dute. Koefiziente honen balioa aurreikusitako aktibo likidoen arabera izango da, beti ere prestazioen zenbatekoa ere kontuan hartu beharko delarik pentsio funtsaren estaldura nahikoa izan dadin (Gutiérrez-Fernandez & Palomo Zurdo,).

Hirugarrenen aurrean pentsio funtsek dituzten betebeharrak dagokionez, orokorrean pentsio funtsek ezin izango dute mailegurik hartu, hau da, ezin izango dira zorpetu. Hala ere, salbuespen moduan maileguren bat eskatu dezakete prestazioen ordainketa burutzeko beharrezko likidezia lortzeko helburuarekin. Gainera kasu hauetan Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorrari egoeraren berri eman beharko diote. Pentsio funtsek debekatuta duten beste gauza bat hirugarrenen berme-emaila izatea da. Pentsio funtsen ondasunak soilik honako kasuan izan daitezke berme-emailak: funtsaren obligazioak beteko direnaren bermea adierazteko.

Hirugarrenen aurrean funts batek eduki ditzakeen obligazioak ezin izango dira funtsaren aktiboaren %5a baino gehiago izan, zenbateko horretan zenbait zor kontuan hartzen ez direlarik: eragiketaren erabateko likidazioa lortu arteko denboran zehar ondare elementuen eskuraketatik eratorritako zorrak, prestazioen ordainketa egiten den arteko denboran zehar onuradunekin dituen zorrak, eta partehartzaileen kontsolidatutako eskubideei dagokion zorra. Gainera funtsaren ondarea ez du Erakunde Sustatzaile, Kudeatzaile eta Gordailuzainaren zorreatatik erantzungo (Gutiérrez-Fernandez & Palomo Zurdo,).

Funtsean esan bezala pentsio plan anitz egongo dira atxikituta, eta hauek sortzen dituzten ordainketa betebeharrak funtsaren partehartzaileek burututako ekarpenekin estaliko da. Horiek horrela pentsio funts baten disoluzioa eta likidazioa soilik ondorengo kasuetan aurreikusi egiten da:

- Pentsio funtsaren baimen-administratiboaren berriztatzearen kasuan.
- Funtsaren Kontrolerako Batzordearen geldiketaren kasuan, funtsaren funtzionamendua ezinezkoa suertatzen delarik.
- Erakunde Kudeatzaile edota Gordailuzain berri baten izendapena epean ez egitearen kasuan.
- Funtsaren Kontrolerako Batzordearen erabakiaren kasuan, edota hau ez existitzearen kasuan, Erakunde Kudeatzaile, Gordailuzain eta Sustatzaileak aho batez erabakitzen baldin badute.
- Funtsaren funtzionamenduaren arauetan jasotako bestelako arrazoi baten kasuan.

Behin pentsio funtsaren disoluzioa burutu dela, likidazio prozesua jarriko da martxan. Prozesu honetan Erakunde Kudeatzailea Kontrolerako Batzordearen agindupean jardungo du, erakunde Gordailuzainaren konkurtsoa egingo delarik eragiketak burutu ahal izateko.

Funtsaren desagertzea eman baino lehen, prestazio bakoitzaren banakako bermea beharrezkoa da, eta baita indarrean dauden pentsio planen jarraipena egongo denaren bermea ere, jada eratuta dauden edo eratuko diren beste pentsio funts baten bitartez. Azkenik, Erakunde Kudeatzailea eta Gordailuzaina funtsaren ezabaketa eskatuko dute Merkataritza Erregistroan eta baita Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorren Erregistro Berezian ere (Gutiérrez-Fernandez & Palomo Zurdo,).

Pentsio funtsek, zeinetan partehartzaile eta onuradunen aurrezkoa dagoen barneraturik, Sozietateen gaineko Zergari daude lotuta erakunde finantzario moduan. Hala ere, hauei aplikatzen zaien zerga-tasa %0-koa da, hau da, bere inbertsioen errendimenduek ez dute zergarik ordaintzen. Gainera zergatutako kapital higigarriko errendimenduak berreskuratzeko eskubidea dute. Aipatu beharra dago, Ondare Besterentze eta Dokumentatutako Ekintza Juridikoen gaineko zerga ordaintzetik ere salbuetsita daudela, eraketa, disoluzio eta pentsio funtsen hazkunde edo murrizketa nabariei dagokionean. Pentsio funtsen Erakunde Kudeatzaileak dira partehartzaile eta ekarpenen inguruko urteko aitortpena Ogasun Publikoari entregatzeko betebeharra dutenak.

Pentsio funts eta planen eta hauen Erakunde Kudeatzaileen kontabilitateari dagokionez, hurentzako dauden arau espezifikoaren arabera egingo da, eta hauen gabeziaren kasuan, Merkataritza Kodean, Kontabilitate Plan Orokorrean edota merkataritza legedian kontabilitateari buruz dauden gainontzeko xedapenetan zehaztutako arauak aplikatuko dira.

Pentsio funtsen zein planen, eta baita hauen Erakunde Kudeatzaileen publizitateari dagokionez, Publizitatearen Arau Orokorrean finkatutakoaren arabera erregulatuko da, eta baita pentsio funts eta planen araudian zehazten denaren arabera ere. Publizitatea kontsideratuko da pentsio planak eskaintzeko eta hauei buruzko informazioa emateko erabiltzen den edozein komunikazio modua, erabiltzen den kanala edozein izanda ere. Publizitatea honako ezaugarri hauek izan beharko ditu: hartzaileei egiazko informazio nahikoa eta erabilgarria transmititu beharko die pentsio planaren oinarritzko ezaugarrien inguruan edota honekin erlazionatutako zerbitzu edo produktuen inguruan. Gainera informazioa edozein unean eskuragarri egon beharko da Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorrentzat.

Pentsio planen Erakunde Kudeatzaile, Gordailuzain eta Merkaturatzaileen artean kudeaketa eta zuzendaritza karguak dituzten guztiak, eta baita bertako langileak, agenteak eta pentsio funts eta planen Kontrolerako Batzordeko kideak, jokabide-arau batzuetara lotuta egongo dira, Balore Merkaturaren Jokabidearen Kode Orokorra aplikatu dakiekelarik.

Modu honetan aipatutako erakundeak zein Erakunde Kudeatzaileak ez diren baina pentsio funts baten aktiboak kudeatzen dituen erakundeak ere, jokabidearen barne-erreglamendu bat egin beharko dute. Hauetan finkatutakoa ez betetzearen

kasuan, pentsio plan eta funtsen araudiak jasotzen dituen zigor administratibo garrantzitsuak aplikatuko dira (Gutiérrez-Fernandez & Palomo Zurdo,).

3.2.1. Pentsio Planak (PP)

Atal honetan aurrezpen produktuen artean ezagunena dena ikusiko dugu, pentsio plana hain zuzen ere. Gainera geroago ikusiko ditugun beste zenbait aurrezpen produktuen ezaugarriak, lehenengo honen oso antzekoak dira legeri berdinean araututa baitaude.

Pentsio Plana aipatu bezala aurrezpenerako finantza produktu bat da, beste produktu handiago batean barneratua dagoena; aurreko atalean azaldu dugun moduan pentsio plan guztiak pentsio funts batean daude atxikituak. Ondorioztatu dezakegunez, funts batean inbertitzen ari garenez errentagarritasunaren bermerik ez dago, hau da, pentsio planen ezaugarri nagusia da ez dutela hasierako errentagarritasun bat bermatzen.

Pentsio planaren ezaugarriekin jarraituz, esan beharra dugu aurrezkirako epe luzeko finantza produktu bat dela, bere helburu nagusia erretiroaren aurrean estaldura ematea izanik. Modu honetan inbertitzailea ekarpen periodikoak egingo ditu pentsio planera denbora tarte zehatz batean zehar. Pentsio planera egindako ekarpenak edo kuotak hilekoak, hiruhilekoak, sei hilekoak edo urtekoak izan daitezke; eta murriztu, handitu edota denboraldi batez bertan behera utzi daitezke. Nahi den kopuruagatik aparteko ekarpenak ere egin daitezke, beti ere, muga fiskalak daudela kontuan hartuz. Ekarpen hauek ezin dira erretirora arte berreskuratu nahiz eta legean plana aurrez berreskuratzeke zenbait salbuespeneko kasu aurreikusten dituen.

Kontratatzailearen beharren arabera, berreskurapen modalitate desberdinen artean aukeratu daiteke, bakoitza bere tratamendu fiskal desberdina duelarik; berreskurapena beraz, kapital moduan edota errenta moduan egin daiteke. Kapital moduan egiten bada, dirua kobru bakar batean jasoko du titularrak edo onuradunak, kasuan kasu. Errenta moduan berreskuratzen bada aldiz, kuota periodikoetan jasoko dugu prestazioa. Berreskurapen modalitatea aukeratzekoan, honakoa kontuan hartzekoa da: errenta egokiaren bidez berreskurapena burutzen bada, zama fiskala banatzea ahalbidetuko litzateke, eta gainera administrazioak honelako prestazioetan aplikatu ditzakeen abantaila berriak aprobetxatzeko aukera emango luke. Berreskurapena modalitate mistoan ere burutu daiteke, kasu honetan komenigarria da kapital moduan murrizketa aplikatu dezakeen zatia soilik berreskuratzea, eta gainontzekoa errenta moduan berreskuratzea. Pentsio planaren ezaugarrien artean aniztasuna aurkitzen dugu, horrela aurreztaile desberdinek arriskuarekiko duten jarrera edozein izanda ere, bere beharretara egokitzen den plan bat aurkitu dezake (Sisternes, 2014).

Esan bezala pentsio planaren helburu nagusia erretiroari begira estaldura ematea da, beraz, likidezia gutxiko produktua dela ikus dezakegu hau delarik bere eragozpen nagusia nork berak nahi duenean edo behar duenean ezin baitu dirua berreskuratu. Hau da, pentsio plana ezin da 65 urtera arte edota aurrez burututako erretiroa hartu arte berreskuratu. Hala ere legeak pentsio planaren berreskurapena

erretiroa baino lehen egin ahal izateko zenbait salbuespen aurreikusten ditu. Egoera berezi horiek honakoak dira:

- Lanerako ezgaitasun totala eta iraunkorra ohiko lanposturako, edo absolutua eta iraunkorra edozein lanposturako, edo baliaezintasun osoa.
- Menpekotasun gogorra edo menpekotasun handia.
- Kontratatzailearen heriotza.
- Gaixotasun larria.
- Langabezia iraunkorra.

Behin pentsio planen eragozpen nagusia zein den ikusi dugula, produktu honen abantaila nagusia zein den aztertuko dugu; abantaila hau pentsio planek duten trataera fiskalean aurkitzen dugu. Errentaren aitortzea egiten dugunean, pentsio planera egindako ekarpenak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) oinarri zergagarria gutxitu egiten dute, hau da, PFEZ-tan kengarriak dira. Beraz, gizabanako batek ordaindu beharreko zergak gutxitu egiten ditu edo Ogasun Publikoak egin beharreko itzulketaren kantitatea handitzen du, kasuan kasu. Hala ere, kontuan izan behar dugu zergen murrizketa hau berreskurapen momentura arteko errentaren gain ordaindu beharreko zergaren geroratzea besterik ez dela, non oinarri zergagarria txikiagoa izan ohi da (Sisternes, 2014).

Errentaren aitortzearen ekarpenen ondorioz burutu daitekeen oinarri zergagarriaren murrizketa mugatua da; hau da, egindako ekarpena mugarik izan ez arren, oinarri zergagarrian aplikatu dezakegun kenkari maximoa bi kopuru hauetatik txikiena izango da: 8.000 euroko muga finantzarioa urtean edo lan eta jarduera ekonomikoen errendimendu garbieraren %30a. Ikusten dugunez, egindako ekarpena zenbat eta handiagoa izan oinarri zergagarria gehiago murrizten da. Hala ere, beti ez da beharrezkoa izaten ekarpen maximoa burutzea murrizketa maximoa lortzeko aurreko limiteen aplikazioa dela eta. Horregatik, komenigarria da murrizketa fiskal hori lortzeko egin beharreko ekarpenaren kalkulua egitea. Gainera gizabanako batek ezin badu egindako ekarpen guztia ekitaldi horretan murrizketan aplikatu, "soberakin" hori hurrengo 5 ekitaldietan zehar murrizteko aukera izango du (canalJubilación, c).

Kenkariaren muga hauen inguruan aipatu beharra dago, erreforma fiskalarekin aldatu egin direla. Erreforma burutu baino lehen adinaren arabera bereizketa egiten zen 50 urtetik beherako eta 50 urtetik gorako artean desberdintzen zelarik. Gaur egun ordez, aplikatzen diren mugak goian aipatutakoak dira adina edozein izanda ere. Erreforma fiskala baino lehen egiten ziren ekarpenen gain aplikatu zitekeen kenkariaren muga honakoa zen:

- 50 urtetik beherakoentzat. Muga finantzarioa 10.000 euro urtean edo lan eta jarduera ekonomikoen errentagarritasun garbiaren %30a.
- 50 urtetik gorakoentzat: muga finantzarioa 12.500 euro edo lana eta jarduera ekonomikoen errentagarritasun garbiaren %50a.

Erreforma fiskalari dagokionez, pentsio planaren berreskurapenerako egoera berri bat gaineratzen da: 2015/01/01 etik aurrera egindako ekarpenak berreskuratu ahal izango dira, ekarpena egin zenetik 10 urteko epea igaro bada.

Adibidez, gaur egun pentsio plan bat baldin badaukazu eta zure ekarpen zaharrena 2000 urtekoa baldin bada, berreskurapen berriaren kasua soilik 2025 urtetik aurrera egin ahalko duzu, beti ere, abantaila fiskal guztiak mantenduz.

Pentsio planaren trataera fiskalarekin jarraituko dugu, argi eduki behar dugularik bi une desberdin bereizten direla trataera fiskalari dagokionez. Alde batetik, jada aipatutako ekarpenen trataera fiskala dugu, errenta aitorpenean ordaindu beharreko zenbatekoa murrizten delarik. Bestetik, pentsio planaren berreskurapen momentuan ematen den trataera fiskala dugu. Kasu honetan, berreskurapenaren arrazoia edozein izanda eta onuraduna edozein izanda ere, errentaren aitorpenean pentsio planaren prestazioak **lan-errendimendu**¹ moduan ordaintzen dute zerga. Modu honetan, zergadunaren diru-sarrera mailaren arabera, zerga gehiago edo gutxiago ordainduko dira oinarri zergagarri orokorra handitu egiten baita prestazioen ondorioz.

Pentsio planaren berreskurapena heriotzagatik izan bada, pentsio planaren zenbatekoaren onuraduna bere Errentaren Aitorpenean jasotako zenbatekoen arabera zergak ordaintzera egongo da behartuta, hau da, ez da Ondorengotza Zergari lotuta egongo (Sisternes, 2014).

2006ko Abenduaren 31 baino lehen pentsio planera ekarpenak egin dituzten pertsonak, honakoa hartu beharko dute kontuan:

- Denbora tarte zehatz batean zehar prestazioa modu periodikoan jasotzen bada, hau da, errenta moduan, kobru guztia laneko errentara gehituko da. Erreforma fiskalarekin, ohiko errentak ordaintzen dituzten zerga-tasak murriztu egiten dira %20-%47ra 2015 urtean, eta %19-%45era 2016 urtetik aurrera; beti ere, gauden autonomia erkidegoaren arabera.
- Prestazioa kobru bakar batean jasotzen bada, hau da, kapital moduan, 2006ko Abenduaren 31ra arte egindako ekarpenetatik eratorritako prestazioen %40a zergak ordaintzetik at geratuko dira, beraz, zati horren %60aren gain soilik ordainduko lirarteke zergak; beti ere lehen ekarpena egin zenetik 2 urte igaro baldin badira eta inbertsorea erretiroa hartu duen ekitaldian edo hurrengo bi urteetan dirua ateratzen bada (erreforma fiskalaren aldaketa berria).

Erreforma fiskala dela eta, 2007ko Urtarrilaren 1etik aurrera burututako gainontzeko ekarpenak ez dute abantaila fiskalik berreskurapen unean, berreskurapen mota edozein izanda ere. Hala ere aipatu beharra dago, salbuespen moduan Euskal Herria dela %40ko murrizketa mantentzen duen eskualde bakarra, kapital moduan jasotako errententzat.

Erreforma fiskalarekin jarraituz, azken gauza bat aipatu behar dugu, egoera berezian aurkitzen direnen kasua ikusiko dugularik; jada erretiroa hartu duten eta oraindik pentsio plana kobratu ez duten pertsonentzat trantsiziozko erregimena (Sisternes, 2014) aplikatzen da:

¹ **Lan errendimenduen** zerga-tasaren eskala atal praktikoan ikusiko dugu.

- 2009 eta 2014 urteen artean erretiratu direnentzat: abantaila fiskal honetaz baliatzeko 8 ekitaldi izango dituzte, erretiroa hartu duten datatik zenbatzen hasita.
- 2009a baino lehen erretiratu direnentzat: %40ko murrizketa aplikatu ahal izango dute 2016ko Abenduaren 31a baino lehen dirua berreskuratzen badute.

3.2.2. Banakako Pentsio Plana

Esan bezala pentsio planen artean inbertitzaile desberdinetara moldatzen den plan mota desberdinak daude; banakako pentsio plana edo pentsio plan indibiduala da pentsio planen artean ezagunena, eta baita inbertitzaileek beren kabuz gehien erabiltzen dutena ere. Jarraian produktu honen nondik norakoak aztertuko ditugu era laburrean, pentsio planen funtzionamendua apur bat gehiago ulertzeko.

Banakako pentsio planak, pentsio plan guztiekin gertatzen den moduan, izaera finantzarioa duten entitateek jaulkitzen dituzte, hau da, banku, aurrezki kutxa eta kreditu kooperatibak. Ikusten dugun bezala bi subjektu (Gutiérrez-Fernandez, a) daude produktu hauetara lotuta; jaulkitzailea eta kontratatzailea.

- Jaulkitzailea: banakako pentsio planek jaulkitzaile bakar bat besterik ezin izango dute eduki, eta hau izaera finantzarioa duen entitate bat izan beharko da. Pentsio Plan eta Funtsen araudiak Ekonomiako Ministerioan, Espainiako Bankuan edota Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalan (BMBN) inskribatuta dauden honakoak hartzen ditu izaera finantzarioa duten entitateak: kreditu entitateak, aseguru entitateak, pentsio funtsen entitate kudeatzaileak, inbertsio zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak, eta inbertsio kolektiboko instituzioen sozietate kudeatzaileak.
- Kontratatzalea edo parte-hartzailea: produktua kontratatzen duen pertsona da, hau da, inbertitzailea. Pentsio plan mota hau kontratatzeko ez dago baldintza berezirik, hau da, edozein pertsona fisikok kontratatu dezake.

Alderdi bakoitzak kontratazioa burutzean hartzen duen erantzukizunari dagokionez, bai jaulkitzaileen bai parte-hartzaileen erantzukizuna ekarpenen konpromisora mugatuta dago, beraz, pentsio funtsen hartzekodunek ezin izango dute beren kredituak efektibo bihurtu hauen ondarearen kontra. Hitzartutako betebeharren arabera modalitate desberdinak aurki ditzakegu.

Banakako pentsio planen ezaugarri garrantzitsu bat da, kontingentzia guztietarako ekarpen finkoa daukatela, hau da, kontratatzailea ekarpen finko bat eginez planean aurreikusten diren kontingentzia guztien estaldura lortzen du. Hala ere, kontuan hartu beharra dago, ekarpenen kapitalizazioan interes minimo bat bermatzea ezinezkoa dela, beraz, ez du errentagarritasun minimo bat bermatzen. Behin kontingentzia gertatzen dela, pentsio planak eragindako prestazioen eta hauen lehengoratzeeen bermea aurreikusi daitezke, beti ere hauek bere osotasunean

bermatuak izan badaitezke aseguru-entitate edo finantza-entitateekin burututako kontratuen bidez, planak ez baitu inoiz prestazioetatik eratorritako arriskurik bere gain hartzen (Gutiérrez-Fernandez, a).

Banakako pentsio planek pentsio plan guztiek bete beharreko oinarritzko printzipio guztiak asetu beharko ditu:

- DISKRIMINAZIORIK EZ: honelako plan bat ezin izango da diskriminatzailea izan edozein pertsona bertara atxikitzeko borondatea agertzen duenean eta behartzeko ahalmena duenean, atxikitutako kide guztientzat ezarritako baldintza kontraktual berdinetan egiteko aukera izan beharko du kontratatzaileak.
- KAPITALIZAZIOA: Banakako pentsio planak finantza eta eguneratze kapitalizazio sistemen bidez instrumentatuko dira.
- EKARPENEN ATZERA EZINTASUNA: burututako ekarpenak atzeraezinak izango dira, bere ordainketa efektiboarekiko independentea izanik.
- ESKUBIDEEN ESLEIPENA: Banakako pentsio planetara parte-hartzaileek egindako ekarpenak, zuzenak zein egozgarriak, kontsolidatutako eskubideak finkatzen dituzte, eta baita onuradunen prestazioak ere.
- DERRIGORREZKO INTEGRAZIOA: Banakako pentsio plan bat Pentsio Funtz Pertsonal batean barneratuko da derrigorrez.
- KONTSOLIDATUTAKO ESKUBIDEAK EZIN ENBARGATZEA: hauek ezin dira enbargatuak izan, ezta oztopo judizial zein administratiboa ere izan, prestazioa gauzatzen den momentura arte edo gaixotasun larria zein langabezia iraunkorraren kasuak ematen diren momentura arte.

Banakako pentsio planetan ez da kontrolerako komisorik egongo, jaulkitzailea bere funtzioak bete eta bere erantzukizunak gain hartzeko aukera edukiz. Hala ere parte-hartzailearen eta onuradunen **defentsari** bat izendatuko da, egindako errekamazioak aurrera eramateko eta entitate jaulkitzaile, kudeatzaile eta gordailuzainen arteko arbitraiaz arduratzeko (Gutiérrez-Fernandez, a).

Pentsio planera egindako ekarpenen ondorioz, kontratatzaileak zenbait eskubide lortzen ditu. Ekarpentatik eratorri egiten diren eskubide hauen mugikortasunari (Gutiérrez-Fernandez, a) buruz hitz egiteko, bi eskubide mota bereizi beharko ditugu:

- KONTSOLIDATUTAKO ESKUBIDEAK: Eskubide hauek beste pentsio plan batera, bermatutako aurreikuspen plan bat edo batzuetara, edota gizarte-aurreikuspeneko enpresa plan batera mugitu daitezke honako bi kasuetan:
 - Parte-hartzailearen alde-bakarreko erabakiaren bidez (mugimendu totala edo partziala).
 - Plana amaitzearen ondorioz.

- ESKUBIDE EKONOMIKOAK: Banakako pentsio plan baten onuraduna askatasun osoz mugitu ditzake bere eskubide ekonomikoak beste pentsio plan batzuetara edo bermatutako aurreikuspen plan batera, beti ere bermerako eta prestazioen segurtasunerako baldintzek hala baimentzen baldin badute.

3.2.3. Gizarte Aurreikuspeneko Enpresa Plana (GAEP/PPSE)

Gizarte aurreikuspeneko enpresa plana lanerako pentsio planen barruan dagoen produktu bat da. Lanerako pentsio planak gizarte aurreikuspeneko sistemak dira enpresa edo erakunde publiko batek sustatzen dituenak. Produktu hauen ezaugarri nagusia da onuradunak enpresa edo erakunde sustatzailearen langileak direla. Gizarte aurreikuspeneko enpresa planarekin jarraituz, produktua zertan datza azalduko dugu; enpresa batek bere langileentzako egiten duen aseguru kolektiboko kontratu bat da, zeinetan enpresa edo erakunde kontratatzaileak ekarpen periodikoak edo ekarpen bakar bat egiten duen. Gainera interes minimo bat bermatzen du eta mozkinetan parte hartzeko aukera ematen du (Mapfre,). Gizarte aurreikuspeneko enpresa plan baten kontratazioak pentsio-konpromezu bat suposatzen du, beraz, ezinbestekoa da enpresaren eta langileen artean akordio bat egotea. Esan bezala pentsio plan bat da, beraz produktu honen erregimen juridiko eta fiskala pentsio planen antzekoa da. Produktua hau bere gaztelerazko PPSE (Plan de Previsión Social Empresarial) siglez ezaguna da eta PFEZren 35/2006 Legean eta baita pentsio-konpromezuen instrumentazioaren Erreglamenduan ere daude erregulatuta.

Gizarte-aurreikuspeneko enpresa plan batek, pentsio plan guztiek bete beharreko baldintza (Ministerio de Economía y Hacienda, Gobierno de España,) hauek ere bete beharko ditu:

- Pentsio planen legedia arautzailean zehazten diren printzipioak bete beharko ditu: ez-diskriminazioaren printzipioa, kapitalizazioaren printzipioa, ekarpenen atzeraezintasunaren printzipioa eta eskubideen esleipenaren printzipioa. Eskubideen printzipioari dagokionez, kontratua egiten duen enpresak ordaintzen dituen primek aseguraturako langileei esleitzen zaizkien kontsolidaturako eskubideak sortzen dituzte, hauek lan-erlazioa mantentzen den bitartean indarrean egongo direlarik.
- Poliza edo kontratuan, enpresak ordainduko dituen primak zehaztuko dira, hauen trataera fiskala aseguraturako langileei ezarriko zaiolarik. Hau da, langileek prima hauek beren errenta aitortuenean barneratuko dituzte lan-errendimendu bezala, dagokion zerga-tasa aplikatuko zaielarik.
- Kontratuan zehazki eta modu nabarmenean agertu beharko da Gizarte-aurreikuspeneko Enpresa Plan bat dela. Hau izendatzeko erabiltzen diren siglak (GAEP/ PPSE – Plan de Prevision Social Empresarial) baldintza hauek betetzen dituzten aseguruentzat erreserbatuta daude legez.

- Aseguru hau estaltzen dituen kontingentziak pentsio plan eta funtsen araudian aurreikusten direnak soilik izango dira, hau da, erretiroa, heriotza, lan-egaitasun iraunkorra (erabateko ezgaitasuna ohiko lanbiderako, absolutua lanbide guztietarako eta ezgaitasun handia) eta menpekotasuna (dependentzia). Estaldura nagusia erretiroa izan behar du, pentsio planetan gertatzen den moduan. Eskubideen likidezia edo berreskurapena soilik honako salbuespeneko kasuetan burutu daiteke: epe luzeko langabeziaren kasuan eta gaixotasun larriaren kasuan, ezaugarri hau pentsio planen berdina delarik.
- Interes minimo baten bermea eskaini beharko du, eta kapitalaren eguneratzea kapitalizazio tekniketan egon behar da oinarrituta.

Esan dugun bezala, gizarte aurreikuspeneko enpresa plana, pentsio plan baten oso antzekoa den produktua da. Beraz, estalitako kontingentzien nondik norakoak, ekarpenen erregimena eta prestazioen trataera finantzarioa eta trataera fiskala pentsio planen arau erregulatzailen arabera ezartzen dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) Legean zehazki erregulatuta ez dagoen guztian.

Lehenik eta behin, estaltzen dituen kontingentziei buruz hitz egingo dugu; kontingentziak pentsio planek estaltzen dituztenen berdina dira; estalitako kontingentzia nagusia derrigorrez erretiroa izan beharko da, baina beste gertaera hauek ere estaltzen ditu: heriotza, ezgaitasuna, menpekotasuna, gaixotasun larria eta langabezia iraunkorra. Pentsio planarekin duen desberdintasuna da, kontratatzailea beti enpresa izango dela, aseguratua eta onuraduna langilea izango delarik. Heriotza kasua izango litzateke salbuespen bakarra, zeinetan onuraduna langileak izendatutakoa izango den (Mapfre,).

Enpresak ordaintzen dituen primei dagokionez, urtean ordaintzen den zenbatekoan ez dute mugarik, pentsio planetan gertatzen den moduan, baina kontuan izan behar dugu, oinarri zergagarria gutxitzerakoan pentsio planen muga berdina dituztela; hau da, oinarri zergagarrian aplikatu daitekeen kenkarian zenbateko maximoa ezingo du 8.000 euroko muga finantzarioa gainditu urtean, edota ezingo da jarduera ekonomikoaren errendimendu garbien %30a baino gehiago izan. Erabiltzen den muga bi kopuru hauetatik txikiena izango da, eta batera aplikatzen dira PFEZren Legearen 51. artikuluan arautzen diren instrumentu (pentsio planak, bermatutako aurreikuspen planak, gizarte-aurreikuspeneko enpresa planak, dependentzia aseguruak, eta profesionalentzako mutualitateak bai norberaren konturako bai hirugarrenen kontura) guztientzat. Trataera fiskalari dagokionean, jada aipatu dugu enpresak ordaindutako primak langileari lan-errendimendu bezala ezartzen zaizkio, errenta aitopenean PFEZren oinarri zergagarria murriztu egiten dutelarik. Beraz, pentsio planek eskaintzen duten abantaila fiskal bera dute. Berreskurapen unean berriz, langileak jasotzen dituen prestazioak lan-errendimendutzat hartzen dira oinarri zergagarria handituz, eta dagokion zerga-tasa ordainduz, pentsio planen kasuan bezala.

Pentsio planekin duen beste ezaugarri amankomun bat bere likidezia falta da, ezin baitugu nahi dugun unean dirua berreskuratu. Berreskurapena mugaeguna baino lehen burutu ahal izateko, erretiroa ez den bestelako kontingentziak eman beharko dira, edota produktuaren kapitalaren traspasoa burutzen baldin bada, beste gizarte

aurreikuspeneko enpresa plan batera, bai konpromezuaren moldaketagatik bai konpromezuaren desagerpenagatik ere eginez gero. Produktu honen iraupena beraz, kontratazioa burutzen denetik estalitako kontingentzietako bat ematen den unera artekoa izango da beti (Mapfre,). Berreskurapenarekin erlazioa duen beste gauza bat, produktuak eskaintzen duen bermea da. Aipatu bezala gizarte aurreikuspeneko enpresa planek interes minimo baten bermea eskaintzen dute. Hala ere, prestazioa jasotzen den unea eta gertaera eragilearen arabera, eskaintako bermeak desberdinak dira. Bermeei (Mapfre,) dagokionez, hiru egoera desberdinak behar ditugu:

- Aurreikusitako erretiro adinera iristean aseguratutako langilea bizirik baldin badago, aplikatutako interes teknikoaren arabera kapitala bermatua egongo da, eta baita mozkinetan duen partaidetza eskubidearen bir-balorazio eguneratua ere.
- Aseguratutako langilearen heriotza kasuan, igarotako urte osoetan zehar ordaindutako primen eguneratutako balioa bermatuta egongo da, beti ere interes teknikoaren arabera kapitalizazio bidez eguneratuak. Gainera mozkinetan duen partaidetza eskubidearen bir-balorazio eguneratua ere bermatuta egongo da.
- Aseguratutako langilearen ezgaitasun iraunkorra (totala edo gehiago) edo menpekotasunaren kasuan, une horretara arte metatutako aurrekia bermatuta egongo da, aseguru nagusiaren zenbatekoa eta baita mozkinetan duen partaidetza eskubideren zenbatekoa ere kontuan hartuz.

Azkenik produktuaren kontratazioak eta bertara egindako ekarpenek ematen dituen eskubideei buruz hitz egingo dugu. Enpresak gizarte aurreikuspeneko enpresa planera egiten dituen ekarpenek sortzen dituzten eskubideak, aseguratutako langileei dagozkie. Eskubide hauei dagokionez, langile batek GAEP batean dituen metatutako eskubideak ezin izango dira enbargatuak izan, ezta oztopo judizial zein administratibo bezala erabili prestazioaren (erretiroa, heriotza, ezgaitasuna, menpekotasuna) eskubidea sortzen den unera arte, edo metatutako eskubideak likido bihurtzen diren momentura arte, langabezia iraunkorra edo gaixotasun larriaren kasuetan. Eskubideekin jarraituz, hauen mugikortasunari buruz hitz egingo dugu. Lan-harremanaren etendura kasuan, beti ere kontratuan hala adierazten baldin bada, kontsolidatutako eskubideen mugikortasuna ahalbidetzen da gizarte aurreikuspeneko enpresa plan batetik beste GAEP batera, edota pentsio plan batera zein bermatutako aurreikuspen plan batera. Eskubideen mugimendua alderantzizko norabidean ere burutu daitezke, hau da, produktu hauetatik GAEP batera (Ministerio de Economía y Hacienda, Gobierno de España,).

3.3. Bermatutako Aurreikuspen Planak (BAP/PPA)

Aurreikuspeneko aurrezpen produktuen artean jarraian aztertuko duguna bermatutako aurreikuspen plana da, gaztelerazko PPA (Plan de Previsión Asegurado) siglez ezaguna dena. Bermatutako aurreikuspen planak borondatezko banakako aurreikuspen aseguru kontratu bat bezala osatzen da, eta lehenago esan dugun

moduan pentsio planekin gertatzen den bezala, izaera pribatua duten produktuak dira, eta beraz Gizarte Segurantzaren erretiro-pentsioaren osagarriak izango dira, inoiz ez ordezkioak (Gutiérrez-Fernandez, b). Aurreikuspeneko aurrezpen produktu hau *urtarrilaren 10eko 27/2003 Errege Dekretua*-ren bitartez merkaturatua izan zen eta gaur egun 35/2006ko *PFEZ-ren Legearen 51.3 artikuluan* erregulatzen da, eta baita *martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretua*-n onetsitako *PFEZ-ren Erreklamenduko 49 artikuluan* ere.

Bermatutako aurreikuspen planek pentsio planekin zenbait antzekotasun dituzte, batez ere ekarpenen erregimenari, berreskurapenei, trataera fiskalari eta traspasoei dagokionez. Hala ere, bere osaketan desberdinak direnez, lehenengo produktu honen nondik norakoak aztertuko ditugu bere funtzionamendua hobeto ulertzeko. Bermatutako aurreikuspen planean dauden alderdiei dagokionez, irudi desberdinak bereiztu behar ditugu nahiz ete batzuetan gizabanako bakar batek paper desberdinak betetzen dituen; orokorrean aseguria kontratatzen duen pertsona zergaduna izango da; aseguraturia berriz, planaren bidez estali diren arriskuak jasaten dituen izango da, eta onuraduna prestazioa jasoko duena. Hala ere, zergadunaren heriotza kasuan, beste prestazio batzuen eskubidea sor daiteke umezurtz, alargun edo beste hirugarrenen aldeko prestazioak besteak beste. Azkenik, produktua merkaturatzen duen entitatea dugu, hau da, produktua eskaintzen duena.

Bermatutako aurreikuspen planak merkaturatzen dituzten aseguru-entitateak, kontratua egin baino lehen, kontratatzaileari informazio ohar bat ematera behartuta daude, zeinetan modu argi eta zehatzean honakoak idatziz adieraziko diren: bermatutako interes teknikoa, berme bakoitzaren epeak, aurreikusitako gastuak, eskaintako estaldurak, primen nondik norakoak, eta egotekotan afektatutako inbertsioak, etab. Era berean, kontratua indarrean dagoen epean zehar, aseguru-entitateak titularrari bermatutako aurreikuspen planean eman daitezkeen aldaketa guztien berri eman beharko dio idatziz. Gainera modu periodikoan, gutxienez hiru-hilean behin, kontratatzaileari jabe den eskubideen balioa zein den (hornidura matematikoaren zenbatekoa) azaldu beharko dio, eta baita honen merkatu balioa zein den ere. Bezeroa informatua mantentzearen helburua une bakoitzean honek modu egoki, efiziente eta arduratsuan, bere erabakiak hartzeko gaitasuna edukitzea da.

Produktu hauek bete behar dituzten baldintzen artean, bi hauek dira garrantzitsuenak; alde batetik, interes minimo baten bermea eskaini beharko dute derrigorrez, hau baita beren ezaugarriarik garrantzitsuena. Bestetik, poliza edo kontratuan zehazki eta modu nabarmenean agertu beharko da kontratatzen den produktua Bermatutako Aurreikuspen Plan bat dela, izenpea eta bere siglak (BAP/PPA) Legeak aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten kontratuetara soilik mugatuko direlarik (Gutiérrez-Fernandez, b).

Pentsio planetan gertatzen den moduan, bermatutako aurreikuspen planen estaldura nagusia erretiroa da. Gainera produktuaren ezaugarriak direla eta, estaldura nagusia erretiroa izatea derrigorrezkoa da, eta baldintza hau betetzen dela kontsideratuko da soilik honakoa egiaztatzen baldin bada: urte bakoitzaren amaieran lortutako horniduraren zenbatekoa gutxienez, planaren hasieratik heriotza eta ezgaitasun kapitalarentzat ordaindutako primen baturaren hirukoitza dela. Ikusten dugunez, erretiroaren prestazioa estaldura nagusia izan arren, pentsio planetan aurreikusi egiten diren bestelako egoerak ere estali daitezke, hau da, heriotza,

menpekotasun handia edo osoa, gaixotasun larria, ezgaitasuna, eta langabezia iraunkorra.

Pentsio planarekin duen ezberdintasun nabarmenena da, pentsio plana funts baten barne dagoela eta bermatutako aurreikuspen plana berriz, aseguru kontratu baten bidez formalizatzen dela (Invertia, 04/11/2015). Hau da, pentsio planetan errentagarritasuna finantza merkatuetan inbertitzen diren aktiboen bilakaeraren arabera da, beraz errentagarritasun minimorik ez da bermatzen. Bermatutako aurreikuspen plana aldiz, aseguru izaera edukitzearen ondorioz, errentagarritasun minimo baten bermea eskaintzen du (Gutiérrez-Fernandez, b).

Jarraian, bermatutako aurreikuspen planak pentsio planarekin dituen antzekotasunak ikusiko ditugu, lehenago aipatu ditugun arloak aztertuz. Lehenik eta behin bermatutako aurreikuspen planetara egiten diren ekarpenen erregimena nolakoa den ikusiko dugu modu laburrean. Egindako ekarpenek errenta aitorpenean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) oinarri zergagarria murrizteko aukera ematen dute, ekitaldi horretan ordaindu beharreko zergaren zenbatekoa murrizten delarik. Hala ere, ekarpenen ondorioz lortu daitekeen kenkari maximoa pentsio planean ezarritakoaren berdina da, beraz, kenkariaren zenbatekoa muga bat izango du, zeina hurrengo bi kopuruetatik txikiena ezin izango du gainditu:

- 8.000 euroko muga finantzarioa urtean.
- Lan eta jarduera ekonomikoen errentagarritasun garbiaren %30a.

Muga hau Bermatutako Aurreikuspen Planen eta bestelako gizarte aurreikuspen sistementzat baterakoa da, hau da, mota honetako produktu bat baino gehiago kontratatuz gero, hauetara egindako ekarpenen batura eduki beharko da kontuan muga aplikatzerakoan. Gainera zergaduna ezin badu ekitaldi horretan egindako ekarpen guztia kenkarian barneratu muga hauen ondorioz, hurrengo 5 ekitaldietan “soberakin” hori aplikatzeko eskubidea izango du, pentsio planetan gertatzen den moduan (Gutiérrez-Fernandez, b).

Esan bezala pentsio planekin ditun antzekotasunen artean, berreskurapena eta trataera fiskala ere aurkitzen ditugu. Berreskurapen modalitateari dagokionez, pentsio planen kasuan bereizten diren hiru modalitate berdinak ditugu: kapital moduan, errenta moduan, eta modalitate mixtoa. Berreskurapen unean eragilea edozein izanda ere, eta berreskurapen modalitatea edozein delarik, jasotako prestazioak bere osotasunean ordaintzen dituzte zergak lan-errendimenduak bailiran, pentsio planen kasuan gertatzen den bezala, hau da, prestazioaren zenbatekoa oinarri zergagarria handitzen du. Pentsio planen atalean aipatutako erreforma fiskalak ere bermatutako aurreikuspen planetan du eragina, beraz 2006ko abenduaren 31ra arte egindako ekarpenei Trantsiziozko Erregimena aplikatu ahal zaie, kapital moduan berreskuratuz gero %40a zergak ordaintzetik at geratzen delarik (*Trantsiziozko Erregimenaren aplikazioan dauden trataera fiskal desberdinak Pentsio Planen atalean dago azalduta*). Horiek horrela, berreskurapen modu hobea zein den aztertzeko, kontutan hartu behar dugu kapital moduan burututako kobruaren kasuan PFEZ-ren oinarri orokorra maximoetara handitu daitekeela, baina prestazioaren zein zenbatekoraino Trantsiziozko Erregimena aplikatu daitekeen ere aztertu beharko dugu, bai pentsio planen bai bermatutako aurreikuspen planen kasuan ere.

Bermatutako Aurreikuspen Planen kontingentzien, ekarpenen eta prestazioen finantza eta erregimen fiskala *Pentsio Planen eta Funtsen araudian* erregulatzen da, *PFEZ-ren Legea eta Erreglamenduan* erregulatuta ez dagoen guztiaren kasuan.

Aipatu bezala, bermatutako aurreikuspen planek eta pentsio planek duten beste ezaugarri amankomuna traspasoen erregimena da. Pentsio planetan gertatzen den moduan, bermatutako aurreikuspen plan bat kontratatzean ere, titularrak zenbait eskubide bereganatzen ditu. Metatutako eskubideen barnean ekarpenetatik eratorritako eskubide ekonomikoak, interes minimoaren bermea eta kapitalizatorako finantza-eguneratze erregimena daude. Aipatutako eskubide hauek ezin dira enbargatuak izan, ezta oztopo judizial zein oztopo administratibo ere izan prestazioa jasotzeko eskubidea gauzatzen den unera arte, edo langabezia iraunkorraren zein gaixotasun larriaren kasuan prestazioa gauzatzen den unera arte. Gainera metatutako eskubideak ezin dira berreskuratuak izan bermatutako aurreikuspen planak estaltzen duen kontingentziaren bat ematen ez den bitartean. Arrazoi hau dela eta, likideziarik gabeko produktutzat hartzen dira. Zenbait kasuetan, *Pentsio Planen eta Funtsen Araudian* likideziaren ez-ohiko kasuak (langabezia iraunkorra eta gaixotasun larriaren kasuentzat) deitzen direnetan, aurrez eskuratu ahal izango dira metatutako eskubide ekonomikoak bailiran baloratuak izango direlarik (Gutiérrez-Fernandez, b).

Eskubideen mugikortasunari dagokionean, Bermatutako Aurreikuspen Plan bateko eskubideen mugikortasun prozedura *PFEZ-ren Erreglamenduko 49.3 artikuluan* erregulatzen da, eta Banakako Pentsio Plan bateko mugikortasunerako ezarritakoaren antzekoa da. Bermatutako aurreikuspen plan bat duen pertsonak, aldebakarreko erabaki baten bidez, modu total edo partzialean bere eskubide ekonomikoak mugi ditzake berea den beste bermatutako aurreikuspen plan batera, edota pentsio plan batera edo gizarte-aurreikuspeneko enpresa plan batera (azken bi produktuetatik bermatutako aurreikuspen plan batera ere egin daiteke). Aseguru honek estaltzen dituen kontingentziaren bat behin suertatuta, eskubideen mugikortasuna soilik planaren baldintzek aukera ematen badute egingo da.

Modu honetan, eskaera helmugako entitateara zuzendu beharko da jatorriko bermatutako aurreikuspen planaren nondik norakoak adieraztea ezinbestekoa izanik, eta baita jatorriko aseguru entitatea eta mugitu nahi den zenbatekoa (totala edo partziala) ere adieraziz. Aipatutako eskaerak planaren jabearen edo onuradunaren baimena barneratu beharko du, helmugako entitateak, honen izenean, mugimendua modu egokian egin ahal izateko jatorrizko entitateari beharrezko informazio fiskal eta finantzarioa, eta eskubideen mugimendua eskatu ahal izateko. Era berean, eskaerarekin batera helmugako entitateak jaulkitako agiria beharrezkoa izango da, zeinetan bere onarpena agertuko den. Helmugako entitatea, behin mugikortasun eskaera jaso duenean, gehienez 2 egun balioduneko (igande eta jaiegun ez diren beste guztiak) epea izango du legezko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko eta jatorriko entitateari jasotako eskaeraren berri emateko. Beste honek eskaeraren berri izan duenetik aldiz, gehienez 5 egun balioduneko epean eskubideen banku-transferentziaren agindua eman beharko du. Jatorriko entitatea helmugako entitate bera den kasuetan, banku-transferentzia gehienez 3 egun balioduneko epean egin beharko du, eskaera egin den datatik zenbatzen hasita. Mugimenduaren zenbatekoa aseguruaren hornidura matematikoaren kopurua izango da eta ezin izango da penalizazioetara, gastuetara edota deskontuetara aplikatu. Hornidura matematikoaren

balorazioa egiteko jatorriko entitateak beharrezko dokumentazioa jasotzen dueneko data erabiliko da. Aseguruak esleitutako inbertsioekin kontratatua izan bada, mugituko den hornidura matematikoaren zenbatekoa esleitutako aktiboaren merkatuko balioa izango da, zenbatekoa finantza merkatuen gorabeheren arabera aldatu daitezkeela kontuan hartuz (Gutiérrez-Fernandez, b).

3.4. Banakako Aurrezpen Sistematikoko Plana (BASP/PIAS)

Ikusiko ditugun aurrezpen produktuen artean desberdinen atal honetan aztertuko duguna da, banakako aurrezpen sistematikoko plana hain zuzen ere. Produktu hau bere gaztelerazko PIAS (Plan Individual de Ahorro Sistemático) siglez ezaguna da. Produktuaren nondik norakoak aztertu baino lehen, aipatzekoa da banakako aurrezpen sistematikoko plan bat pentsio planen eta aseguruaren arteko produktu finantzarioa dela.

Produktu honen funtzionamendua hobeto ulertzeko banakako aurrezpen sistematikoko plan bat zertan datza azalduko dugu. Epe luzeko aurrezkitako aurreikuspen produktua da, zeina bermatutako biziarteko errenta bat eratzeko aukera ematen duen, denboran zehar kapital bat osatzen delarik prima batzuk ordainduz. Bizitza-aseguru modalitate hau *Azaroaren 28ko 53/2006* Legearen bidez merkaturatua izan zen, zeina 2007ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen PFEZ berria finkatuz (Gutiérrez-Fernandez, c).

Banakako aurrezpen sistematikoko plana kontratatzen denean, ezinbestekoa da polizaren baldintzetan modu zuzen eta nabarmenean Banakako Aurrezpen Sistematikoko Plana bat dela adieraztea, izenpea eta siglak (BASP/PIAS) Legeak aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten kontratuentzako soilik baliozkoak izanik. Gainera modu periodikoan, gutxienez hiru-hilean behin, titularra jabe den eskubideei buruzko informazioa (hornidura matematikoa) jaso behar du, eta baita bere merkatuko balioari buruz ere. Plan hauek bete beharreko beste baldintza bat honakoa da: kontratzailea, aseguratu eta onuraduna pertsona bera izan behar du. Hau da, asegurua kontratatzen duen pertsona, aseguruak estaltzen dituen arriskuak esposizioa jasaten duena eta aseguruan hitzartzen den prestazioa jasoko duena, pertsona bera izan behar dute. Gainera bizitza-aseguruaren denez, titularraren heriotza kasuan bermatutako kapital bat eskaini behar du.

Banakako aurrezpen sistematikoko planek pentsio plan zein bermatutako aurreikuspen planekin antzekotasun gutxi dituzte. Produktu hauen kasuan ez da derrigorrezkoa, pentsio planetan eta bermatutako aurreikuspen planetan gertatzen den bezala, estalitako kontingentzia nagusia erretiroa izatea. Bi produktu hauekin duen beste desberdintasun bat likidezia da, banakako aurrezpen sistematikoko planetan metatutako aurrezkitasun edozein momentuan berreskuratu baitaiteke. Beraz, beste bi produktuekin alderatuz gero, likidezia duen produktua da. Hala ere, kontratazioa burutu zen unetik 5 urteko epea igaro baino lehen berreskurapena egiten bada, titularrak produktuaren abantaila fiskala galduko luke (Vilá Medina, 04/2015). Aurreko bi produktuekin alderaketa jarraituz, esan beharra dago bermatutako aurreikuspen planarekin zenbait ezaugarri dituela amankomunean, pentsio planetatik bereizten

duena; alde batetik biak epe luzeko aurrezpen-aseguruak dira, pentsio plana funts batean atxikiturik dagoen bitartean. Bestetik, bai banakako aurrezpen sistematikoko planak bai bermatutako aurreikuspen planak errentagarritasun minimo bermatzen dute, pentsio planekin gertatzen ez den bezala (canalJubilación, a).

Banakako aurrezpen sistematikoko plan batera egiten diren ekarpen edo primek metatutako eskubideak osatzen dituzte, eta aldi berean, kontratu hauetan metatutako eskubideekin bermatutako biziarteko errenta eratuko da, zeina lehen ekarpena (edo prima) egin zenetik 5 urteko epea igaro ondoren jaso daitekeen. Eskubideekin jarraituz, hauen mugikortasunari buruz hitz egingo dugu. *PFEZ-ren Erreglamenduaren* arabera, Banakako Aurrezpen Sistematikoko Plan bateko eskubideak modu total edo partzialean mugitu daitezke beste Banakako Aurrezpen Sistematikoko Plan batera (Gutiérrez-Fernandez, c).

Pentsio plan eta bermatutako aurreikuspen planekin duen ezberdintasun garrantzitsuenak, ekarpenetan eta trataera fiskalean daude. Plan hauetan egiten diren ekarpenak noizbehinkakoak edo periodikoak izan daitezke. Azken kasu honetan kontratuan zehaztuko da hilerokoak, hiru-hilerokoak, sei-hilerokoak, edo urterokoak izango diren. Ekarpenekin jarraituz, aipatu beharra dago zenbait muga daudela, pentsio plan zein bermatutako aurreikuspen planekin gertatzen ez den bezala. Horiek horrela, urtero egin daitekeen ekarpenen zenbatekoa ezingo du 8.000 euroko muga gainditu, eta egindako ekarpenen metaketa ezingo du 240.000 euroko gehienezko kopurua gainditu pertsona eta plan bakoitzeko. Muga hauek egotearen arrazoia da, banakako aurrezpen sistematikoko planaren kasuan ekarpenek abantaila fiskalik ez daukatela. Gainera aipatutako muga hauek merkatuan dauden gainontzeko aurrezpen produktuen (pentsio planak, bermatutako aurreikuspen planak, gizarte-aurreikuspeneko enpresa planak) ekarpenen mugetatik independenteak dira. Ezberdintasun hau garrantzitsua da, produktu honen kasuan gizabanako bakoitzak soilik banakako aurrezpen sistematikoko plan bat kontratatu baitezake, pentsio planetan zein bermatutako aurreikuspen planetan gertatzen ez den bezala; hauetan pertsona titularrak plan bat baino gehiago kontratatu ditzakeelako (Gutiérrez-Fernandez, c).

Esan bezala, aurreko bi produktuekin gertatzen ez den bezala, ekarpena egiten den unean ez dago abantaila fiskalik, hau da, egindako ekarpenek ez dute oinarri zergagarria murrizten. Hala ere, produktu hau eskaintzen dituen abantaila fiskalek paper garrantzitsua jokatzen dute bere erakargarritasunean. Abantaila fiskal hauek berreskurapen unean gauzatzen dira. Aipatutako abantaila fiskala honakoa da: lehen prima ordaindu zenetik bermatutako biziarteko errentaren kobrua hasten den arteko denboran zehar sortutako errendimendu guztiek zergak ordaintzetik libre daudela. Modu honetan, biziarteko errentaren eraketan zehar ez da zergarik ordaindu behar, baizik eta hau jasotzen den bitartean. Gainera momentu horretan ordaindu beharreko zergak biziarteko errenta eratu denetik igarotako denboraren eta berreskurapen unean aseguruak duen adinaren arabekoak izango dira (canalJubilación, b).

Banakako aurrezpen sistematikoko planaren berreskurapenari dagokionez, ez daude hiru modalitate pentsio planekin eta bermatutako aurreikuspen planekin gertatzen den bezala. Produktu honen helburua biziarteko errenta bat eratzea denez, berreskurapenean errenta moduan jasoko litzateke prestazioa. Hala ere, titularrak ez badu biziarteko errenta moduan prestazioa kobratu nahi edota dirua polizaren

mugaeguna baino lehen berreskuratu nahi baldin badu, jasotako kapital zenbatekoaren eta egindako ekarpenen zenbatekoaren arteko diferentzia kapital higigarriko errendimendutzat hartuko da, errentagarritasun hau Aurrezpeneko Oinarri Zergagarrian barneratzen delarik, hau da, kasu honetan errendimenduak ez dira zergak ordaintzetik at gelditzen (canalJubilación, a).

Jarraian banakako aurrezpen sistematikoko planaren trataera fiskala sakonago aztertuko dugu, abantaila fiskalaren funtzionamendua hobeto ulertzeko. Lehenik eta behin, abantaila fiskala aprobetxatu ahal izateko itxaron beharreko denbora kontuan izan beharko dugu; hasierako ekarpena egin zenetik 5 urteko epea igaro baino lehen egiten bada berreskurapena, abantaila fiskala galdu egiten da, beraz berreskuratu den zenbateko osoaren gain ordaindu beharko dira zergak, kapital higigarriko errendimenduari dagokion zerga-tasan, eta murrizketarik aplikatzeko aukerarik gabe. Berreskurapena lehen 5 urteak igaro ondoren egiten bada ordea, urte bakoitzean jasotako zenbatekoaren portzentaje zehatz baten gain soilik ordainduko dira zergak, kapital higigarriko errendimendua balitz bezala (Vilá Medina, 04/2015). Portzentaje hori errenta kobratzen hasten den unean aseguruak duen adinaren arabera izango da. Beraz, **kapital higigarriko errendimenduen**² zerga-tasa adinaren arabera murriztu egingo da, aplikatu beharreko portzentajeak hurrengoak izanik:

- 40 urtetik behera: KHE zerga-tasaren %40a.
- 40-49 urte bitartean: KHE zerga-tasaren %35a.
- 50-59 urte bitartean: KHE zerga-tasaren %28a.
- 60-65 urte bitartean: KHE zerga-tasaren %24a.
- 66-69 urte bitartean: KHE zerga-tasaren %20a.
- 70 urtetik gora: KHE zerga-tasaren %8a.

Banakako aurrezpen sistematikoko plan baten abantaila fiskalak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, komenigarria da berreskurapena ahalik eta beranduen egitea onuradunaren adina zenbat eta altuagoa izan orduan eta zenbateko txikiagoa barneratu beharko baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitortpenean (Gutiérrez-Fernandez, c).

Produktu hauen inguruan aipatu beharreko azken gauza zera da, zenbait bizitza-aseguru banakako aurrezpen sistematikoko planetan bilakatu daitezkeela hauek dituzten ezaugarri eta abantaila fiskalak edukitzeko. 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen formalizatutako bizitza-aseguruaren kontratuak, banakako aurrezpen sistematikoko planetan bihurtu daitezke eta bihurtzeko errentak sortu, beti ere, produktu hauentzako finkatutako baldintzak betetzen badituzte. Ezin izango dira banakako aurrezpen sistematikoko planetan bihurtu ordea, pentsio konpromisotik eratorritako aseguru kolektiboek, ezta oinarri zergagarria murrizten duten giza-aurreikuspeneko produktuek ere. Gainera bihurtu momentuan modu zuzen eta nabarmenean agertu beharko da kontratuaren baldintzetan Banakako Aurrezpen Sistematikoko Plan bat dela (Gutiérrez-Fernandez, c).

² **Kapital Higigarriko Errendimenduen** (KHE) zerga-tasa eskala baten arabera aplikatzen da. Eskala hau atal praktikoa ikusiko dugu.

3.5. Produktuen laburpen taula eta alderaketa

Taula 5: produktuen ezaugarrien alderaketa eta laburpena

	PENTSION PLANA	BAP/PPA	BASP/PIAS
Ezaugarri orokorrak	<ul style="list-style-type: none"> • Funts batean atxikitua • Estalitako prestazio nagusia erretiroa • Estalitako beste prestazioak: <ul style="list-style-type: none"> - Heriotza - Ezgaitasuna - Menpekotasuna - Gaixotasun larria - Langabezia • iraunkorra • Likideziarik ez, ezin da nahi den unean atera • Errentagarritasun minimorik ez 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrezpen aseguruua • Estalitako prestazio nagusia erretiroa • Estalitako beste prestazioak: <ul style="list-style-type: none"> - Heriotza - Ezgaitasuna - Menpekotasuna - Gaixotasun larria - Langabezia • iraunkorra • Likideziarik ez, ezin da nahi den unean atera • Errentagarritasun minimoa bermatu 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrezpen aseguruua • Estalitako prestazio nagusia ez da derrigorrez erretiroa • Estalitako beste prestazioak: <ul style="list-style-type: none"> - Heriotza - Ezgaitasuna - Menpekotasuna - Gaixotasun larria - Langabezia • iraunkorra • Likidezia bai, nahi denean atera • Errentagarritasun minimoa bermatu
Ekarpenak	Ez dago ekarpenetan mugarik	Ez dago ekarpenetan mugarik	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ekarpunen mugak: <ul style="list-style-type: none"> - 8.000€ urtean - 240.000€ kapital metatuta ○ Mugen aplikazioa gainontzeko produktuen mugetatik independenteak
Ekarpenen trataera fiskala	<ul style="list-style-type: none"> • Abantaila fiskala: oinarri zergagarria murriztu. • Kenkariaren muga, bietatik txikiena: <ul style="list-style-type: none"> - 8.000€ urtean - Jarduera ekonomikoaren errendimendu garbien %30 • Mugen baterako aplikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Abantaila fiskala: oinarri zergagarria murriztu. • Kenkariaren muga, bietatik txikiena: <ul style="list-style-type: none"> - 8.000€ urtean - Jarduera ekonomikoaren errendimendu garbien %30 • Mugen baterako aplikazioa 	Ekarpenek ez dute abantaila fiskalik, ez da oinarri zergagarria murrizten

Berreskurapen modalitatea	<ul style="list-style-type: none"> • Kapital moduan • Errenta moduan • Modalitate mistoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Kapital moduan • Errenta moduan • Modalitate mistoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Biziarteko errenta • Berreskurapen aurreratua, abantailak galdu
Berreskurapena: trataera fiskala	<ul style="list-style-type: none"> • Abantaila fiskalik ez • Prestazioaren zenbatekoa lan errendimendu bezala zergak ordaindu, oinarri zergagarria handituz • Erreforma fiskalarekin 2015/01/01tik aurrerako ekarpenen berreskurapena burutzeko 10 urteko epea igaro • Erreforma fiskala baino lehen: <ul style="list-style-type: none"> - 2006/12/31 baino lehen: errenta moduan zerga tasa murriztuarekin. Kapital moduan dagokion ekarpenen %40a zergarik ez, gainontzekoa lan errendimendu bezala - 2007/01/01tik aurrera abantailarik ez; salbuespena Euskal Herrian kapital moduan abantaila mantentzen da 	<ul style="list-style-type: none"> • Abantaila fiskalik ez • Prestazioaren zenbatekoa lan errendimendu bezala zergak ordaindu, oinarri zergagarria handituz • Erreforma fiskalarekin 2015/01/01tik aurrerako ekarpenen berreskurapena burutzeko 10 urteko epea igaro • Erreforma fiskala baino lehen: <ul style="list-style-type: none"> - 2006/12/31 baino lehen: errenta moduan zerga tasa murriztuarekin. Kapital moduan dagokion ekarpenen %40a zergarik ez, gainontzekoa lan errendimendu bezala - 2007/01/01tik aurrera abantailarik ez; salbuespena Euskal Herrian kapital moduan abantaila mantentzen da 	<ul style="list-style-type: none"> • Abantaila fiskala • Lehen ekarpenetik prestazioa jaso arteko denboran zehar lortutako errendimenduek zergak ordaintzetik at • Trataera fiskala: <ul style="list-style-type: none"> - 5 urte baino lehen: kapital higigarriko errendimendu bezala (abantailarik ez) - 5 urtetik aurrera: kapital higigarriko zerga tasa adinaren arabera murriztu: <ul style="list-style-type: none"> < 40 urte: KHEren %40 40-49 urte: KHEren %35 50-59 urte: KHEren %28 60-65 urte: KHEren %24 66-69 urte: KHEren %20 > 70 urte: KHEren %8

Iturria: egileak berak egina

4. INBERTSIOA: AURREZKIAREKIKO BESTE AUKERAK

Orain arte erretiroari begira merkatuan aurkitu ditzakegun aurrezpeneko aurreikuspen produktu desberdinak ikusi ditugu. Atal honetan aztertuko ditugun produktuak ordea, ez dute etorkizunari begira aurrezki bat sortzen joateko helburua. Ikusten dugunez, aurrezki eta inbertsioaren kontzeptuak antzekoak dirudite baina ez ditugu nahastu behar. Bien arteko desberdintasun nagusia diruaren helburua da. Desberdintasun hau hobeto ulertzeko bi kontzeptuak zertan datzan azalduko dugu. Aurrezki etorkizunean erabiltzeko gordetzen dugun diruari deitzen diogu, hau da, gaur egunean diru hori erabiltzeari uko egiten diogu eta arriskurik gabeko leku batean gordetzen dugu, batzuetan errentagarritasuna lortzeko aukera ere ematen digularik. Inbertsioari dagokionez, gaur egunean erabiltzeari uko egiten diogun diru da, baina etorkizunean errentagarritasun bat lortzeko helburua dugu, hau da, etorkizunari begira irabazi bat espero dugu. Irabazi edo mozkin hau egiten dugun inbertsioagatik jasaten dugun arriskuaren ordainsaria adieraziko luke. Laburbilduz, bi kasuetan gaur egunean diru hori erabiltzeari uko egiten diogu, baina aurrezkiaren kasuan gorde egiten dugu inongo arriskurik gabe etorkizunean diru hori erabili ahal izateko, eta inbertsioaren kasuan ordea, arrisku bat jasaten dugu eta horren truke errentagarritasuna lortzea espero dugu etorkizunean irabazi bat lortzeko asmoz (Kiziryán, 2015).

4.1. Errentagarritasuna, arriskua eta likidezia

Behin bi kontzeptu hauen artean dagoen desberdintasuna zein den ikusi dugula, aurreztearen edota inbertitzearen artean aukeratzeko kontuan hartu beharrekoa azalduko dugu. Lehenik eta behin, argi eduki behar dugu gure lehentasuna zein den eta baita gure arriskuarekiko jarrera zein den. Aurrezki egiten badugu, ez dugu zertan inolako arriskurik gure gain hartu behar, baina kontuan izan beharko dugu lortuko dugun errentagarritasuna nulua edo baxua izango dela inbertsioarekin alderatuz. Inbertitzea erabakitzen badugu aldiz, arriskua jasango dugula argi ikusi beharko dugu nahiz eta etorkizunean errentagarritasun altuagoa lortzeko aukera izango dugun (Kiziryán, 2015). Erabaki egokia hartzeko beraz, errentagarritasuna eta honekin erlazioa duten faktoreak, hau da, arriskua eta denbora edo likidezia, ondo ulertu behar ditugu. Horretarako hiru kontzeptu hauen definizioa (Montero Castellanos, 2015) ikusiko dugu lehendabizi:

- Errentagarritasuna: aktibo edo produktu finantzario batek ematen digun mozkin edo errendimendua adierazten du, hau eskuratzeko eduki dugun kostua edo inbertsioaren aldean. [Errentagarritasuna = Mozkina / Eskurapen kostua].
- Arriskua: Aktiboa edo produktu finantzarioa eskuratzeko inbertitu dugun kapitala, ehuneko ehunean edo honen zati bat, epemugan galtzeko probabilitatearen arabera da, hau da, arriskua zenbat eta handiagoa izan galtzeko probabilitatea ere handiago izango da.
- Likidezia: epe laburrean eta galerarik eduki gabe aktibo bat dirutan bihurtzeko duen gaitasuna neurtzen du, edo beste modu batean esanda, produktu batean inbertitutako kapitala berreskuratzeko dugun erraztasuna adierazten du.

Jarraian faktore hauen artean dagoen erlazioaren nondik norakoak ikusiko ditugu. Alde batetik errentagarritasuna eta arriskuaren arteko erlazioa ikusiko dugu; bi faktoreen artean dagoen erlazioa positiboa da, beraz, batak gora egiten duenean besteak ere gora egingo du. Hau da, inbertitutako dirua galtzeko arriskua zenbat eta handiagoa izan, inbertsioarekin lortu dezakegun errentagarritasuna ere handiagoa izango da. Bestetik, errentagarritasuna eta likideziaren arteko erlazioa ikusiko dugu. Kasu honetan bien arteko erlazioa negatiboa da, beraz, batak gora egiten duenean besteak behera egingo du. Hau da, inbertsioaren iraupena zenbat eta handiagoa izan edo berdina dena likidezia zenbat eta txikiagoa izan, honengatik lortzea espero dugun errentagarritasun edo irabazia handiagoa izatea espero dugu (Montero Castellanos, 2015). Hala ere kontuan izan behar dugu, arriskua jasaten dugunean errentagarritasuna edo irabazia ez dagoela bermatua, hau da, galtzeko probabilitatea dagoenez ez dugu zertan irabazi behar.

Inbertsio baten aurrean jasango dugun arriskua aztertu behar dugu, gure arriskuarekiko jarrera zein den ikusiz. Behin gure arrisku profila zein den dakigunean, gurekin hobekien datorren inbertsioa aukeratzeko prest egongo gara. Arrisku profila inbertitzaileak galerak onartzeko duen gaitasuna adierazten du, beti ere, onartzeko prest dagoen arriskua zenbat eta handiagoa izan, inbertsioagatik lortu dezakeen errentagarritasuna orduan eta handiagoa izan daitekeela kontuan hartu behar delarik. Horiek horrela hiru arrisku profil (Lendico,) desberdin bereizten dira; arrisku profil baxua, ertaina eta altua. Jarraian profil bakoitzaren ezaugarriak zeintzuk diren aztertuko ditugu:

- Arrisku profil baxua: inbertitzaile hauek galerak onartzeko gaitasun gutxi dute, beraz, errentagarritasun baxuagoa lortzeko prest daude kapital zehatz bat bermatzearen truke.
- Arrisku profil ertaina: inbertitzaile hauek arrisku txiki bat bere gain hartzeko prest daude, errentagarritasun ez oso handia lortzearen truke.
- Arrisku profil altua: inbertitzaile hauek galerak onartzeko gaitasun nahiko handia dute, beraz, bere gain arrisku handia jasateko prest daude errentagarritasun handia ere lortzearen truke.

Ondorioztatu dezakegunez, arrisku profil bakoitzari arriskuarekiko jarrera bat dagokio. Arrisku profil baxua duen inbertitzaile batek arriskuarekiko jarrera ezkorra duela esango dugu, arrisku profil ertaina duenak arriskuarekiko neutrala dela esango dugu, eta arrisku profil altua duenak aldiz, arriskuarekiko jarrera baikorra izango du.

4.2. Beste finantza produktu batzuk

Orain arte landu ditugun produktuak erretiroari begira aurrezki bat sortzeko helburua zuten. Atal honetan landuko ditugun produktuak ordea desberdinak dira, hauen helburua errentagarritasunari gehiago begiratzen diote. Lehenago ikusitako aurreikuspeneko produktuen eta jarraian ikusiko ditugun produktuen artean dauden

beste desberdintasun nabarmen bat honakoa da: lehenengoen kasuan kapital bat metatuz joaten da ekarpen periodikoak egiten direlarik. Bigarrenen kasuan berriz, kapitala produktua kontratatzen den unean inbertitu egiten da bere osotasunean, epemugan kapitalaren zenbatekoa handituko delakoan, hau da, irabazi bat lortzea espero da. Arrazoi beragatik, orain arte ikusitako produktuen iraupena luzeagoa izan ohi da jarraian ikusiko ditugun produktuen epemugarekin alderatuz gero. Merkatuan aurkitzen diren produktu anitzen artean hemen landuko ditugunak gordailuak eta inbertsio funtsak dira, zeinak arrisku mailaren arabera bereizten diren batez ere.

4.2.1. Gordailuak

Etorkizunari begira aurrezki bat edukitzeak duen garrantzia geroz eta handiagoa den neurrian, merkatuak eskaintzen dizkigun produktu desberdinen artean aukeraketa egokia burutzea ezinbestekoa da. Esan bezala orain arte ikusitako produktuak erretiroari begira aurrezki bat sortzeko helburua dute nahiz eta beste kontingentzia batzuen aurrean ere estaldura eskaintzen duten. Orain aztertuko dugun produktua gure dirua gordetzeko eta ahal den neurrian diru horri errentagarritasuna ateratzeko helburua du. Jarraian gordailu bat zer den eta bere funtzionamendua zertan datza ikusiko dugu. Gordailu bat, beraz, bezero batek erakunde finantzarioari egiten dion mailegu bat dela esan dezakegu, zeinaren truke bankuak interes edo errentagarritasun bat ematen dion. Beste modu batera esanda, finantza-erakundeak bere bezeroaren dirua zaindu edo gorde egiten duen eragiketa bat da zeinetan bezeroak diru hori erabiltzeari uko egiten dion denbora tarte zehatz batean zehar, eta horren truke bankuak ordainsari bat emango dion. Gerta daiteke dirua gordetzeagatik entitate finantzarioak bezeroari komisio bat kobratzea nahiz eta gaur egun banku askok dohainik egiten dute, kasu askotan errentagarritasun bat ere eskaintzen dutelarik (Sevilla Arias, 2015).

Gordailuaren nondik norakoak aztertzen jarraituz, produktu honen ezaugarri orokorrak ikusiko ditugu. Gordailuaren ezaugarrien artean bere sinpletasuna, eskaintzen duen segurtasuna eta errentagarritasuna lortzeko aukera dira garrantzitsuenak. Hala ere aipatutako ezaugarrien artean nabarmenena segurtasuna da, gordailuek berme bikoitza eskaintzen baitute; alde batetik, finantza erakundeak berak eskaintzen duen bermea daukagu, hau da, bankuak duen kaudimenari esker inbertitutako kapitala berreskuratuko dugunaren bermea. Bestetik, Gordailuen Bermerako Funtsak (FGD – Fondo de Garantía de Depósitos) eskaintzen duen bermea daukagu, hau da, erakunde finantzarioak porrot eginez gero, 100.000 euroko kopurura arte bermatzen ditu pertsona eta entitate bakoitzeko. Arrazoi hau dela eta, garrantzitsua da gordailu bat kontratatu nahi dugunean, polizan GBF-aren bermea agertzen dela ziurtatzea, benetan kontratatzen ari garena gordailu bat dela eta ez antzekoa izan daitekeen bestelako produktu finantzario bat dela ziurtatzeko (Monserrat, 2014).

Gordailu mota desberdinei dagokionez, gaur egun finantza-erakundeek gordailu mota desberdin ugari eskaintzen dituzte bezeroaren behar eta baldintza desberdinei modu hoberenean egokitzeko. Gordailu desberdinen artean aukeratzeko honakoak hartu beharko ditugu kontuan: inbertituko dugun kapitalaren zenbatekoa, diru hori

gordailuan utzi dezakegun denbora, eta diru horrekin lortu nahi dugun helburua. Hala ere, esan beharra dago gordailu mota anitz dauden arren, gordailuak orokorrean bi multzotan bereizten direla bere likideziaren arabera, hau da, gordailuan inbertitutako dirua berreskuratu daitekeen unearen arabera. Horiek horrela, ageriko gordailuak eta eperako gordailuak bereiziko ditugu. Lehenengo kasuan dirua guztiz eskuragarri dago eta normalean errentagarritasun gutxi edo bat ere ez, ez dute eskaintzen. Bigarren kasuan aldiz, dirua hitzartutako denboran zehar ez dago libreki eskuragarri, baina bere eskuragarritasun mugatua dela eta, aurrekoek baino errentagarritasun handiagoa eskaintzen dute (Educación Financiera en la Red, Edufinet, 2016). Jarraian gordailu mota hauen nondik norakoak sakonago aztertuko ditugu:

- **Ageriko gordailua:** inbertitzaileak edozein momentuan erabili dezake gordailuan duen dirua, hau da, gordailu mota hau guztiz likidoa da kapital osoa edota zati bat nahi denean berreskuratu baitaiteke. Multzo honetan aurkitzen diren gordailuak honakoak dira: kontu korronteak eta aurrezki kontuak. Dirua kontutik zuzenean atera daiteke efektiboki, edota transferentzia bidez, eta baita txeke baten bidez ere.
- **Eperako gordailua:** gordailu mota hau ezin da epemugara arte berreskuratu, hau da, inbertitzaileak ez dauka bere dirua nahi duenean eskuragarri. Hala ere, normalean dirua epemuga baino lehen ateratzeko aukera egoten da nahiz eta honek kontratatzailearentzat kostu bat suposatuko duen. Modu honetan gordailuaren iraupena handiagoa den neurrian, errentagarritasuna ere handiagoa izango da, dirua erabiltzeari uko egiten diogun denbora luzeagoa baita. Beraz, eperako gordailu bat kontratatu baino lehen, epe laburrean beharko ez dugun dirua izatea hartu beharko dugu kontuan, kontrako kasuan errentagarritasuna gutxitu edo galdu egingo baitugu alde aurreko berreskurapena burutzearen ondorioz.

Esan bezala, ageriko gordailuek ez dute beti errentagarritasun bat eskaintzen, eta eskaintzekotan eperako gordailuena baino baxuagoa izango da. Horren ondorioz, eperako gordailuetan gehiago sakonduko dugu hauek baitira gure aurrezkiari errentagarritasuna ateratzeko aukera hobea eskaintzen diguten gordailuak.

Eperako gordailu bat kontratatzerako unean, egin beharreko ezarpenaren kapital zenbatekoa, ezarpena burutzen den eguna, hitzartutako interes-tasa eta gordailuaren epemuga adierazten dira kontratuan. Ageriko gordailuekin gertatzen ez den bezala, eperako gordailuek beren kontrataziorako zenbateko minimo bat eskatzen da askotan. Errentagarritasunari dagokionez, kontratuan zehaztutako interes-tasa aplikatuko da, normalean finkoa, gordailuaren iraupenean zehar. Aipatu bezala likidezia mugatua du nahiz eta gordailugileak epemuga baino lehen dirua atera dezakeen, normalean zigor ekonomiko bat jasan behar duelarik. Ohikoena alde aurreko berreskurapena burutzeagatik komisio bat egotea da, normalean kontratazio unean ere hitzartzen dena. Modu honetan alde aurreko ezeztapena burutzen bada, erakunde finantzarioak ordaintzeke dauden interesen likidazioa burutuko du dagokion komisioa deskontatuko duelarik. Komisio honi dagokionez, hasiera batean ezin izango da gordailuak une horretara arte sortutako interesen zenbatekoa baino handiagoa

izan. Gainera zenbait kasuetan ezeztapen partziala burutzeko aukera hitzartzen da kontratuan zenbait baldintzapean, beti ere produktuaren azken errentagarritasuna gutxitzeko aukera egon daitekeelarik. Hala ere, esan beharra dago inongo kasuan ez dugula inbertitutako kapitala galduko (Educación Financiera en la Red, Edufinet, 2016).

Gordailu mota desberdinak aztertzen bukatzeko, beste banku-gordailu bereziago batzuk (Monserrat, 2014) ikusiko ditugu era laburrean:

- Opari gordailuak: gordailu mota honen bereizgarria errentagarritasunean dago, dirua gordailuan inbertitzearen truke finantza-erakundeak telebista, ontziteria edo etxeko bestelako gailuren bat emango baitigu. Ezpezetan ordaindutako gordailua izango litzateke, hau da, interesak dirutan jaso beharrean “opari” bat jasotzen dugu. Kasu honetan ez dago aurrez aldeko ezeztapena burutzeko aukerarik, ondasuna kontratuaren hasieran jasotzen baitugu.
- Abantaila fiskala duten gordailuak: 2015eko urtarriletik aurrera gordailu mota berri bat agertu da. Gordailu hauek bere gaztelerazko CIALP (Cuenta Individual de Ahorro a Largo Plazo) siglez ezaguna da. Hauen berezitasuna eskaintzen duten abantaila fiskalean dago, errenta aitortzea egitean gordailuaren interesek ez baitute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) inolako zerga-tasarik ordaindu behar, geroago ikusiko dugun bezala gordailuen interesek kapital higigarriko errendimendu bezala zergatuta baitaude. Beste berezitasunen artean aipatu, gutxienez 5 urteko iraupena izan behar dutela eta urtean aurreztu daitekeen kopuru maximoa 5.000 eurokoa dela. Gainera pertsona bakoitzak horrelako gordailu bakar bat kontratatu dezake.
- Interes aldakorreko gordailua: gordailu hauek Gordailuen Bermerako Funtzaren (GBF) bermea daukaten arren, arrisku bat dute bere errentagarritasuna negatiboa izan daitekeelako. Gordailu hauen interesa indize baten arabera aldatu egingo da, normalean indize hori Euriborra izaten delarik. Modu honetan, epemugan jasoko dugun errendimendua zein den ez dugu ezagutzen, erreferentziaren bilakaeraren arabera eta bankuak eskaintzen digun diferentzialaren arabera izango baita.
- Egituratutako gordailuak: gordailu guztiek bezala GBF-aren bermea eskaintzen dute, baina arrisku bat ere badute. Bere funtzionamendua nahiko berezia da, horregatik ezagutza finantzario nahiko edukitzea beharrezkoa izan daiteke gordailu mota hau kontratatuzeko. Interes finko bat eskaintzen duten gordailuak dira, baina interes hori indize edo aktibo baten bilakaeraren arabera ordainduko zaigu. Errentagarritasuna etorkizuneko egoera batean oinarritzen denez, bere bilakaera zein izango den aztertuzko gaitasuna eduki beharko dugu.

Gordailuekin amaitzeko hauen trataera fiskala aztertzea besterik ez zaigu falta. Produktu hauek nahiko ziurrak izanda, eta normalean, errentagarritasun finko eta ezagun bat eskainiz, alde txar bat ere badute. Lortutako errendimenduak errenta aitopenean barneratu behar dira, PFEZ-an **kapital higigarriko errendimenduek**³ bezala zergak ordaintzen dituztelarik. Salbuespen bakarra, lehen aipatutako CIALP gordailua da, beraz, interesak dirutan kobratu zein ondasun moduan jaso, PFEZan barneratu beharko dira. Trataera fiskalari dagokionez, gordailua kontratatzen den erakunde finantzarioa izango da, sortutako interesen gain zerga-tasaren eskalan dagokion ehunekoan PFEZ-aren aldeko atxikipena burutuko duena. Espezie moduan jasotako interesen kasuan, balorazio irizpide batzuen arabera burutuko da hauen balorazioa dagokion zerga-tasa aplikatu ahal izateko (Educación Financiera en la Red, Edufinet, 2016).

4.2.2. Inbertsio Funtsak

Inbertsio funts bat inbertsio kolektiboko erakunde bat da. Inbertsio kolektiboko erakunde baten helburua funtsak, ondasunak edota eskubideak bereganatzea da, hauek kudeatu eta aktiboetan inbertitzeko. Aktibo hauek, ondasun, eskubide, balore edo bestelako instrumentuak izan daitezke, bai finantzarioak zein ez-finantzarioak ere. Inbertsoreak lortuko duen errendimendua lortutako emaitza kolektiboaren arabera izango da.

Inbertsio funtsek ez dute izaera juridikorik, horregatik sozietate kudeatzaile baten beharra dute bere eskubide politiko eta ekonomikoak gauzatu ahal izateko. Gainera funtsaren baloreen administrazioaz eta gainbegiraketaz arduratzen den entitate gordailuzain bat ere badute. Funtsaren ondareari dagokionez, ezaugarri eta balio berdina duten partizipazioetan banatzen da, zeinen likidazio balioa egunero kalkulatu den. Aipatutako partizipazioak finantza-bitartekarien bidez erosiak edota salduak izan daitezke. Inbertsio funtsen funtzionamendua hobeto ulertzeko, hauen ezaugarri orokorrak (Educación Financiera en la Red, Edufinet, 2016) zeintzuk diren ikusiko ditugu:

- Inbertsio kolektiboko erakundeak direnez, balore eta aktibo finantzario zein ez-finantzarioetan inbertitzeko baliabideak bereganatzeko helburua dute. Gainera inbertsore bakoitzaren banakako errentagarritasuna funtsaren errentagarritasun kolektiboaren arabera izango da.
- Inbertsio kolektiboaren oinarriko printzipio bat funtsaren parte-hartzaile guztien berdintasuna da. Gerta daiteke funts baten barruan konpartimentu desberdinak egotea, inbertsio estrategia desberdinekin, partizipazio desberdinekin, eta baita sarrerarako baldintza, komisio eta gastu

³ **Kapital higigarriko errendimenduen** (KHE) zerga-tasa eskala baten arabera aplikatzen da. Eskala hau atal praktikoan ikusiko dugu.

desberdinekin. Kasu honetan, konpartimentu bakoitzaren barruan dauden parte-hartzaileek eskubide eta betebeharrak berdinak izango dituzte.

- Inbertsio kolektiboko erakundearen sozietate kudeatzaile batek ordezkatzen du funtsa, honek ez baitu izaera juridikorik. Sozietate kudeatzaile hauek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren (BMBN) baimena behar dute, eta ikuskaritza organoa den erakunde honen kontrolpean daude. Erakunde kudeatzaileen egitekoa funtsak burututako inbertsioen kudeaketa profesional eta independentea egitea da, momentu oro funtsaren parte-hartzaileen interesak babestuz.
- Funtsaren balore eta aktibo finantzarioak entitate gordailuzain baten pean daude, funtsaren efektiboa eta kartera kudeatzen duelarik. Entitate honek ere BMBN-aren baimena behar du jarduteko, eta derrigorrez gordailu erakunde (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatiba) bat izan beharko da edo balore-agentzia bat. Aipatutako administrazio funtzioaz gain, funtsaren kobru eta ordainketa guztiak bideratu beharko ditu.
- Funtsaren ondareari dagokionez, balio eta ezaugarri berdinak dituzte partizipazioetan zatitzen da. Partizipazioak erosten dituen inbertsoreak funtsaren parte-hartzaile bihurtuko da, eta gainontzeko parte-hartzaileen eskubide eta betebeharrak berdinak izango ditu, edo dagokion kasuan, bere konpartimentuaren barne dauden parte-hartzaileen berdinak.
- Partizipazioek ez dute balio nominal bat, baizik eta egunero likidazio balio bat esleitzen zaie. Balio hau kalkulatzeko funtsaren ondarearen guztizko balio garbia guztira jaulkitako partizipazio kopuruarekin zatitu egiten da. Likidazio balioa merkatuko balioetatik hartzen da, hau da, balio honek funtsaren kartera osatzen duten aktibo desberdinen prezioek jasaten dituzten aldaketak bere barne hartzen ditu.

Inbertsio funtsen ezaugarriak aztertzen jarraituz, finantza-produktu honek duen likidezari buruz hitz egingo dugu. Orokorrean likidezia duten instrumentuak dira, esan bezala egunero kalkulatu behar beren likidazio balioa. Modu honetan, nahi den unean partizipazio guztien edo batzuen salmenta eragiketa burutzeko aukera dago. Hala ere ezaugarri bereziak dituzten zenbait inbertsio funtsen kasuan, funts higiezin edo hedge funds-en kasuan besteak beste, araudiak likidezia txikiagoa ezartzea ahalbidetzen du. Gainera kontuan hartzekoa da, zenbait funtsen partizipazioak saltzearen kasuan komisio baten ordainketa egon daitekeela hitzartutako epeetatik kanpo burutzen bada (Educación Financiera en la Red, Edufinet, 2016).

Jarraian inbertsio funts mota desberdinen inguruan hitz egingo dugu. Inbertsio funtsen artean aniztasun ugari dago, inbertsio profil desberdinetara egokitzen den produktuak aurkitzen direlarik. Horiek horrela arriskuarekiko ezkorragoak diren inbertitzaileentzat zein baikorragoak diren inbertitzaileentzat egokia izan daitekeen

funts desberdinak aurkitzen ditugu. Gaur egungo legediaren arabera inbertsio funtsen sailkapena hauen inbertsioa egiteko moduaren arabera egiten da, hau da, inbertsio estrategia, inbertitzen den aktibo mota, erabiltzen den moneta, inbertitzen den gune geografikoa eta kudeaketa estiloa hartzen dira kontuan sailkapena egiterako orduan. Horiek horrela, honakoak dira inbertsio funts mota desberdinak: epe laburreko moneta-funtsak, moneta-funtsak, errenta finkoko funtsak, errenta aldakorrekoko funtsak, funts mistoak, kudeaketa pasiboa duten funtsak, itzulketa absolutua duten funtsak, errendimendu finkoko bermatutako funtsak, errendimendu aldakorrekoko bermatutako funtsak, berme partzialeko funtsak, eta funts globalak.

Orain bermatutako funtsetan (Educación Financiera en la Red, Edufinet, 2016) apur bat gehiago sakonduko dugu, hauek baitira gure aurrezkoa bermatu dezaketen funtsak, eta gainontzeko aurrezpeneko produktuekin alderatzeko egokienak direnak. Funts hauen ezaugarri garrantzitsuena beraz, hirugarren erakunde finantzario baten berme total edo partziala eskaintzen dutela da. Bermearen epemugan funtsaren likidazio balioa bermearen klausulan zehaztutako balioa baino baxuagoa den kasuetan sartuko da jokoan erakunde finantzario hau. Funts modalitate honen barruan bi funts mota bereizten dira:

- Errenta finkoko bermatutako funtsak: aurrez finkatutako epe batean zehar errentagarritasun zehatz bat bermatzen dute, hau da, bermea eskaintzen den epearen mugaegunean finkatzen da likidazio balioa.
- Errenta aldakorrekoko bermatutako funtsak: inbertitutako kapitala bermatuta egon ohi da, eta baita errendimendu gehigarri bat ere, zeina indize baten arabera den.

Bi mota hauek bereizten diren arren, bermatutako funts gehienak bermeari buruzko ezaugarri antzekoak dituzte. Alde batetik, bermea gauzatzeko baldintzak ditugu; bermea soilik honen epemugan gauzatu ahal izango da, beraz, bermearen epemuga baino lehen partizipazio guztiak edo batzuk saldu nahi badira, normalean ez da bermaturik egongo ez inbertitutako kapitala ezta errentagarritasun minimoa ere. Ondorioz, partizipazioen salmenta burutzen den uneko merkatu balioaren menpe egongo da berreskuratzen dugun zenbatekoa. Gainera errenboltso komisio bat ordaindu behar izatea gerta daiteke. Hala ere zenbait bermatutako funtsetan, "likidezia leihoak" deiturikoak aurreikusten dira. Hauek momentu zehatz batzuetan funtsen berreskurapena gauzatea ahalbidetzen dute, beti ere hitzartutako ohartarazpen epeak errespetatzen baldin badira. Kasu hauetan, errenboltso balioa une horretan zehazten den likidazioa izango da, errentagarritasun bermerik egongo ez delarik. Bestetik, bermearen mugaegunean dauden aukerak desberdinak ditugu; lehen aukera erakunde berme-emaelek berme berri bat eskaintzea izango litzateke. Kasu honetan parte-hartzaileak bere inbertsioa funtsean mantendu dezake ezarritako baldintza berrietan, edo bere inbertsioa berreskuratu dezake errenboltso komisiorik ordaindu gabe. Bigarren aukera berme berririk ez eskaintzea izango litzateke. Kasu honetan beraz, funtsa jada ez litzateke bermaturik egongo eta parte-hartzaileak bere partizipazioen errenboltsoa eskatu dezake inolako komisiorik gabe.

Berमतुतako funtsek eskaintzen duten bermeari dagokionez, bi berme mota bereizten dira, barneko bermea eta kanpoko bermea. Lehenengoaren kasuan, bermearen hartzailea inbertsio funtsa bera da, hau da, hirugarren entitate finantzario batek, bermearen epemugan, likidazioa balioa berमतुतako balioaren berdina izateko beharrezkoa den zenbatekoa ordaintzeko konpromisoa hartzen du. Bigarrenaren kasuan ordea, bermearen hartzailea parte-hartzailea da, hau da, likidazio datan parte-hartzaileak bere kontuan bermearen epemugako datan funtsak duen likidazio balioaren eta berमतुतako balioaren arteko diferentzia jasoko luke, diferentzia hori dagoen kasuan.

Berमतुतako inbertsio funtsen azalpenarekin amaitzeko hauen trataera fiskala aztertuko dugu era laburrean. Funtsek eskaintzen duten berme motaren arabera, aplikatzen zaien trataera fiskala ere desberdina izango da. Barneko bermearen kasuan, bermea parte-hartzaileak errenboltso unean jasoko duen zenbatekoaren barne egongo da, beraz, soilik errenboltsoaren unean ordainduko beharko ditu zergak. Kanpoko bermearen kasuan aldiz, bermearen zenbatekoa jasotzen duen ekitaldian bertan parte-hartzaileak zenbateko hori PFEZ-an barneratu beharko du, kapital higigarriko errendimendu bezala zergatuko delarik. Bermearen zenbatekoa beraz, dagokion ekitaldian barneratuko da, partizipazioen errenboltso unetik independentea baita (Educación Financiera en la Red, Edufinet, 2016).

Orain inbertsio funtsetan garrantzitsuak diren beste aspektu batzuk ikusiko ditugu, errentagarritasuna eta arriskua hain zuzen ere. Edozein inbertsiorekin gertatzen den moduan, errentagarritasuna eta arriskua noranzko berdinean mugitzen da, hau da, erlazio positiboa dago beraien artean. Horiek horrela errentagarritasun handiagoa lortu nahi den neurrian arrisku gehiago jasateko prest egon beharko gara, eta alderantziz, arriskua ahalik eta gehien murriztu nahi baldin badugu esperotako errentagarritasuna ere txikiagoa izango da.

Inbertsio funtsen arriskua gehien bat likidazio balioan ematen diren aldakuntzetatik eratortzen da. Aldakuntza hauek funtsaren kartera osatzen duten aktibo finantzarioen merkatu balioek jasandako aldaketen ondorioz gertatzen dira. Funtz baten arriskua handiagoa izango da jasaten dituen aldakuntzak handiagoak diren neurrian, funtsak epealdi zehatz batean zehar irabaziak zein galerak edukitzearen independente delarik. Inbertitzen duen merkatuen edo aktiboaren bilakaera ez bada esperotakoa, funtsak minusbalioak izan ditzake. Orokorrean, errenta aldakorrari arrisku gehiago atxikitzen zaio errenta finkoarekin alderatuz, eta aldi berean, errenta finkoa aktibo monetarioak baino arrisku gehiago dutela aurreikusten da (Educación Financiera en la Red, Edufinet, 2016).

Inbertsio funtsekin amaitzeko hauei aplikatzen zaion trataera fiskalari buruz hitz egitea besterik ez zaigu falta. Inbertsio funtsaren partizipazioak transmititu edo saltzearen kasuan, eskuratze balioaren eta eskualdatze balioaren arteko diferentzia izango da errenta aitorpenean barneratu beharrezkoa. Errenta hauek **ondarearen irabazitzat**⁴ hartuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ), dagokion zerga-tasa aplikatuko zaielarik. Funtz beraren partizipazioak balore homogeneousat hartzen dira, eta horren ondorioz, irabazia edo galera zein izan den zehazteko,

⁴ **Ondarearen irabaziei** (Ganancias patrimoniales) aplikatzen zaion zerga-tasa eskala baten arabera da. Eskala hau atal praktikoan ikusiko dugu.

transmititu edo saldutako partizipazioak parte-hartzaileak lehen eskuratutako partizipazioak direla kontsideratuko dira.

Inbertsio funtsen trataera fiskalaren inguruan aipatu beharreko beste gauza bat da, produktu hauentzat erregimen berezi bat dagoela zerga ordaintzetik at gelditzen den salbuespena zehazten duena. Erregimen horren arabera, pertsona fisikoek inbertsio funts baten partizipazioak saltzerakoan jasotako zenbatekoa beste inbertsio funts batean berrinbertitzen baldin badute, lortutako irabazia zergak ordaintzetik at geratuko litzateke. Pertsona juridikoen kasuan berriz, ezin da erregimen hau aplikatu hauek lortutako irabaziak Sozietateen gaineko Zergari lotuta baitaude.

Trataera fiskal berezia duten funts bakarrak bermatutako funtsak dira, zeinak trataera fiskal desberdina dute, lehen aipatu dugun moduan, eskaintzen duten bermearen (barnekoa edo kanpoko) arabera.

Era berean, inbertsio funtsak banatutako emaitzak ere PFEZ-an barneratu beharko dira, hau da, funtsak dibidenduak banatzearen kasuan, nahiz eta oso ohikoa ez izan, **kapital higigarriko errendimendutzat**⁵ hartuko dira PFEZ-aren aurrezpeneko oinarrian barneratuko direlarik (Educación Financiera en la Red, Edufinet, 2016).

⁵ **Kapital higigarriko errendimenduen** (KHE) zerga-tasa eskala baten arabera aplikatzen da. Eskala hau atal praktikokoan ikusiko dugu.

5. FINANTZA IKERKETA: PRODUKTUEN SIMULAZIOA

Lanaren atal honetan ikusi ditugun produktuen azterketa praktikoa landuko dugu, hau da, orain arte teorian ikusitakoa simulazioen bidez praktikara eramango dugu. Modu honetan, lanean zehar ikusitako produktuen alderaketa burutuko dugu, alderaketa burutzen dugunean produktuen trataera fiskal desberdinek paper garrantzitsua jokatzen dutela kontuan harturik. Hala ere, adibide praktikoekin hasi baino lehen, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) eskema sinplifikatu bat ikusiko dugu.

Irudia 1: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eskema laburra

Oinarri Zergagarri Orokorra (OZO)

- OZO atxikipenak

= Oinarri Likidagarri Orokorra (OLO)

Lan errendimenduei aplikatutako zerga eskala

= Kuota Osoa (KO)

- Kuota kenkariak

= Kuota Likidoa (KL)

Aurrezpeneko Oinarri Zergagarria (AOZ)

Ondare irabazi/Kapital Higigarriko Errendimenduen zerga eskala

Oinarri Zergagarri Orokorra

+ Aurrezpeneko Oinarri Zergagarria

= **Zerga Oinarria Guztira**

Iturria: Egileak berak egina

Errenta Aitorpena egiten dugunean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kalkulua egiteko zenbait pauso desberdin jarraitzen dira. Ogasun Publikoari ordaindu beharreko kuotaren kalkulua hasteko, oinarri zergagarri orokorra kalkulatu behar dugu. Zergadunak oinarri zergagarri orokorrean bere lan-jardueratik eratorritako etekinak (lanaren errendimenduak) barneratuko ditu, eta baita kapital higiezinetatik lortutako errendimenduak ere. Behin oinarri zergagarri orokorra kalkulatu, honi aplikatzen zaizkion atxikipenak kenduko dizkiogu. Atxikipen hauek honakoak dira: pentsio plan edo produktu antzekoetara egindako ekarpenak, beti ere, legean ezarritako mugak errespetatuz, eta baterako aitorpena egiten bada honi dagokion murrizketa. Modu honetan oinarri likidagarria lortzen da, eta lan errendimenduen zerga-tasen eskala aplikatzen zaio kuota osoa lortuz. Dagokion zerga-tasa behin aplikatuta, kuota gutxipenak dauden ikusi behar da, kuota likidoa kalkulatu ahal izateko.

Jarraian 2016 urtetik aurrera Errenta Aitorpenean aplikatuko den taula ikusiko dugu, beti ere Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) aplikatzen den zerga-tasen eskala desberdina dela kontutan izan behar dugularik. Gure adibideetan EAEko eskala erabiliko dugu, hau izango da jarraian ikusiko duguna:

Taula 6: Lan errendimenduei aplikatutako zerga-tasa EAEn (2016)

Atxikipena kalkulatzeko oinarria	Atxikipen kuota	Atxikipena kalkulatzeko gainerako oinarria	Zerga-tasa
0,00€-ra arte	0,00€	15.550€-ra arte	%23
15.550€-ra arte	3.576,50€	15.550€-ra arte	%28
31.100€-ra arte	7.930,50€	15.550€-ra arte	%35
46.650€-ra arte	13.373,00€	19.990€-ra arte	%40
64.640€-ra arte	21.369,00€	25.670€-ra arte	%45
92.310€-ra arte	32.920,50€	30.760€-ra arte	%46
123.070€-ra arte	47.070,10€	56.390€-ra arte	%47
179.460€-ra arte	73.573,40€	€-tik aurrera	%49

Iturria: Egileak berak egina, Gipuzkoako Foru Aldundiko ogasun departamentuko datuetan oinarrituta

Oinarri Zergagarri Orokorren (OZO) kalkuluak amaituta, Aurrezpeneko Oinarri Zergagarria (AOZ) kalkulatu da. Oinarri honen kalkuluan kapital higigarriko errendimenduak eta ondare irabaziak barneratzen dira. Bi errendimendu mota hauei aplikatzen zaien zerga-tasen eskala berdina da, eta lan errendimenduei aplikatzen zaionarekin alderatuz baxuagoa. Zerga-tasen eskalari dagokionez, berriro ere izan beharko dugu kontuan Espainiako eskala orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) aplikatzen dena desberdina dela. Guk ikusiko duguna EAEn 2016ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aplikatuko dena izango da, hau izango baita kasu praktikoetan erabiliko duguna.

Taula 7: Aurrezpeneko oinarriari aplikatzen zaion zerga-tasa EAEn (2016)

Oinarria	Kuota	Gainerako oinarria	Zerga-tasa
0,00€-ra arte	0,00€	2.500€-ra arte	%20
2.500€-ra arte	500€	7.500€-ra arte	%21
10.000€-ra arte	2.075€	5.000€-ra arte	%22
15.000€-ra arte	3.175€	15.000€-ra arte	%23
30.000€-ra arte	6.625€	€-tik aurrera	%25

Iturria: Egileak berak egina, Gipuzkoako Foru Aldundiko ogasun departamentuko datuetan oinarrituta

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin amaitzeko, zerga oinarri totala kalkulatu da, oinarri zergagarri orokorra eta aurrezpeneko oinarri zergagarria batuz.

Honi, dagozkion kenkariak (ondorengo ahaideengatik kenkaria, aurreko ahaideengatik kenkaria, adinagatik kenkaria, desgaitasunagatik kenkaria, mendetasunagatik kenkaria, ohiko etxebizitzari dagozkion kenkariak, etab.) aplikatzen zaizkio kuota diferentziala lortuz. Azken zenbateko hau izango da Ogasun Publikoari ordaindu/kobratu beharrekoa, kasuan kasu.

5.1. Aurrezpen produktuak: kasu praktikoak

Adibide praktikoekin erretiroari begira Gizarte Segurantzak eskaintzen duen erretiro pentsioaren osagarria izango den aurrezki bat eratzeko helburua duen gizabanako batek kontratatu ditzakeen aurrezpeneko produktu desberdinen artean egokiena zein den aztertuko dugu. Adibide praktikoetan alderaketa burutu ahal izateko, ez ditugu lanean zehar aipatutako produktu guztien simulazioa egingo, soilik nagusienak aztertuko ditugu. Hala ere, pertsonaren egoera ekonomikoak duen garrantzia dela eta, baldintza desberdinetan aurkitzen diren bi pertsona hartuko ditugu; bata populazioaren gehiengo bat ordezkatu dezakeen gizabanakoa izango da urteko diru-sarrera estandarrak dituen; bestea berriz, bizitza-maila altuagoa duen pertsona bat izango da. Modu honetan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak suposatzen duen zerga-zama fiskal progresiboaren eragina ikusi ahal izango dugu. Alderaketaren xehetasunekin jarraituz, aipatu beharreko datu garrantzitsu bat da, adibideetan erabiliko ditugun gizabanakoak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi direnak izango direla. Datu hau garrantzitsua da, esan bezala aplikatuko dugun zergatasen eskala bertakoa izango delako, eta baita produktuen ezaugarrietan azaldu dugun moduan, kapital moduan berreskurapena burutzerakoan %40ko abantaila fiskala ere mantentzen delako.

Kasu praktikoetan alderatuko ditugun produktuei dagokionez, pertsona bakoitzak produktu bakar bat kontratatuko du, eta aukera edozein izanda ere beren iraupena berdina izango da eta baita hauetara egiten diren ekarpen periodikoak ere. Modu honetan, berreskurapen unean alderatutako produktuen kapitala kalkulatu dugu dagokion interes-tasa erabiliko dugularik ekarpenen zenbatekoa eguneratzeko. Hala ere, kalkuluak errazteko ez dugu inflazioaren eragina barneratuko, batez ere honen bilakaera aurreikustea oso zaila delako. Produktuekin jarraituz, aukera egokiena zein den aztertuko dugu Pentsio Plan (PP) baten, Bermatutako Aurreikuspen Plan (BPP/PPA) baten eta Banakako Aurrezpen Sistematikoko Plan (BASP/PIAS) baten alderaketaren bidez. Alderaketarako erabiliko ditugun produktuen datuak honakoak izango dira:

Pentsio Plana	Bermatutako Aurreikuspena Plana	Banakako Aurrezpen Sistematikoko Plana
Interes-tasa %3,15	Interes-tasa bermatua %2	Interes-tasa bermatua %2
Iraupena 35 urte	Iraupena 35 urte	Iraupena 35 urte
Berreskurapena epemugan kapital/errenta moduan	Berreskurapena epemugan kapital/errenta moduan	Berreskurapena epemugan errenta moduan

Datu hauen zehaztapenerako, honako faktoreak hartu ditugu kontuan; iraupena zehazteko kontratatzailearen adina (30 urte) eta honek erretiroa hartuko duen adinaren (65 urte) arabera zehaztu dugu. Berreskurapenari dagokionez, kasu guztietan epemugan burutuko da, hau da, ez dugu alde aurreko berreskurapenik burutuko. Azkenik interes-tasaren zehaztapenari buruz hitz egingo dugu. Gutxi gora-beherazko interes-tasa zehazteko, gaur egun merkatuan eskaintzen diren produktuak apur bat aztertu ditugu, horretarako entitate finantzarioek eskaintzen duten informazioa begiratu dugularik. Hala ere, interes-tasaren finkapenarekin jarraitu baino lehen aipatu beharra dago, kalkuluak sinplifikatzearen interes-tasa ezaguna eta konstantea erabiliko dugula.

Produktuen datuen taulan ikusi dugun bezala, Pentsio Planean finkatutako interes-tasa %3,15ekoa da, eta Bermatutako Aurreikuspen Planaren eta Banakako Aurrezpen Sistematikoko Planaren kasuan, berriz, %2ko interes-tasa finkatu dugu. Finkapenerako jarraitu ditugun irizpideei dagokionez, alde batetik pentsio planari buruz hitz egin behar dugu, eta bestetik, bermatutako aurreikuspen planaren eta banakako aurrezpen sistematikoko planari buruz. Lehenengoaren kasuan, kontuan izan behar dugu funts batean atxikitua dagoela eta horren ondorioz ez duela errentagarritasun minimorik bermatzen. Suposatzen duen arriskua dela eta, beste bi produktuekin alderatuz interes-tasa altuagoa finkatu dugu. Tasaren zenbatekoaren finkapenerako entitate finantzariotik lortutako datuak erabili ditugu, zeinei esker pentsio plan batek bere iraupenean zehar lortutako batezbesteko errentagarritasuna lortu dugu. Hala ere, ez dugu ahaztu behar bere interes-tasa ezezaguna dela, funtsaren inbertsioen errentagarritasunaren araberakoa baita. Gainera batezbesteko errentagarritasuna lortzean ez dugu ahaztu behar iraupenean zehar funtsak edukitako errentagarritasunak gora-behera nabarmenak izan dituela, eta baita iraganeko errentagarritasunek ez dutela etorkizuneko errentagarritasunik bermatzen. Bermatutako aurreikuspen planari dagokionez, merkatuan %2 inguruko interes-tasa eskaintzen dela ikusi dugu, iraupena eta produktuaren ezaugarriaren arabera aldatu daitekeelarik. Hala ere, produktuaren iraupenean zehar interesa finkoa da, eta bermatuta dago zenbait baldintza bete behar direlarik. Azkenik esan, banakako aurrezpen sistematikoko planen eskaintzarik aurkitu ez dugula, eta horregatik Bermatutako Aurreikuspen Planaren berdina erabili dugula, biak aseguruaren antzera formalizatzen direlako, eta baita ere biak bermatuak direlako. Modu honetan, bi produktuen alderaketa erraztea lortuko dugu.

Lehenengo kasu praktikoa:

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi den eta aurten 30 urte dituen pertsona batek, bere erretiroari begira produktu bat kontratatu nahi du Gizarte Segurantzaren pentsioaren osagarri bat edukitzeko. Erretiroa 65 urterekin hartzea espero du, beraz, produktuaren iraupena 35 urtekoa izango da. Berreskurapenari dagokionez, 66 urterekin kobratuko du. Gaur egun bere hileko soldata gordina 1.400€-koa da. Soldata bost urte igarotzen diren bakoitzean %1,5 handituko dela suposatuko dugu.

Lehenago esan dugun moduan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, soldata lan errendimendu bezala barneratu egiten da oinarri zergagarri orokorrean. Kasu praktikoa honetan erabili dugun soldatarekin, urte guztietan eskalaren zerga-tasa

bera aplikatuko dugu. Hau garrantzitsua izango da, bigarren kasu praktikoarekin alderatzen dugunean. Produktu guztien kasuan, berreskurapena epemuga igaro ondoren burutuko da, hau da, ez dugu alde zuzeneko berreskurapenik egingo. Gainera, errenta moduan berreskurapena burutzen den kasuetarako 15 urteetan zehar egingo da, hau da, kontratatzaileak 80 urte bete arte errenta osagarria jasoko du.

Ekarpenei dagokionean, hileroko ekarpen periodikoak egingo ditu bere bizitzaren epealdi desberdinetan ekarpenen zenbatekoa aldatu egingo delarik. Bizitzaren zikloaren nondik norakoak direla eta, urteak pasa ahala bere egoera ekonomikoa ekarpen handiagoak egiteko aukera emango dio. Jarraian ekarpenen bilakaera azaltzen duen taula ikusiko dugu:

Urteak	Hileroko ekarpenak	Urteko ekarpenak
1etik 10era	55€	55 x 12 = 660€
11tik 20ra	70€	70 x 12 = 840€
21etik 30era	85€	85 x 12 = 1020€
31etik 35era	100€	100 x 12 = 1200€

Orain produktu desberdinen alderaketa burutzeari ekingo diogu. Produktuen azterketa garatzeko urrats desberdinak jarraituko ditugu. Aztertuko dugun lehen produktua **Pentsio Plana** izango da. Horretarako lehenengo urratsa, epemugan izango dugun kapitala kalkulatzeko izango da.

$$\sum_{u=1}^n a \cdot (1+i)^{n-t}$$

u: urteak
n: iraupena (35 urte)
t: ekarpena egiten den urtea
a: ekarpenaren zenbatekoa
i: interes-tasa

$$PP_{35} = 660 \cdot (1,0315)^{35} + \dots + 660 \cdot (1,0315)^{26} + \dots + 840 \cdot (1,0315)^{25} + \dots + 840 \cdot (1,0315)^{16} + \dots + 1020 \cdot (1,0315)^{15} + \dots + 1020 \cdot (1,0315)^6 + \dots + 1200 \cdot (1,0315)^5 + \dots + 1200 \cdot (1,0315)^1 = \mathbf{53.764,12€}$$

Jarraian Pentsio Planek eskaintzen duten abantaila fiskala zein den kalkulatu dugu. Esan bezala abantaila hau ekarpenak egiterako unean ematen da, hauek urteko oinarri zergagarri orokorra zuzenean murrizten baitute. Pentsio planaren iraupenean zehar lortuko dugun abantaila fiskala honakoa izango da:

$$\mathbf{Abantaila fiskala} = (660 \cdot 0,28) \cdot 10 + (840 \cdot 0,28) \cdot 10 + (1020 \cdot 0,28) \cdot 10 + (1200 \cdot 0,28) \cdot 5 = \mathbf{8.736€}$$

Falta zaigun azken urratsa berreskurapeneko trataera fiskala aztertzea da. Horretarako kapital moduan berreskuratzearen eta errenta moduan berreskuratzearen arteko diferentzia aztertuko dugu.

KAPITAL MODUAN: zenbatekoaren %40a zergak ordaintzetik at gelditzen da, eta gainontzeko %60a oinarri zergagarri orokorrean barneratu egiten da, lan-errendimenduen zerga-tasen eskala aplikatzen zaiolarik.

$$\mathbf{Zergatutako kapitala} = 53.764,12 \cdot 0,60 = \mathbf{32.258,47€}$$

Berreskurapena burutzen dugun urtean, urte horretan lortutako urteko soldatari berreskuratutako kapitala gehitu behar diogu. Kontuan izan beharko dugu, berreskuratutako kapitalaren ondorioz, urteko diru sarrerak asko handitzen direla, urte horretan aplikatzen dugun zerga-tasa desberdina izango delarik.

$$\text{Oinarri zergagarri orokorra}_{36} = (1.553,78 \cdot 14) + 32.258,47 = \mathbf{54.011,39\text{€}}$$

Lan errendimenduen zerga-tasa aplikatuz ordaindu beharrekoa = 16.317,55€

Berreskurapena burutuko ez bagenu ordaindu beharrekoa = 5.313,32€

Berreskuratutako kapitalari dagokion zenbatekoa = **11.004,23€**

Pentsio plana kontratatu eta epemugan kapital moduan berreskurapena burutuz gero lortuko dugun etekina zein den kalkulatu dugu orain. Horretarako diru hori inbertitu beharrean errentagarritasunik ematen ez duen kontu korrante batean edukitzearekin alderatuko dugu.

Kapitala $i/t=0\%$ kalkulatu dugu ekarpenen zenbatekoa besterik gabe batuz, 31.200€.

Mozkinak= errentagarritasuna [kapitala %3,15 – kapitala %0] + abantaila fiskala – berreskurapen unean ordaindu beharreko zerga

$$\text{Mozkinak}_{PP\text{ KAPITAL}} = (53.764,12 - 31.200) + 8.736 - 11.004,23 = \mathbf{20.295,89\text{€}}$$

ERRENTA MODUAN: berreskurapena 15 urteetan zehar egingo dugu, urtero jasotzen den zenbatekoa oinarri zergagarri orokorrean baneratu eta lan-errendimenduen zerga-tasa aplikatu dugarik.

Berreskurapena= $53.764,12/15 = 3.584,27\text{€/urtean}$ (256,02€/hilean, 14 paga)

Berreskurapenagatiko zerga zama= $(3.584,27 \cdot 0,28) \cdot 15 = \mathbf{15.053,93\text{€}}$

$$\text{Mozkinak}_{PP\text{ ERRENTA}} = (53.764,12 - 31.200) + 8.736 - 15.053,93 = \mathbf{16.246,19\text{€}}$$

Ikusi dezakegunez, Euskal Autonomia Erkidegoan kapital moduan berreskuratzean %40ko abantaila fiskala mantentzeak eragin handia du. Kasu honetan, nahiz eta kapital moduan zerga-tasen eskalan mugitu egiten garen, errentagarriagoa suertatzen zaigu berreskurapen modu hau aukeratzea.

Aztertuko dugun bigarren produktua **bermatutako aurreikuspen plana** da. Produktu honen trataera fiskala pentsio planaren berdina da, beraz, egingo ditugun kalkulu guztiak berdinak izango dira, baina, interes-tasa baxuago batekin. Horiek horrela, epemugan izango dugun kapitalaren kalkulua burutuko dugu:

$$\text{PPA}_{35} = 660 \cdot (1,02)^{35} + \dots + 660 \cdot (1,02)^{26} + \dots + 840 \cdot (1,02)^{25} + \dots + 840 \cdot (1,02)^{16} + \dots + 1020 \cdot (1,02)^{15} + \dots + 1020 \cdot (1,02)^6 + \dots + 1200 \cdot (1,02)^5 + \dots + 1200 \cdot (1,02)^1 = \mathbf{43.667,58\text{€}}$$

Jarraian ekarpenen ondorioz Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan lortuko genukeen aurrezki fiskala edo abantaila fiskala kalkulatu dugu.

$$\text{Abantaila fiskala} = (660.0,28) \cdot 10 + (840.0,28) \cdot 10 + (1020.0,28) \cdot 10 + (1200.0,28) \cdot 5 = \mathbf{8.736\text{€}}$$

Azkenik berreskurapen unean jasango dugun trataera fiskalaren nondik norakoak ikusiko ditugu, berriro ere, kapital moduan berreskuratzearen eta errenta moduan berreskuratzearen arteko diferentzia ikusiko dugularik. Atal hau pentsio planaren berdina izango da.

KAPITAL MODUAN: zenbatekoaren %40a zergak ordaintzetik at gelditzen da, eta gainontzeko %60a oinarri zergagarri orokorrean barneratu egiten da, lan-errendimenduen zerga-tasa aplikatzen zaiolarik.

$$\text{Zergatutako kapitala} = 43.667,58 \cdot 0,60 = \mathbf{26.200,55\text{€}}$$

Berreskurapena burutzen dugun urtean, urte horretan lortutako urteko soldatari berreskuratutako kapitala gehitu behar diogu eta dagokion zerga-tasa aplikatu.

$$\text{Oinarri zergagarri orokorra}_{36} = (1.553,78 \cdot 14) + 26.200,55 = \mathbf{47.952,92\text{€}}$$

Lan errendimenduen zerga-tasa aplikatuz ordaindu beharrekoa = 13.894,17€

Berreskurapena burutuko ez bagenu ordaindu beharrekoa = 5.313,32€

Berreskuratutako kapitalari dagokion zerga zama = 8.580,85€

Berमतutako aurreikuspen plana kontratatu eta epemugan kapital moduan berreskurapena burutuz gero lortuko dugun etekina zein den kalkulatu dugu orain:

Kapitala $i/t = \%0$ kalkulatu dugu ekarpenen zenbatekoa besterik gabe batuz, 31.200€.

Mozkinak = errentagarritasuna [kapitala %2 – kapitala %0] + abantaila fiskala – berreskurapen unean ordaindu beharreko zerga

$$\text{Mozkinak}_{\text{PPA KAPITAL}} = (43.667,58 - 31.200) + 8.736 - 8.580,85 = \mathbf{12.622,73\text{€}}$$

ERRENTA MODUAN: berreskurapena 15 urteetan zehar egingo dugu, urtero jasotzen den zenbatekoa oinarri zergagarri orokorrean barneratu eta lan-errendimenduen zerga-tasa aplikatuko dugularik.

Berreskurapena = $43.667,58 / 15 = 2.911,17\text{€}/\text{urtean}$ (207,94€/hilean, 14 paga)

Berreskurapenagatiko zerga zama = $(2.911,17 \cdot 0,28) \cdot 15 = \mathbf{12.226,91\text{€}}$

$$\text{Mozkinak}_{\text{PPA ERRENTA}} = (43.667,58 - 31.200) + 8.736 - 12.226,91 = \mathbf{8.976,67\text{€}}$$

Berriro ere, EAEn mantentzen den %40ko abantaila fiskalaren eragina ikusten dugu, kapital moduan berreskuratzerakoan lortzen dugun errentagarritasuna errenta moduan berreskuratzean lortutakoarekin alderatuta.

Lehen kasu praktiko honekin amaitzeko, hirugarren eta azken produktuaren azterketa burutuko dugu, **banakako aurrezpen sistematikoko plana** hain zuzen ere. Produktu honen azterketarako urrats berdinak jarraituko ditugun arren, bere trataera fiskala desberdina dela izan beharko dugu kontutan.

Lehenengo urratsari dagokionez, epemugan metaturik izango dugun kapital zenbatekoa kalkulatu dugu. Kasu honetan bermatutako aurreikuspen planaren berdina izango da, bermatutako interes-tasa berdina baita.

$$PIAS_{35} = 660 \cdot (1,02)^{35} + \dots + 660 \cdot (1,02)^{26} + \dots + 840 \cdot (1,02)^{25} + \dots + 840 \cdot (1,02)^{16} + \dots + 1020 \cdot (1,02)^{15} + \dots + 1020 \cdot (1,02)^6 + \dots + 1200 \cdot (1,02)^5 + \dots + 1200 \cdot (1,02)^1 = \mathbf{43.667,58\text{€}}$$

Ekarpenak egiterako unean lortutako abantaila fiskalari dagokionez, ez du abantailarik. Lanean zehar ikusi dugun moduan, produktu honek eskaintzen duen abantaila fiskala berreskurapen unean ematen da. Beraz, orain berreskurapenean jasango dugun trataera fiskala aztertuko dugu. Produktu honen kasuan soilik errenta moduan berreskuratzeko aukera dugu, guztia epemuga baino lehen berreskuratzen dugunean abantaila fiskala galtzen dugulako.

Aurreko produktuekin egin dugun moduan, berreskurapena 15 urteetan zehar jasoko dugun errenta moduan burutuko dugu. Hala ere, aurreko bi produktuekin desberdintasun nabarmen bat du; berreskuratutako zenbatekoa ez da oinarri zergagarri orokorrean barneratzen, aurrezpeneko oinarrian baizik. Modu honetan, urtero kobratzen dugun zenbatekoari aplikatu beharreko zerga-tasa kapital higigarriko errendimenduei aplikatzen zaien zerga-tasa izango da.

$$\mathbf{Berreskurapena} = 43.667,58 / 15 = 2.911,17\text{€/urtean} \quad (207,94\text{€/hilean}, 14 \text{ paga}).$$

Esan bezala, berreskurapena 66 urterekin burutuko du, momentu honetan jasoko duelarik lehen errenta. Produktu honen abantaila fiskala, adinaren arabera zerga-tasa murriztean datza. Horiek horrela, aplikatuko ditugun zerga-tasak honakoak izango dira:

$$\mathbf{66-69 urte:} \quad [(2.500 \cdot 0,2) + (411,17 \cdot 0,21)] \cdot 0,2 = 117,27\text{€/urtean}$$

$$\mathbf{> 70 urte:} \quad [(2.500 \cdot 0,2) + (411,17 \cdot 0,21)] \cdot 0,08 = 46,91\text{€/urtean}$$

$$\mathbf{Berreskurapenagatiko zerga zama} = (117,27 \cdot 4) + (46,91 \cdot 11) = 985,09\text{€}$$

$$\text{Adinagatiko abantaila fiskalik gabe} = [(2.500 \cdot 0,2) + (411,17 \cdot 0,21)] \cdot 15 = 8.795,18\text{€}$$

$$\text{Adinagatiko abantailagatik diferentzia} = 7.810,10\text{€}$$

Azkenik banakako aurrezpen sistematikoko plana kontratatzearen ondorioz lortuko dugun etekina zein den kalkulatu dugu:

$$\text{Kapitala } i/t = \%0 \text{ kalkulatu dugu ekarpenen zenbatekoa besterik gabe batuz, } 31.200\text{€}.$$

Mozkinak = errentagarritasuna [kapitala %2 – kapitala %0] – berreskurapen unean ordaindu beharreko zerga

$$\mathbf{Mozkinak}_{PIAS} = (43.667,58 - 31.200) - 985,09 = \mathbf{11.482,49\text{€}}$$

Bigarren kasu praktikoa:

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den eta aurten 30 urte dituen pertsona batek bere erretiroari begira produktu bat kontratatu nahi du, Gizarte Segurantzaren pentsioaren osagarri bat edukitzeko. Erretiroa 65 urterekin hartzea espero du, beraz, produktuaren iraupena 35 urtekoa izango da. Lehenago aipatu dugun bezala, bigarren adibide honetako gizabanakoaren bizitza-maila altuagoa izango da, beraz, egun bere hileko soldata gordina 2.700€-koa da. Soldata bost urte igarotzen diren bakoitzean %1,5 handituko dela suposatuko dugu.

Dakigunez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, soldata lan errendimendu bezala barneratu egiten da oinarri zergagarri orokorrean. Bigarren kasu praktikoa honetan erabili dugun soldatarekin, kontuz ibili beharko gara eskalaren zerga-tasa egokia aplikatzeko. Hau garrantzitsua izango da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zama progresiboa ikusi ahal izateko. Produktu guztien kasuan, berreskurapena epemuga igarota burutuko da, hau da, ez dugu alde zuzeneko berreskurapenik egingo. Gainera, errenta moduan berreskurapena burutzen den kasuetarako 15 urteetan zehar egingo da, hau da, kontratatzaileak 80 urte bete arte errenta osagarria jasoko du.

Ekarpenei dagokionean, hileroko ekarpen periodikoak egingo ditu bere bizitzaren epealdi desberdinetan ekarpenen zenbatekoa aldatu egingo delarik. Bizitzaren zikloaren nondik norakoak direla eta, urteak pasa ahala bere egoera ekonomikoa ekarpen handiagoak egiteko aukera emango dio. Aurreko kasu praktikoarekin alderatuta, ekarpenen zenbatekoa handiagoa da eta baita hauen hazkundera ere. Jarraian ekarpenen bilakaera azaltzen duen taula ikusiko dugu:

Urteak	Hileroko ekarpenak	Urteko ekarpenak
1etik 10era	85€	85 x 12 = 1020€
11tik 20ra	115€	115 x 12 = 1380€
21etik 30era	145€	145 x 12 = 1740€
31etik 35era	170€	170 x 12 = 2040€

Aurreko kasu praktikoa egin dugun moduan, **pentsio planaren** azterketarekin hasiko gara. Lehen urratsa beraz, epemugan metaturik edukiko dugun kapitalaren zenbatekoa kalkulatzeko izango da.

$$\sum_{u=1}^n a \cdot (1+i)^{n-t}$$

u: urteak
n: iraupena (35 urte)
t: ekarpena egiten den urtea
a: ekarpenaren zenbatekoa
i: interes-tasa

$$PP_{35} = 1020 \cdot (1,0315)^{35} + \dots + 1020 \cdot (1,0315)^{26} + \dots + 1380 \cdot (1,0315)^{25} + \dots + 1380 \cdot (1,0315)^{16} + \dots + 1740 \cdot (1,0315)^{15} + \dots + 1740 \cdot (1,0315)^6 + \dots + 2040 \cdot (1,0315)^5 + \dots + 2040 \cdot (1,0315)^1 = \mathbf{87.935,19€}$$

Pentsio planaren azterketarako bigarren urratsa, honek eskaintzen duen abantaila fiskala zein den kalkulatzeko izango da. Horiek horrela, ekarpenak egiterakoan urtez urte lortuko dugun abantaila fiskala honakoa izango da:

$$\mathbf{A. fiskala} = (1020.0,35).10 + (1380.0,35).10 + (1740.0,35).10 + (2040.0,35).5 = \mathbf{18.060\text{€}}$$

Hirugarren eta azken urratsa berreskurapena burutu eta dagokion trataera fiskala aplikatzea izango da. Aurreko kasuan bezala, kapital moduan berreskuratzearen eta errenta moduan berreskuratzearen arteko diferentzia aztertuko dugu.

KAPITAL MODUAN: zenbatekoaren %40a zergak ordaintzetik at gelditzen da, eta gainontzeko %60a oinarri zergagarri orokorrean barneratu egiten da, lan-errendimenduen zerga-tasa aplikatzen zaiolarik.

$$\mathbf{Zergatutako kapitala} = 87.935,19 \cdot 0,60 = \mathbf{52.761,11\text{€}}$$

Berreskurapena burutzen dugun urtean, urte horretan lortutako urteko soldatari berreskuratutako kapitala gehitu behar diogu eta dagokion zerga-tasa aplikatu.

$$\mathbf{Oinarri zergagarri orokorra}_{36} = (2.996,58 \cdot 14) + 52.761,11 = \mathbf{94.713,23\text{€}}$$

Lan errendimenduen zerga-tasa aplikatuz ordaindu beharrekoa = 34.025,98€

Berreskurapena burutuko ez bagenu ordaindu beharrekoa = 11.728,74€

Berreskuratutako kapitalari dagokion zerga zama = 22.297,24€

Pentsio plana kontratatu eta epemugan kapital moduan berreskurapena burutuz gero lortuko dugun etekina zein den kalkulatu dugu orain. Lehen kasu praktikoan egin dugun moduan, produkturik ez kontratatu eta dirua errentagarritasunik ematen ez duen kontu korrante batean edukitzean lortuko genukeen aurrezkiarekin alderatuko dugu.

Kapitala $i/t = \%0$ kalkulatu dugu ekarpenen zenbatekoa besterik gabe batuz, 51.600€.

Mozkinak = errentagarritasuna [kapitala %3,15 – kapitala %0] + abantaila fiskala – berreskurapen uean ordaindu beharreko zerga

$$\mathbf{Mozkinak}_{PP\text{ KAPITAL}} = (84.915,08 - 51.600) + 18.060 - 21.463,70 = \mathbf{32.097,95\text{€}}$$

ERRENTA MODUAN: berreskurapena 15 urteetan zehar egingo dugu, urtero jasotzen den zenbatekoa oinarri zergagarri orokorrean barneratu eta lan-errendimenduen zerga-tasa aplikatuko dugularik. Kasu honetan kontuan izan behar dugu, errenta jasotzerakoan eskalaren beste zerga-tasa batera igarotzen garela.

$$\mathbf{Berreskurapena} = 87.935,19/15 = 5.862,35\text{€/urtean} \text{ (418,74€/hilean, 14 paga)}$$

$$\mathbf{Zergatutako Kapitala} = (2.996,58 \cdot 14) + 5.862,35 = 47.814,47\text{€}$$

Lan errendimenduen zerga-tasa aplikatuz ordaindu beharrekoa = 13.838,74€

Berreskurapena burutuko ez bagenu ordaindu beharrekoa = 11.728,74€

Berreskurapena burutzeagatik zerga zama totala = 2.110,00 . 15 = 31.650,00€

Mozkinak $PP_{ERRENTA} = (87.935,19 - 51.600) + 18.060 - 31.650,00 = 22.745,19€$

Aurreko kasu praktikoan ikusi dugun moduan, EAEn kapital moduan berreskuratzerako orduan %40a zergak ordaintzetik at egotearen eragina nabarmena da. Horregatik, aurrezki fiskal hori dela medio, errentagarritasun handiagoa lortzen dugu kapital modua aukeratuz gero.

Orain **bermatutako aurreikuspen planaren** azterketari ekingo diogu. Produktu honen azterketa burutzeko pentsio planean jarraitutako urrats berdina jarraituko ditugu. Beraz, egingo dugun lehenengo gauza dagokion interes-tasa erabiliz epemugan izango dugun kapitalaren kalkulua burutzea izango da.

$PPA_{35} = 1020 \cdot (1,02)^{35} + \dots + 1020 \cdot (1,02)^{26} + \dots + 1380 \cdot (1,02)^{25} + \dots + 1380 \cdot (1,02)^{16} + \dots + 1740 \cdot (1,02)^{15} + \dots + 1740 \cdot (1,02)^6 + \dots + 2040 \cdot (1,02)^5 + \dots + 2040 \cdot (1,02)^1 = 71.718,36€$

Bigarren urratsarekin jarraituz, berrmatutako aurreikuspen planak eskaintzen duen abantaila fiskala zein den kalkulatuko dugu. Horretarako urte bakoitzean egindako ekarpenagatik oinarri zergagarri orokorra murrizten den zenbatekoari dagokion zerga zamaren aurrezki kalkulatuko dugu. Kasu honetan pentsio planaren berdina izango da:

A. fiskala = $(1020 \cdot 0,35) \cdot 10 + (1380 \cdot 0,35) \cdot 10 + (1740 \cdot 0,35) \cdot 10 + (2040 \cdot 0,35) \cdot 5 = 18.060€$

Azkenik berreskurapena burutzean jasango dugun trataera fiskala aztertuko dugu. Aurreko kasuan bezala, kapital moduan berreskuratzearen eta errenta moduan berreskuratzearen arteko diferentzia aztertuko dugu.

KAPITAL MODUAN: zenbatekoaren %40a zergak ordaintzetik at gelditzen da, eta gainontzeko %60a oinarri zergagarri orokorrean barneratu egiten da, lan-errendimenduen zerga-tasa aplikatzen zaiolarik.

Zergatutako kapitala = $71.718,36 \cdot 0,60 = 43.031,02€$

Berreskurapena burutzen dugun urtean, urte horretan lortutako urteko soldatari berreskuratutako kapitala gehitu behar diogu eta dagokion zerga-tasa aplikatu.

Oinarri zergagarri orokorra $_{36} = (2.996,58 \cdot 14) + 43.031,02 = 84.983,14€$

Lan errendimenduen zerga-tasa aplikatuz ordaindu beharrekoa = 30.523,41€

Berreskurapena burutuko ez bagenu ordaindu beharrekoa = 11.728,74€

Berreskurapeneko kapitalari dagokion zerga zama = 18.794,67€

Orain, berrmatutako aurreikuspen planaren berreskurapena kapital moduan burutzeagatik lortuko dugun etekina zein den kalkulatuko dugu. Aurreko kasu

praktikoan egin dugun moduan, diru inolako produktuan inbertituko ez bagenu lortuko genukeen aurrezkiarekin alderatuko dugularik.

Kapitala $i/t=0\%$ kalkulatu dugu ekarpenen zenbatekoa besterik gabe batuz, 51.600€.

Mozkinak= errentagarritasuna [kapitala %2 – kapitala %0] + abantaila fiskala – berreskurapen unean ordaindu beharreko zerga

$$\text{Mozkinak}_{PP \text{ KAPITAL}} = (71.718,36 - 51.600) + 18.060 - 18.794,67 = \mathbf{19.383,69€}$$

ERRENTA MODUAN: berreskurapena 15 urteetan zehar egingo dugu, urtero jasotzen den zenbatekoa oinarri zergagarri orokorrean baneratu eta lan-errendimenduen zerga-tasa aplikatuko dugularik. Kasu honetan kontuan izan behar dugu, errenta jasotzerakoan eskalaren beste zerga-tasa batera igarotzen garela.

$$\text{Berreskurapena} = 71.718,36/15 = 4.781,22€/urtean (341,52€/hilean, 14 paga)$$

$$\text{Zergatutako Kapitala} = (2.996,58 \cdot 14) + 4.781,22 = 46.733,34€$$

$$\text{Lan errendimenduen zerga-tasa aplikatuz ordaindu beharrekoa} = 13.706,36€$$

$$\text{Berreskurapena burutuko ez bagenu ordaindu beharrekoa} = 11.728,74€$$

$$\text{Berreskurapena burutzeagatik zerga zama totala} = 1.977,62 \cdot 15 = 29.664,30€$$

$$\text{Mozkinak}_{PP \text{ ERRENTA}} = (71.718,36 - 51.600) + 18.060 - 29.664,30 = \mathbf{8.514,06€}$$

Kapital moduan berreskuratzerakoan lortzen dugun etekina nabarmen handiagoa da, EAE mantentzen den abantaila fiskalari esker. Zergaren progresibotasuna dela eta, kasu praktiko honetan bi berreskurapen moduen artean dagoen aldea handiagoa dela ikusten dugu.

Bigarren kasu praktiko honekin amaitzeko **banakako aurrezpen sistematikoko plana** aztertzea besterik ez zaigu falta. Bere azterketarako epemugako kapitalaren zenbatekoa kalkulatu hasiko gara. Kasu honetan bermatutako aurreikuspen planaren kopuru berdina izango da, erabilitako interes-tasa berdina baita.

$$\text{PIAS}_{35} = 1020 \cdot (1,02)^{35} + \dots + 1020 \cdot (1,02)^{26} + \dots + 1380 \cdot (1,02)^{25} + \dots + 1380 \cdot (1,02)^{16} + \dots + 1740 \cdot (1,02)^{15} + \dots + 1740 \cdot (1,02)^6 + \dots + 2040 \cdot (1,02)^5 + \dots + 2040 \cdot (1,02)^1 = \mathbf{71.718,36€}$$

Dakigunez, produktu honek ez ditu biziarteko errentaren eraketan zehar abantaila fiskalik eskaintzen, baizik eta errenta jasotzen hasten garenean. Horiek horrela berreskurapeneko trataera fiskalaren azterketarekin hasiko gara. Esan bezala, berreskurapena 15 urteetan zehar jasoko dugun errenta moduan burutuko dugu. Hala ere, ez dugu ahaztu behar jasotako errenta ez dela lan errendimendutzat hartzen, baizik eta kapital higitarriko errendimendu bezala.

$$\text{Berreskurapena} = 71.718,36/15 = 4.781,22€/urtean (341,52€/hilean, 14 paga).$$

Gainera adinagatiko zergaren murrizketa kontuan izan behar dugu, hau baita bere abantaila fiskala. Horiek horrela berreskurapena 66 urterekin hasten bada, aplikatu beharreko zerga-tasak honakoak izango dira:

$$66-69 \text{ urte: } [(2.500 \cdot 0,2) + (2.281,22 \cdot 0,21)] \cdot 0,2 = 195,81\text{€/urtean}$$

$$> 70 \text{ urte: } [(2.500 \cdot 0,2) + (2.281,22 \cdot 0,21)] \cdot 0,08 = 78,32\text{€/urtean}$$

$$\text{Berreskurapenagatiko zerga zama} = (195,81 \cdot 4) + (78,32 \cdot 11) = 1.644,76\text{€}$$

$$\text{Adinagatiko abantaila fiskalik gabe} = [(2.500 \cdot 0,2) + (2.281,22 \cdot 0,21)] \cdot 15 = 14.685,84\text{€}$$

$$\text{Adinagatiko abantailagatik diferentzia} = 13.041,08\text{€}$$

Azkenik banakako aurrezpen sistematikoko plana kontratatzearen ondorioz lortuko dugun etekina zein den kalkulatu dugu:

Kapitala i/t=%0 kalkulatu dugu ekarpenen zenbatekoa besterik gabe batuz, 51.600€.

Mozkinak = errentagarritasuna [kapitala %2 – kapitala %0] – berreskurapen unean ordaindu beharreko zerga

$$\text{Mozkinak}_{PIAS} = (71.718,36 - 51.600) - 1.644,76 = 18.473,60\text{€}$$

5.2. Aurrezpen produktuen alderaketa

Produktuen alderaketarekin hasi baino lehen, aurreko atalean lortutako emaitzak laburbiltzen dituen taula ikusiko dugu:

PRODUKTUAK	1 KASU PRAKTIKOA (errenta estandarra)		2 KASU PRAKTIKOA (errenta estandarren ginetik)	
	Mozkinak (€)	Zerga zama (%)	Mozkinak (€)	Zerga zama (%)
PP KAPITAL	20.295,89€	%4,22 (*)	32.097,95€	%4,82 (*)
PP ERRENTA	16.246,19€	%11,75	22.745,19€	%15,45
PPA KAPITAL	12.622,73€	%0,35 irabazi (*)	19.383,69€	%1,02 (*)
PPA ERRENTA	8.976,67€	%7,99	8.514,06€	%16,18
PIAS	11.482,49€	%2,25	18.473,60€	%2,29

Mozkinak = [kap % prod i/t – kap i/t %0] + Ab. fiskala – berreskurapeneko zerga

Zerga zama (%) = berreskurapenean ordaindutako zerga eta aurrezki fiskalaren arteko diferentziaren zenbatekoak berreskuratutako kapital osoarekiko suposatzen duen ehunekoa

Praktikan ikusi ditugun hiru produktuen artean alderaketa burutu baino lehen, lortutako emaitzez gain kontratatzailearen ezaugarriak ere hartu behar ditugu kontuan. Ildo honetatik jarraituz, aipatu beharra dago Pentsio Plana eta Bermatutako Aurreikuspen planaren artean dagoen desberdintasuna arriskuan dagoela. Esan bezala, lehenengoak ez du errentagarritasun minimorik bermatzen azken finean funts bati loturik baitago. Hala ere, errentagarritasuna alde batera utzita, bi produktuek estaltzen dituzten kontingentziak eta produktuaren helburua bera, berdinak direla ikus dezakegu eta baita hauen trataera fiskala ere. Horiek horrela, bi produktu hauek arrisku profil desberdina duten pertsonen zuzentzen direla ondorioztatu dezakegu, beraz, gure adibide praktikoetan gizabanako bakoitza bere profilaren arabera bat edo beste aukeratuko luke.

Arriskuarekiko baikorragoa den pertsona batek pentsio plana aukeratuko luke, jasandako arriskuaren truke lortu dezakeen errentagarritasuna handiagoa baita. Arriskuarekiko ezkorragoa den pertsona batek aldiz, bermatutako aurreikuspen plana aukeratuko luke errentagarritasun txikiagoa lortu arren, irabazia ziurra izango delako. Gure kasu praktikoetan ikusi dugunez, diru zenbateko berdina inbertitzerakoan pentsio plana kontratatuz gero, bermatutako aurreikuspen planarekin baino irabazi handiagoa lortu dugu. Hala ere, ez dugu ahaztu behar, finantza aktiboen bilakaera ezezaguna dela eta lortu genezakeen errentagarritasuna txikiagoa izatea, edota errentagarritasunik ere ez lortzea gerta litekeela, pentsio plana kontratatzearen kasuan.

Bi produktuen artean erabakia arrisku profilaren menpekoea dela ikusita kasuan kasu, bata edo beste aukeratuko genuke. Orain gelditzen zaigun beste produktuarekin alderaketa jarraitu ahal izateko, arriskurik jasan nahi ez duen pertsona baten ikuspuntutik jarraituko dugu, horrela bermatutako aurreikuspen planaren eta banakako aurrezpen sistematikoko planaren arteko alderaketa burutuko dugularik.

Bi produktuen artean dagoen desberdintasun nagusia beren trataera fiskala da. Bermatutako aurreikuspen plana PFEZ-ren oinarri zergagarri orokorrari lotuta dago eta beraz, lan errendimenduen trataera aplikatzen zaio. Banakako aurrezpen sistematikoko plana berriz, PFEZ-ren aurrezpeneko oinarri zergagarrian barneratzen da, beraz, kapital higigarriko errendimendutzat hartzen da. Zerga zamaren aldetik diferentzia handia suposatzen du, lan errendimenduen zerga-tasen eskala kapital higigarriko errendimenduen eskala baino tasa altuagoak dituelako. Gainera, lan errendimenduen kasuan, diru sarrerak handiagoak diren neurrian zerga zama ere handitu egiten da.

Aipatu bezala, kontratatzen dugun produktua edozein izanda ere, bertara egindako ekarpenak berdinak izango dira, beraz, inbertitutako kapitala berdina izanda mozkin handiena ematen digun produktua kontratatuko genuke, beti ere, gure ezaugarri eta egoerara moldatzen baldin bada. Gure kasu praktikoetan lortutako emaitzak aztertzen baditugu, errenta edozein izanda ere, honako egoera eman da:

PPA KAPITAL > PIAS > PPA ERRENTA

Ikusten dugunez, gure adibide praktikoetan berreskurapen modalitatea eragin nabarmena suposatzen du. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den pertsona bat erabili

dugunez, Bermatutako Aurreikuspen Planaren kasuan kapital moduan berreskurapena burutzeagatiko abantaila fiskala mantentzen da, hau da, berreskuratutako kapitalaren %40a zergak ordaintzetik at gelditzen da. Abantaila honen ondorioz, gure errenta edozein izanda ere, komenigarriena bermatutako aurreikuspen plana kontratatu eta kapital moduan berreskuratzea izango litzateke. Hala ere, azterketan apur bat gehiago sakonduko dugu, beste egoera desberdin batean aurkitzen den pertsona batek kontuan hartu beharreko puntu batzuk ikusteko.

Lehendabizi errenta estandarra duen gizabanako baten kasua aztertuko dugu. EAEn bizi bada, kapitaleko abantaila fiskala aprobeztatzea izango litzateke aukerarik onena gorago aipatu dugun moduan. Baina Espainiako beste lurralde batean biziz gero, kapital moduan berreskuratzeak suposatuko lukeen zerga zama handiagoa izanik, ziurrenik irabazi gehiago lortuko luke errenta moduan berreskuratuz gero, eta ondorioz, aukerarik onena banakako aurrezpen sistematikoko plana kontratatzea izango litzateke, honekin hare irabazi handiagoa lortuko lukeelarik.

Errenta estandarra baino altuagoa duen pertsona baten kasuan, kontuan izan behar dugu eskalaren zerga-tasa altuagoa aplikatzen dugula. EAEn bizi ez den pertsona batek bermatutako aurreikuspen plana kontratatuz gero, kapital moduan berreskuratzeak ekitaldi bakar batean suposatzen duen zerga zama asko handitzea ekarri dezake. Hala ere, kasuan kasu azertu beharko litzateke berreskurapen modaliterik egokiena zein izango litzateke. Kapital moduan berreskuratzea errenta moduan berreskuratzea baino aukera hobea suertatzen bada ere, ziurrenik banakako aurrezpen sistematikoko plana kontratatzea errentagarriagoa izango da, bere zerga zama askoz ere txikiagoa delako. Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar azken produktu honen zerga zama txikiaren eragilea adinagatiko abantaila fiskala dela, eta horren ondorioz, adin txikiagoarekin kapitala berreskuratzen duen pertsona batek ordaindu beharreko zerga handiagoa izango litzatekeela.

5.3. Bestelako finantza produktuak: adibide praktikoa

Behin aurrezpenerako produktu nagusien kasu praktikoa eta alderaketarekin amaitu dugula, lanean aipatutako bestelako produktu finantzarioen adibide praktikoa laburrak ikusiko ditugu. Jarraian burutuko dugun adibide praktikoa dagokionez, merkatuan dauden aukera desberdinak aztertzeko helburuarekin, errentagarritasuna lortzea helburu duten pare bat produktu aztertuko ditugu, gordailu baten eta inbertsio funts baten alderaketaren bitartez. Teorian azaldu dugun moduan, produktu hauek Pertsona Fiskoaren Errentaren gaineko Zergan jasaten duten trataera fiskala, kapital higigarriko errendimenduen eta ondare irabazien trataera da. Modu honetan, aurrezpeneko oinarri zergagarrian barneratzen dira dagokion zerga-tasen eskala aplikatzen zaielarik. Zerga-tasa hau produktuek emandako errentagarritasunaren gain aplikatu egiten da, beraz, zerga zama errentagarritasuna handiagoa den neurrian handituko da. Honekin zera esan nahi dugu, zerga zama ez dela aldatzen urteko diru sarreren arabera. Horren ondorioz, kasu honetan ez ditugu errenta maila desberdinak dituzten bi pertsona alderatuko bi kasuetan aplikatzen den zerga berdina izango baita.

Alderatuko ditugun produktuei dagokionez, bakoitzeko mota bakar bat aztertuko dugu. Gordailuari dagokionean, errentagarritasuna finkoa eta ezaguna izango da. Funtsari dagokionean, berrmatutako funts bat aztertuko dugu, azterketa errazteko. Jarraian produktuen datuak biltzen dituen taula ikusiko dugu:

GORDAILUA	INBERTSIO FUNTSA
Interes tasa %1,55	Interes tasa %2,70
Iraupena 35 urte	Iraupena 35 urte
Hasierako kapitala 3.000€	Hasierako kapitala 3.000€

Produktuen iraupena zehazteko, aurreko kasu praktikoetan erabili dugun berdina jarri dugu. Erretiroari begira diru bat aurrezteko helburua dugunez, berreskurapena momentu horretan egitea erabaki dugu. Hala ere kontuan izan behar dugu, merkatuan ez dela epe hain luzeko eskaintzarik egiten, nahiz eta produktu hauen epemugan dirua berrinbertitzeko zein kontratua baldintza berrietan berrizatzeko aukera dagoen. Gure kasuan diru hori 35 urtez inbertitzen dela suposatzen dugu, nahiz eta baldintzak ez ditugun berrituko. Gainera kalkuluak sinplifikatzeko bien iraupena berdina izango da eta interesak epemugan kobratuko dira.

Interes tasaren finkapenerako entitate finantzario desberdinen egungo eskaintza aztertu dugu; eperako gordailu finkoen kasuan gaur egun eskaintzen den interes-tasa %0,50 baino baxuagoa da. Hala ere, krisi finantzarioa baino lehen %4 inguru eskaintzera ere heldu ziren. Horregatik, gure interes tasa finkatzerako orduan bitarteko balio bat erabili dugu, gaur egun oso interes tasa baxua eskaintzen duten arren, 35 urteko epean egoera hobetzea espero baita. Inbertsio funtsaren kasuan, lortuko den errentagarritasuna ezezaguna da, inbertitzen den aktiboen bilakaeraren arabera baita. Entitate finantzarioetan lortutako datuen arabera, 10 urteko errenta finkoan inbertitzen duten zenbait inbertsio funtsek %1,62 ko errentagarritasuna lortu dute. Gordailuaren kasuan egin dugun moduan, iraupenean zehar egoera ekonomikoaren hobekuntzaren ondorioz gora egingo duela suposatu dugu.

Jarraian adibide praktikoekin hasiko gara, produktuen azterketarako bi urrats jarraituko ditugularik. Lehendabizi epemugan metatuta izango dugun kapitalaren zenbatekoa kalkulatu dugu, eta bigarrenik, berreskurapen unean jasango dugun trataera fiskala aztertuko dugu.

EAEn bizi den eta gaur egun 30 urte dituen pertsona batek bere erretiroari begira Gizarte Segurantzak eskaintzen duen erretiro pentsioaren osagarria izango den aurrezki bat lortu nahi du, produktu finantzario baten kontratazioaren bidez. Gaur egunean 3.000 euroko aurrezki bat du, gordailu edo inbertsio funts batean inbertituko dituelarik. Pixkanaka ekarpen berriak egingo ditu, aurrezkiaren eraketa prozesuan zehar. Dirua edozein momentuan berreskuratu dezake, beti ere, dagokion komisioa ordainduz. Hala ere, berreskurapena epemugan burutuko duela suposatuko dugu. Jarraian ekarpenen nondik norakoak biltzen dituen taula ikusiko dugu:

Urtea	Ekarpenak
1 urtea (kontratazioan)	3.000€
5 urtean	4.000€
15 urtean	9.000€

25 urtean	9.500€
30 urtean	6.000€

Aztertuko dugun lehen produktua gordailua izango da. Azterketarekin hasteko, epemugan izango dugun kapitalaren kalkulua burutuko dugu. Horretarako urte desberdinetan egindako ekarpenak %1,55 interes-tasan eguneratuko ditugu.

$$\sum_{u=1}^n a \cdot (1+i)^{n-t}$$

u: urteak
n: iraupena (35 urte)
t: ekarpena egiten den urtea
a: ekarpenaren zenbatekoa
i: interes-tasa

$$\text{Gordailua}_{35} = 3.000 \cdot (1,0155)^{35} + 4.000 \cdot (1,0155)^{31} + 9.000 \cdot (1,0155)^{21} + 9.500 \cdot (1,0155)^{11} + 6.000 \cdot (1,0155)^6 = \mathbf{41.846,02€}$$

Epemugako kapital zenbatekoa kalkulatu dugula, berreskurapen unean jasango dugun trataera fiskala aztertzea besterik ez zaigu falta. Teorian azaldu dugun moduan, gordailua berreskuratzen denean, soilik errendimenduak daude zergatuta, aplikatzen zaien zerga-tasa kapital higigarriko errendimenduena delarik. Jarraian gordailua berreskuratzerakoan izango dugun zerga zama zein den kalkulatu dugu:

$$\text{Errendimenduak} = \text{epemugako kapitala (i/t \%1,55)} - \text{ekarpenen batura (i/t \%0)} = 41.846,02 - 31.500 = \mathbf{10.346,02€}$$

$$\text{Zerga zama} = 2.151,12€$$

$$\text{Mozkinak} = \text{errendimenduak} - \text{zerga zama} = 10.346,02 - 2.151,12 = \mathbf{8.194,89€}$$

Adibide praktikoarekin amaitzeko, falta zaigun produktua aztertuko dugu, inbertsio funtsa hain zuzen ere. Gordailuarekin egin dugun moduan, lehenik eta behin epemugan izango dugun kapital zenbatekoa zein den kalkulatu dugu, dagokion interes-tasa erabiliz ekarpenak eguneratzeko.

$$\text{Inbertsio F}_{35} = 3.000 \cdot (1,0155)^{35} + 4.000 \cdot (1,0155)^{31} + 9.000 \cdot (1,0155)^{21} + 9.500 \cdot (1,0155)^{11} + 6.000 \cdot (1,0155)^6 = \mathbf{52.280,93€}$$

Jarraian berreskurapena burutzean ordaindu beharreko zerga zama kalkulatu dugu. Produktu honen kasuan ere, soilik lortutako ekarpenak zergatzen dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aurrezpeneko oinarrian barneratu egiten direlarik. Errendimendu hauek jasaten duten trataera fiskala ondare irabazi edo kapital higigarriko errendimenduen trataera da, kasuan kasu. Hala ere, biek zerga-tasen eskala berdina dute.

$$\text{Errendimenduak} = \text{epemugako kapitala (i/t \%2,7)} - \text{ekarpenen batura (i/t \%0)} = 52.280,93 - 31.500 = \mathbf{20.780,93€}$$

$$\text{Zerga zama} = 4.504,61€$$

$$\text{Mozkinak} = \text{errendimenduak} - \text{zerga zama} = 20.780,93 - 4.504,61 = \mathbf{16.276,32€}$$

5.4. Bestelako finantza produktuak: alderaketa

Erretiroari begira aurrezki bat edukitzeko helburua duen pertsona batek, ohiko aurrezpeneko produktuez gain beste aukera desberdinak ere aurkitu ditzake merkatuan. Hala ere, produktu hauen helburua nagusia egindako inbertsioari errentagarritasuna ateratzea da, eta horren ondorioz gure helburua lortzeko efikazia gutxiago eduki ditzakete.

Jarraian gordailua eta inbertsio funtsaren alderaketa burutuko dugu, adibide praktikoetan lortutako emaitzak biltzen dituen taula ikusten hasiko garelarik.

PRODUKTUA	Mozkinak	Zerga zama
Gordailua	8.194,89€	%5,14
Inbertsio Funtsa	16.276,32€	%8,62

Mozkinak = Errendimenduak – berreskurapenean ordaindutako zerga

Zerga zama= berreskurapenean ordaindutako zenbatekoa metatutako kapitalarekiko

Bi produktu hauen artean aukeratzeko kontuan izan behar duguna zera da, arrisku profil desberdina duten pertsonen zuzendutako produktuak direla. Ikusten dugunez, inbertsio funtsak irabazi handiagoa eman du gure adibide praktikoan, baina, ez dugu ahaztu behar inbertsio funtsak arriskua ere baduela.

Bi produktuetan egindako inbertsio berdina izanda, eta aplikatzen zaion zerga-tasen eskala ere berdina izanda, bien artean dagoen desberdintasun bakarra bere errentagarritasunean dago. Inbertsio funtsak eskaintzen duen interes-tasa gordailuak eskaintzen duena baino altuagoa da. Interes-tasean dagoen diferentzia hori arriskuaren ondorioz ematen da. Modu honetan, arriskurik jasan nahi ez duen pertsona baten kasuan, gordailua izango litzateke aukerarik onena denbora tarte zehatz batean zehar lortuko duen errentagarritasuna ziurra eta ezaguna delako. Errentagarritasuna txikiagoa izango da baina irabazia ziurra. Aldiz, arriskuarekiko baikorragoa den pertsona batek, inbertsio funtsa aukeratu luke. Horrela arriskua jasatearen truke errentagarritasun handiagoa lortzeko aukera du, nahiz eta irabazia ziurra ez den. Azken kasu honetan, kontuan hartzekoa da inbertsio funtsaren bilakaera desfaboragarria den kasuan errentagarritasuna txikiagoa edo nulua izan daitekeela, eta hare gehiago, funtsa bermatuta ez dagoen kasuetan inbertitutako kapitala murriztu egin daitekeela, irabazien ordez galerak edukiz.

ONDORIOAK

Gradu amaierako lan honekin amaitzeko, lanean zehar ikusitako guztia jasotzen duten ondorioak ikusiko ditugu. Ideia nagusiak laburbiltzearen esan, populazioari eragiten dioten faktoreak direla eta, geroz eta langile gutxiago daudela pentsiodunen kopurua handitzen den bitartean. Gaur egunean kotizatzen denarekin, etorkizunean pentsioak estaltzeko nahiko ez izatea suertatu daiteke, Gizarte Segurantzaren erreserba funtsaren bilakaera aztertzean ikusi dugun moduan. Erretiroari begira etorkizunak eskaintzen digun ziurgabetasunari aurre egiteko beraz, geroz eta garrantzi handiagoa du aurrezki pribatu bat edukitzeak.

Lan honen helburuari jarraituz, hau da, erretiroari begira Gizarte Segurantzaren pentsioaren osagarria izango den aurrezki bat eratzeko dauden produktuen alderaketa egitea, honako ondorioak lortu ditugu:

- Helburua erretiroari begira aurrezki bat lortzea denez, aurrezpen produktuak hobeak dira, errentagarritasuna lortzea helburu duten produktuekin alderatuz. Lehenengoek ekarpenak pixkanaka egiteko aukera ematen duten bitartean, gordailu eta inbertsio funtsek hasiera batean kapital handiagoa inbertitzea eskatzen dute. Gainera, produktuen iraupenari dagokionez, aurrezpen produktuen iraupena egokiagoa da.
- Produktu bat edo beste aukeratu baino lehen, kontuan izan behar dugu finantza produktuak, askotan, arrisku profil desberdina duten pertsonei zuzentzen direla. Beraz, lehenengo urratsa gure profilarekin bat datorren produktuak identifikatzea izango da.
- Aurrezpeneko produktuen artean dagoen desberdintasun nabarmenena trataera fiskalean aurkitzen da, beraz, ezinbestekoa da bizi garen lurraldean aplikatzen diren arauak zeintzuk diren ezagutzea.
- Trataera fiskalarekin jarraituz, kasu praktikoetan ikusi dugun moduan, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnentzat, bermatutako aurreikuspen plana kapital moduan berreskuratzea izango litzateke aukerarik egokiena, irabazi handiena lortzen baitugu modu honetan, abantaila fiskalari esker. Hala ere, Espainiako beste lurraldeetan, abantaila fiskal hori gabe, ziurrenik banakako aurrezpen sistematikoko plana izango da irabazi handiena ematen duena.
- Aukeraketa ondo burutzeko beste gauza garrantzitsu bat, norberaren egoera ezagutzea da. Hau da, kontuan izan behar dugu inbertitutako dirua kontratatzen dugun produktuaren likideziaren arabera, eskuragarritasun maila desberdina izango duela. Bermatutako aurreikuspen planaren kasuan, likidezia txikiagoa da dirua estalitako kontingentzien kasuan soilik berreskuratu daitekeelarik. Banakako aurrezpen sistematikoko plana aldiz, likidezia duen produktua da, dirua nahi den unean berreskuratu daitekeelarik. Hala ere, bost urteko epea igarotzea komenigarria da, eskaintzen duen abantaila fiskala ez galtzeko.

Laburbilduz esan, ezin ditugula lortutako emaitzak populazio guztiari aplikatu, erabilitako datuak pertsona zehatz batenak direlako. Kasuan kasu egin beharreko azterketa da pertsona bakoitzaren egoera ekonomikoa desberdina delako, eta horren ondorioz, ezin dugu produktu bat onena dela esan, kasu bakoitzean aukera hobea zein den aztertu behar delako.

Azkenik aipatu beharreko beste gauza bat da, erabilitako datu gutiak gaur egungoak direla edota hauetan oinarrituz egindako suposaketak. Honekin esan nahi duguna da, hemendik 35 urteko epean gauza asko aldatu daitezkeela, eta une bakoitzean indarrean dauden legeak eta produktuak aztertu beharko liratekeela. Etorkizuna ezezaguna da, eta horrek suposatzen duen ziurgabetasuna dela eta, gaur egunean hartu daitezkeen erabakiak dira garrantzitsuak, une oro ematen diren aldatetara moldatzeko gaitasuna eduki behar dugularik. Egungo egoera ikusita, aurrezkirako kontzientzia piztea garrantzitsua dela iruditzen zait, azaleratzen ari diren arazoei irtenbideak bilatzen hasteko momentua gaur egunean baitago. Ezinbestekoa da aurrezki pixkanaka eratu beharreko gauza dela ulertzea, eta kasuan kasu aurrezki plan pertsonalizatua egitea, zeinari esker, erretiroan izango ditugun beharrei aurre egiteko gai izango garen.

BIBLIOGRAFIA

- Bligoo, A. (2015). Inflación y desempleo. Eskuragarri: <http://principiosmacroeconomicos.bligoo.com.co/inflacion-y-desempleo#.VyHdQPmLTIU>
- Educación Financiera en la Red, Edufinet. (2016). ¿Como tributan los productos financieros en el IRPF? Eskuragarri: <http://www.edufinet.com>
- Eusko Jaurlaritza, G. V. (2016). Glosario EPSV. Eskuragarri http://www.ogasun.eigv.euskadi.eus/contenidos/informacion/glosario_epsvs/es_pdss/adjuntos/GlosarioEPSV1.pdf
- Federacion de EPSV de Euskadi. (2016). Epsv.Eskuragarri: <http://www.epsv.org>
- Gutiérrez-Fernandez, M. (2015a). Plan de pensiones individual. Eskuragarri: <http://www.expansion.com/diccionario-economico/plan-de-pensiones-individual.html>;
- Gutiérrez-Fernandez, M. (2015b). Plan de previsión asegurado (PPA). Eskuragarri: <http://www.expansion.com/diccionario-economico/plan-de-prevision-asegurado-ppa.html>;
- Gutiérrez-Fernandez, M. (2015c). Plan individual de ahorro sistemático (PIAS). Eskuragarri: <http://www.expansion.com/diccionario-economico/plan-individual-de-ahorro-sistematico-pias.html>;
- Gutiérrez-Fernandez, M., & Palomo Zurdo, R. (2015). Fondos de pensiones. Eskuragarri: <http://www.expansion.com/diccionario-economico/fondo-de-pensiones.html>;
- INE, Instituto Nacional de Estadística. (2016a). Datos del mercado laboral. Eskuragarri: <http://www.ine.es/>
- INE, Instituto Nacional de Estadística. (2016b). Datos demográficos. Eskuragarri: <http://www.ine.es/>
- Invertia. (2015). ¿Qué alternativas de ahorro para la jubilación hay distintas a planes de pensiones? Eskuragarri: <http://www.invertia.com/noticias/alternativas-ahorro-jubilacion-hay-distintas-planes-pensiones-3076316.htm>;
- Kiziryan, M. (2015). Diferencia entre ahorro e inversión. Eskuragarri: <http://economipedia.com/definiciones/diferencia-entre-ahorro-e-inversion.html>
- Lendico. (2015). Perfil de riesgo. Eskuragarri: <https://www.lendico.es/diccionario-financiero/perfil-riesgo-176.html>

- Mapfre. (2015). Planes de pensiones de empleo: PPSE. Eskuragarri: <https://www.mapfre.es/seguros/empresas/empleados/planes-de-pensiones/plan-de-prevision-social/>
- Mapfre Jubilacion, C. (2015a). Diferencias entre un plan de previsión asegurado (PPA) y un plan individual de ahorro sistemático (PIAS). Eskuragarri: <https://www.jubilacionypension.com/planes-fondos/planes-pensiones/diferencias-entre-un-plan-de-prevision-asegurado-ppa-y-un-plan-individual-de-ahorro-sistemico-pias/>
- Mapfre Jubilacion, C. (2015b). Fiscalidad de los PIAS. Eskuragarri: <https://www.jubilacionypension.com/economia-domestica/actualidad-economica/fiscalidad-de-los-pias>
- Mapfre Jubilacion, C. (2015c). A fondo: Fiscalidad de las aportaciones y de las prestaciones de los planes de pensiones y planes de previsión asegurados. Eskuragarri: <https://www.jubilacionypension.com/planes-fondos/planes-pensiones/a-fondo-fiscalidad-de-las-aportaciones-y-de-las-prestaciones-de-los-planes-de-pensiones-y-planes-de-prevision-asegurados/>
- Ministerio de Economía y Hacienda, Gobierno de España. (2008). Planes de prevision social empresarial (PPSE). Eskuragarri: <http://www.dgsfp.mineco.es/gaspar/PPOtrosContratosPPSE.asp>
- Monserrat, P. A. (2014). ¿Qué tipos de depósitos bancarios existen? Eskuragarri: http://www.iahorro.com/ahorro/gestiona_tus_finanzas/que-tipos-de-depositos-bancarios-existen.html
- Montero Castellanos, Y. (2015). Relacion entre rentabilidad, riesgo y liquidez. Eskuragarri: <http://economipedia.com/definiciones/rentabilidad-riesgo-y-liquidez.html>
- Pérez Porto, J., & Gardey, A. (2012). Definición de jubilación. Eskuragarri: <http://definicion.de/jubilacion/>
- Sánchez Galán, J. (2015). Poder adquisitivo. Eskuragarri: <http://economipedia.com/definiciones/poder-adquisitivo.html>
- Seguridad Social, Gobierno de España. (2016a). Fondo de inversión de la seguridad social. Eskuragarri: <http://www.seg-social.es>
- Seguridad Social, Gobierno de España. (2016b). Pensión de jubilacion. Eskuragarri: <http://www.seg-social.es>
- Sevilla Arias, A. (2015). Depósito bancario. Eskuragarri: <http://economipedia.com/definiciones/deposito-bancario.html>

Sisternes, A., Rankia. (2014). Fiscalidad de los planes de pensiones. Eskuragarri:
<http://www.rankia.com/blog/irpf-declaracion-renta/1664184-fiscalidad-planes-pensiones>

Vilá Medina, R. (2015). ¿Qué es un PIAS? : Ahorrar para la jubilación. Eskuragarri:
<http://www.expertofinanciero.es/que-es-un-pias-ahorrar-para-la-jubilacion/>